

Jakin^{•eus} 229

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2018

Euskal kultura 2018

Gorpuzkera anormalak,
behartuak eta groteskoak
IZARO IEREGI

Kultura eguneroko bizitza delako
SUSTRAI COLINA

NORA ARBELBIDE
ALBERTO BARANDIARAN
MAITE BERRIOZABAL
XABIER GANTZARAIN
INES ARRUE UNANUE
OIER GUILLAN
PERU IPARRAGIRRE
GORKA EROSTARBE

TXAKUR GORRIA
ADUR
AXPI
DANI FANO
DIEGO PALLÉS
EIDER EIBAR
PAULA ESTEVEZ

GAIAK

Norbere buru-gorputza irakurtzeaz
GARAZI ARRULA RUIZ

Jakin^{•eus}**229**
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2018



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea / Gudarien etorbidea, 29 / 20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜESTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Euskal kultura 2018

- 11** Gorpuzkera anormalak, behartuak eta groteskoak
Izaro Ieregi

Artean egon diren gorputzaren lerradurei buruzko hurbilketa bat egiten da. Modu horretan, arteak bizi garen garaietarako subjektibotasun berri baterako eskaintzen dizkigun posibilitateetan murgiltzen da.

- 27** Kultura eguneroko bizi delako
Sustrai Colina

Kulturari eta identitatearen eraikuntzari buruz egiten da go-goeta. Izan ere, ezer, inor, ez da ez (bere) ustez dena ez izan nahi duena soilik. Botereak, bortxak, memoriak, etorkizunak eta konbentzioek zizelkatzen dute identitatea. Horregatik da kultura eguneroko bizi.

43 Nora Arbelbide • Alberto Barandiaran
Txakur Gorria • Adur • Maite Berriozabal
Xabier Gantzarain • Axi • Dani Fano
Ines Arrue Unanue • Diego Pallés • Oier Guillan
Eider Eibar • Peru Iparragirre • Gorka Erostarbe
Paula Estevez

Urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea egiten dute zortzi egilek. Nora Arbelbidek Iparraldeko kultur politikaren inguruko zenbait auzi iruzkintzen ditu; Alberto Barandiaranek azken urteko irakurketetatik abiatutako gogoetak egiten ditu; Maite Berriozabal, Xabier Gantzarain, Ines Arrue Unanue, Oier Guillan, Peru Iparragirre eta Gorka Erostarbek bertsolaritza, arte, zinema, antzerki, literatura eta musikaren eremuak jorratzen dituzte, hurrenez hurren. Adur, Axi, Dani Fano, Diego Pallés, Eider Eibar eta Paula Estevez marrazkilarien eta Txakur Gorria sormen taldearen begiradak biribiltzen du urtearen balantzea.

GAIAK

105 Norbere buru-gorputza irakurtzeaz
Garazi Arrula Ruiz

Itzulpenean eta itzulpenaren bitartez identitatea nola berrinterpretatzen ahal den aztertzen da, literatura lan baten eta horren autoitzulpenaren kasu azterketan oinarriturik. Horretarako, teoria psikosozialetatik abiatzen da, azterketa enpirikoari marko teorikoa jarri asmoz.

KONTRAZALA Unai Iturriaga

BASQUE CULTURE 2018

Abnormal, forced and grotesque positions

The artist Izaro Ieregi takes a close link at the corporeal transition of art. She is thus able to delve into the possibilities offered to us by art so as to provide a new subjectivity in the times in which we live. **Izaro Ieregi**

Because culture equates to daily life

The journalist and *bertsolari* (verse improviser) Sustrai Colina reflects on culture and building one's identity. Nothing or nobody is simply what it or they are believed (or believe themselves) to be. Power, violence, memory, future and conventions are what shape our identity, which is why culture equates to daily life. **Sustrai Colina**

Basque culture 2018

Eight authors, professionals and analysts from the world of Basque culture provide us with a critical comment about the cultural events that took place during 2018. Nora Arbelbide comments on a range of issues related to cultural policy in the North Basque Country; Alberto Barandiaran uses his readings to reflect on this past year; Maite Berriozabal, Xabier Gantzarain, Ines Arrue Unanue, Oier Guillan, Peru Iparragirre and Gorka Erostarbe take a look back at the activity pursued within the world of verse improvisation, art, film, theatre, literature and music respectively. The satirical and artistic provided by the cartoonists Adur, Axi, Dani Fano, Diego Pallés, Eider Eibar and Paula Estevez and by the Txakur Gorría group illustrate this overview of Basque culture. **Various authors**

Reading one's own mind and body

The translator Garazi Arrula Ruiz analyses how identity is reinterpreted in translation, basing herself on the case of a literary work and its self-translation. She bases her views on psychosocial theory in order to provide the empirical analysis with a theoretical framework. **Garazi Arrula Ruiz**

Urteko azken zenbaki honek ahitu den urteari begirada bota nahi dio. Eta horretan jarri ditu Izaro Ieregi artista eta Sustrai Colina bertsolaria. Eta, esan liteke, norik beretik eginagatik, biek ere, bizi gaituen zaharra hiltzen eta berria jaiotzen ari den garai honetan, gorputza lokatzetan sartuta idatzi dutela.

Errealitate soziala zizelkatzen den gorputzak garela, errealitate eta arau soziala gorputzen den lekua garela hartzen du abiapuntutzat Izaro Ieregi artistak bere kultur kronikan. Bilboko Okela sormen lantegiaren sortzaile eta kide izan da Ieregi oraintxe arte, eta azken bost urteetan artearen, generoaren eta euskararen gainean zurkaiztu den proiektuan ikasi eta bizi izandakotik begiratzen dio Marina Garcés filosofoak «garai postumoak» –heriotza ondorengo garaiak– deitzen dion gure garai honi. 90eko hamarkadatik hona artea eta gorputza nola lerratu diren aztertzen du Ieregi. Bi helbururekin, hain zuzen, norbere burua gorputz bezala pentsatzeak berak dakartzan bi helbururekin: bat, arauari dagokiona, biolentzia normatiboa geure gorputzean nola gorputzen den aztertzea; eta, bi, erresistentziari dagokiona, subjektibotasun berriak nola sortzen diren ikustea kultur adierazpideen bitartez.

Sustrai Colina ere arauaren eta erresistentziaren artean ari da garaion subjektibotasunaren eraikuntza aztertzen duen artikulua-rekin. Kultura, zentzu antropologikoan hartuta, gorputz subjektibotasunaren eraikuntza baita: garen, izan nahi dugun, izan nahi ez dugun eta izan ezin dugunaren arteko elkargune horretan zirriborrotzen dena. Colinak menderakuntzaren disezio oso zolia egin du, kanpo eta barneko menderakuntzarena, besteek eragiten diguten eta geuk besteei eragiten diegun menderakuntzarena. Borterea, bortxa, memoria, etorkizuna eta konbentzioek zizelkatzen gaituzte, eta, hala ere, «egunero autodeterminatzeko borrokatu ahal izatea» ere eskutan dugun altxorra da.

Ieregi eta Colinaren testu mamitsuen ondotik, zortzi kultur gilek eta zazpi marrazkilarik 2018ko kultur gintzaren errepassoa egin dute: Nora Arbelbide, Alberto Barandiaran, Maite Berriozabal, Xabier Gantzarain, Ines Arrue Unanue, Oier Guillan, Peru Iparragirre eta

Gorka Erostarbe hitzez, eta Txakur Gorria kolektiboa, Adur, Axi, Dani Fano, Diego Pallés, Eider Eibar eta Paula Estevez marrazkiz.

Garazi Arrula Ruiz idazle eta itzultzaileak bere doktore tesian oinarritutako artikuluak ixten du zenbakia: hemen ere, gorputza eta identitatea aipatzen dira, literatur lanen autoitzulpen ariketak ezkututzen duena bistaratzeko. Eta, noski, zenbakiro legez, Unai Iturriagak ere egin du bere artikulu grafikoa, urteari buruz, 2018ko kulturgintzan mugarri izan diren hainbat gertakariri begirada galdera ikur batekin botata.

EUSKAL KULTURA 2018

11 Gorpuzkera anormalak, behartuak
eta groteskoak
Izaro Ieregi

27 Kultura eguneroko bizitza delako
Sustrai Colina

43 Nora Arbelbide
Alberto Barandiaran
Txakur Gorria
Adur
Maite Berriozabal
Xabier Gantzarain
Axi
Dani Fano
Ines Arrue Unanue
Diego Pallés
Oier Guillan
Eider Eibar
Peru Iparragirre
Gorka Erostarbe
Paula Estevez

Gorpuzkera anormalak, behartuak eta groteskoak

I

Gorputza errealitate soziala izkiriartzen den orri zuri bat bezalakoa da. Edo, nahiago badugu, berori inprimatze-ko mihise bat. Hau da, gorputza zeinu moduan azaltzen da, esanahiz hornitu dezaten zain dagoen eta oinarri adierazlea duen hezur-haragizko egitura. Besteen begiradek eta testuinguru erlazionalak emandako esanahiak inskribatzen diren egitura moldagarri bat.

XXI. mendeari Irailaren 11ko gertaerekin eman genion hasiera. Munduaren erdiak bere etxeko pantailetatik milaka ezezagunen gorputzen heriotzei so egin zion espantuz. Estatuek mundu mailako politika errepresibo antiterrorista bortitzak eratu zituzten, eta 90eko hamarkada erdialdean sustatutako antiglobalizazio mugimenduak frenatu zituzten. Adriana Cavarerok azaltzen duenez,¹ gertakizun horietan du erroa batez ere babesgabetasunari emandako arretak. Horrek inflexio puntua ekarri zuen, Mendebaldeak bere burua zaugarri hautematerakoan. Mendebaldeak bere muturreko zaugarritasuna sentitzen du orain. Zaugarritasun hori ez da soilik zertzen beste gorputz batzuk inplikatzekoan, bata bestearen pare, haragia haragiaren kontra, baizik eta baita beraiekin dakarten testuinguru erlazionala inplikatzekoan ere. Dorre bikien erortzearekin batera,

garai honen jite biolentoari bide eman zitzaion, eta giza-kiak biolentziarekin duen erlazioari buruzko galdera ireki zen. Hogei urte geroago, galdera horrek indarrean jarraitzen du oraindik.

Gorputzak testuingurua behar du, eta, era berean, gorputza testuinguruaz ari da. Gorputzek dagokien momentu historikoan eskuratzen dute zentroa, dagozkien leku sozialetan. Modu batera edo bestera, garai horiek erreproduzitu eta horien berri ematen digute. Gorputza mundura azaltzeko dugun imajina da, eta potentzial kritikoz beteta dago. Gorputza eraikuntza bat da; komunikazio erreminta bat. Eskuratutako teknikaren errepikapen bat besterik ez diren, transmisio kultural baten bitartez eskuratutako gorputz-tekniketarik hasita.

Kultura guztietan ez dira gorputz keinu eta teknika berdinak izaten. Arabiar kultura, euskal kultura, txinatar kultura... Esertzea bezalako ekintza sinple bat ere ez dator bat. Gogoan dut Txinako Xiamen hirian autobus batean nindoala. Egonaldi artistiko bat egiten ari nintzen, funtsean hiri horretako performerrekin hainbat grabazio eta argazki saio egitean oinarritzen zen egitasmoa, hain zuzen. Leihatilatik begira nengoen ni, eta espaloian ikasle bat ikusi nuen. Gazte hori kokoriko eserita zegoen, burumakur, eta nik zer edo zer jazo zitzaiola pentsatu nuen. Bera atsedean hartzen ari zen, besterik ez. Hemen, jakina, ez genuke horrela atsedean hartuko, ez arau sozialengatik, ezta gure aldaken atrofiarengatik ere. Hemen hurbileko eserleku bat bilatuko genuke, edo petril batean eseriko ginatke besterik gabe. Norberaren kulturaren sistema sinbolikoak esku hartzen du gure jardunean. Gorputza objektu bat da, bitarteko tekniko bat. Gure kasuan, gure aldaka mendebaldarrak ez daude ekialdekoenak bezala trebatuta. Ez daukagu kokoriko atsedean hartzeko moduko irekidurarik –malasana, yogan-. Hori ere teknika da. Gorputzaren hurbilketa batetik gerturatu gaitezke bizi garen mundura. Fenomenologiak planteatzen zuen bezala, kultura alboratuz munduaren ezagutzara sarbidea izan.



Txinatar talde gazte bat kokoriko jezarrita.

Gorputza adierazlea eta esanahiaren etendura da aldi berean. Bizi garen garaiotan, gorputzak bere baitan gordetzen ditu subjektibotasun berrietarako posibilitateak. Batzuek gaitxo, akitu eta hondamendizko definitzen dute garai hau –eta jite biolentoko, lehen ikusi dugun bezala–. Ez gara orainarekiko bizi, iraganarekiko baizik; Marina Garcés-ek azaltzen du «lehen zegoen guztia ‘hobea’ zela» uste dugula.² Baina, era berean, etorkizunarekiko bizi gara gure buruen kontra ezartzen dugun autoesplotazioarengatik eta horrek sortzen digun akidura sentsazioarekin. Horrela imajina genitzake gure gorputzak; ez bestearrekiko irekiera batean, baizik eta norberarekiko. Martí Peran-ek ongi definitzen du: «autoesplotazioaren subjektuaren logika nagusitu da, bere buruaz arduratua denbora osoz».³ Ondoez fisiko eta mental etengabe dauden gorputzak, iraganean eta etorkizunean norbere baitaratuak.

Ezinegon horri era zuzenean kontra egiteak ariketa fisiko etengabea eskatzen du. Kirola eskatzen du, ikasketak eta elikadura egokia. Ongi pentsatzea eskatzen du. Gure gorputzak

trebatu behar ditugu orainari aurre egiteko. Orain dela aste batzuk, yoga filosofian aditua den Arvin Pare-ren ahotik entzundako hitzek artegatu ninduten. Gorputza Halloween kalabaza bat bezalako zela zioen. Gure gorputzak kalabaza ziren, eta gure gogoak kandela. Kandela kalabazatik ateratzen bagenuen, orduan kalabazak agertzeari uzten zion; kandelak, ordea, bertan zirauen. Kalabaza kandelaren menpe dago. Gorputza nire menpe dago, ez ni gorputzaren menpe. Hori ulertzen badugu, zoriona aurkituko dugu.

Europa zabalean mugimendu politiko-sozial berriak azaltzeak ilusioa eragin ahal izan badu ere, errealitate material eta aukera ekonomiko ikaragarri txarrek kolpatzen gaituzte. Hain zuzen ere, muturreko eskumara desplazamendu bat gertatzen ari dela ikusten ari gara. Gorputz disidenteak eta bestelakotasunak bortizki erreprimetuko dituenak –berriro ere, inoiz hala egiteari ez baitio utzi–. Normatibitateari erantzuten ez zioten gorputzak, hau da, unean uneko *establishment*-ak exijitutako ezaugarriak betetzen ez zituzten gorputzak, behartuak izan dira. Sorginen kasua izan daiteke ezagunena, agian. Baina gertuago kokatzen bagara, badakigu tortura ohiko jarduera izan dela frankismoan. Beste identitate sozial bat eta hizkuntza bat galdegiten zuten gorputzak azpiratzeko erabili izan da teknika hori.⁴

Euskal Herria gatazka politiko eta armatu batek zeharkatutako lurraldea da, non sinbolo eta subjektibotasun mota askotarikoak elkarrekin bizi izan diren; orain agertoki berri baten aurrean gaude. Esan daiteke ETaren (Euskadi Ta Askatasuna) amaierarekin –2011ko urriaren 20an lehenik, eta 2017ko apirilaren 8ko armagabetzea, ondoren– salbuespen egoeraren amaieraren hasieran gaudela eta elkarbizitzarako ate bat irekita dagoela. Gorputza lehen lerroko arma izan den gatazka politiko eta armatu baten amaiera. Iraultza bat biolentzia dakarren maitasun ekintza bat da, eta biolentzia horrek gorputzak zeharkatzen ditu beste behin. Maitasun ekintza bat dela diogu gorputzek arriskuak beren gain hartzen dituztelako, ondorioak ondorio. Hainbat belaunaldik

hartu dute beren gain kartzela, tortura, heriotza eta erbeste arriskua. Gorputzarekin egiten dugu borroka, gorputzari ezikusiarrena eginez; gorputza euskarri soil gisa.

Gure gorputzak atzealde honetako figurak dira. Etsita gure patu ezarantz egiten dugu bide, guk geuk autoinposaturikoa. Hilda uste dugun mundu bat habitatuz, gure momentuak zuketuz etorkizunarekiko inolako konpromisorik gabe. Denbora laburrenean

ahalik eta gozamen eta probetxu handiena atera nahian. Horiek dira subjektibotasunaren produkziara bideratutako kapitalismoak inposatzen dizkigun baldintzak, kapitalismoaren sostengaezintasuna agerian utzi zuen 2008ko krisiak markatuta. Espazioarekiko eta denborarekiko dugun erlazioa da aldatu dena. Abiaduraren eta gehiegizko jardute eta informazioaren artean

Abiaduraren eta gehiegizko jardute eta informazioaren artean kraskatu egiten gara. Gure gorputzek kapitalismoak formulatutako botere dispositibo horiek jasaten dituzte

kraskatu egiten gara, gehiegikeria hori digeritzeko ezintasuna bilakatzen da; indigestioa. Gure gorputzek kapitalismoak formulatutako botere dispositibo horiek jasaten dituzte, eta zuzenean horiengan artikulatzen dira. Horixe izan zen garapen kapitalistaren aurrebaldintza, *gorputzaren diziplinatzea*, termino foucaultiarretan.

Norbere burua gorputz bezala pentsatzeak bizitzea egokitu zaigun leku erlazionalean kokatzea dakar. Irakurketa apokaliptikoak nagusi diren eta identitate berrien ernaltzeak sorturiko hausturetan identitateak igarotzen diren leku bat. Amaieraren logika bizi duen leku bat, denari iraungitze data ezarri diogu, maila globalean zein lokalean –lana, bikotea, natur baliabideak...–, eta horrek suntsitzen gaitu, zaugarri bilakatzen gaitu. Gure bizitzako esparru guztiak zeharkatzen dituen etsipen sentsazio bat. Marina Garcések ‘analfabetismo

ilustratua' deritzo etorkizun hobeago batekiko ezintasun eta uko egite horri: bertan, gure garaiaren gertakari erabakigarria hauxe da, asko dakigula eta, aldi berean, oso gutxi ahal dugula.

Subjektua batek, emana dagokionaz zehaztua egoteaz gain, bere izaera bereizgarria adierazi ahal izan dezan, garrantzitsua da subjektua subjektio praktika batzuen bitartez eratuta dagoela pentsatzea; hala nola kultura, ideologia edota familia. Baina askatze praktika batzuk egiteko aukera ere baduela, non singularra eta subjektibotasun berriak ez diren baztertuko; hala nola artean edo politikan.

Gorputzak biolentzia normatiboak haragiztatzen ditu, baina, era berean, subjektibotasun berriak ahalbidetzen ditu. Askatze praktiketan gertatzen dira, hain zuzen, singularitateak; hortaz, artetik gorputzera hurbilketa txiki bat egitea erabaki dugu. Edo, hobeto esan, artean gorputzaren lerradurei hurbilketa bat. Eta arteak, modu horretan, bizi garen garaientarako subjektibotasun berri baterako eskaintzen dizkigun posibilitateetan murgildu. Gure asmoa ez da arteak egokitu zaion testuinguru historikoa islatu behar duela ulerraraztea. Baina bai moduren batean edo bestean arteak eta testuinguru horrek elkar baldintzatzen dutela. Ikus dezagun, beraz, globalki eta lokalki amaiera logika hartzen ari den une honetan arteak zer posibilitate proposatzen dizkigun.

II

Euskal testuinguru artistikoan, artean gorputzaren lerradura bereziki 80 eta 90eko hamarkadetan gertatu zen, eskulturatik performancera emandako pausoarekin. Pauso horrek Artelekuko ikastaroetan izan lezake jatorria. Arteleku zentroak 1986an ireki zituen ateak, eta bertatik pasatu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko artista lizentziadunen lehenbiziko promozioak. Sergio Prego, Itziar Okariz, Ana Laura Alaez edota Azucena Vieites eta enparauek osatutako artista belau-naldi bat jaio zen bertan. Ate joka zetorren XXI. mendearen

izaera zizelkatzen zen bitartean hasi zen zentroaren ibilbidea, Berlingo Harresiaren erorketak bultzatuta eta ideologiaren zaharkitze eta globalizazioaren bizkortzearekin.

Prozesu honetan interesgarria da teoria kritikorako bira bat eman zela azpimarratzea, diskurtso feminista, generoko eta klase sozialekoekin. Gatazka identitarioaren itzalpean, subjektibotasun txikiagoak ernaldu ziren 'nazioa' edota 'estatua' bezalako nozio normatiboagoen aurrean. Biraketa hori jada gertatua zen AEBetako testuinguruan 80ko hamarkadan, autoreek gorputzarekiko interesa handitu zutenean, sexuaren eta generoaren arteko debateek eta hiesaren eta eraldaketa sozialerako bide izan nahi zuten mugimendu sozialen agertzeak erdigunera ekarrita. Barbara Kruger-en lan batean inskribatutako «*Your body is a battleground*» esaldiak ongi ordezkatzeko du une hori. Baina 90eko hamarkadako arte estatubatuarrean jada gauzatuta zegoen biraketa sozial eta korporala. Garai hartan, «subjektu traumatiko edo abjektua, gorputz eri edo mindua» egia errotzen den leku bezala ulertzen da. Julia Kristevaren definizioaren arabera, abjektua «ni izateko bidean ondotik kendu behar dudana hori» da. Estatubatuarrek ez bezala –abjektuaren eztabaida gorputza barrukoz kanpora erakutsiz mahaigaineratzen baitzuten, «gure barruko eta kanpoko gauzen»⁵ mugak lausotuz–, euskal artistek beren erreferentzia esparrua gorputzaren eraikitzean eta errepresentazio politikan mantendu zuten, abjektua pieza batzuetan prozesatuz.

Ikastaro formatua egiturazko elementua izan zen Artelekun. Angel Badosek eta Txomin Badiolak 1994an eta 1997an zuzendutako bi nabarmendu daitezke. Horietatik artista gazte eta ez hain gazte ugari pasatu ziren, eta talde kohesioz lan egiten zuen artista komunitate bat sortu zen; artista talde batek azpikultura edota diskurtso feminista bezalako lekue-tatik abiatutako praktika artistiko bat eraikitzeari ekin zion.

Praktika horietara gerturatzeko, Itziar Okarizen obran jar dezakegu arreta. Artista horrek *Red Light* pieza gauzatu zuen Bados eta Badiolaren lehenengo ikastaroan. Bere burua

filmatu zuen Siouxsie & The Banshees bandaren abesti bat dantzatzuz, *Do It Your Self* praktikara eta *Punk*-era hurbilduz. Pieza hori baliabide urriak erabiliz egina dago. Okarizek bere gorputzarekin ekintzak egiten jarraitzen du. Kulturalki konnotatutako ekintzak beti ere (*Irrintzi* edo *Mear en espacios públicos*, kasu), komunikazio eta identifikazio bide berriak irekiz. Bere obrek subjektu bezala definitzen gaituzten hizkuntzaren eta zeinuen produkzioaren inguruko araudiak jartzen dituzte zalantzan. Gorputzaren errepresentazio politiken inguruko auziak lantzen ditu testu, imajina eta aho-tsaren bitartez.



Itziar Okarizen *Red Light* (1995).

Ana Laura Alaezen *Mujeres sobre zapatos con plataforma* lanean ere argi ikusten dugu aipatzen ari garen gorputzaren errepresentazio politiken inguruko ardura hori. Lan hori artista New Yorken bizi zela gauzatua dago, artistak diseinatutako sei ileordek eta 70eko hamarkadako sei zapata parek osatzen dute. Bere lagun Itziar Okarizena bezala, baliabide gutxirekin egina dago. Sei ileordeak sabaitik eskegita daude pita garden batetik, eta horietako bakoitza zapata pare banaren gainean kokatzen da. Modu horretan, gorputzaren bertikaltasunaren aurrez aurre ipintzen gara, baina kasu honetan gorputza huts bat da. Badirudi eskulturatik jorratutako pieza horrek niaren posibilitate infinituak bilatzen dituela ileorde eta plataformen artean agertutako hutsune horietan. Baina emakume artisten presentzia ezaren diskurtso feminista ere topa dezakegu inplizituki.



Ana Laura Alaezen *Mujeres sobre zapatos de plataforma* (1992).

Artista horien pieza horietan norberaren burua begiratzea eta norberaren imajina bezalako auziak taxutzen dira. Teoria feministatik gero eta hurbilago dauden praktikak, horrenbeste egitura patriarkalaren hizkuntza baztertuz. Ederraren eta abjektuaren artean dabilzan identitate aldakorak aurkezten dira; dotorea eta groteskoa. Artista horiek gorputzaren politikei eta errepresentazioaren kritikari buruzko kezka garaikidea erakusten dute. Testuinguru sozial eta identitarioen subjektibotasun berrietarantzko 90eko hamarkadako irekitze prozedura horiek egungo artista gazteagoek jarraitu dituzte lantzen.

III

Artista gazteagoek egindako proposamenetatik abiatuz, subjektibotasun berrietara hurbildu gaitzke. Aipatzen ari garen gorputzaren lerradurei lotuta dauden eta egungo kultur testuingurutik zuzenean edaten duten proposamen garaikideak. Gorputz behartuak imajinatzen garen leku batean kokatuak, egungo bizi baldintzek zeharkatuak. Gorputza azaltzen den

eta subjektu garaikide berri batentzako irakurketa kontaezinak eskaintzen dizkiguten hainbat proposamenetan ari dira lanean euskal eszenako artistak.

Okela espaziotik pasatu diren bi artistarengan jarriko dugu arreta. Hautaketa hau guztiz subjektiboa da, neuk espazio horrekin dudan harremanari lotua. Espazio horrek 2014an ireki zituen ateak. Izaera belaunaldiarteko, feminista eta euskaldunarekin jaio zen. Belaunaldi eta esparru ezberdinetako artistak harremanetan jarri, artearen espezifikotasunetik lan egin eta oro har jendartearekin zubi lana egiteko asmoz. Okela euskal testuinguruko artistekin lan egiten hasi zen, hau da, testuinguru horretan bizi, jaio edo lan egiten zuten artistekin.

Ikus dezagun, adibidez, *Oskola Parau* erakusketa (2018).⁶ Berritze prozesuan dauden Getxoko Punta Begoñako galeriatan izan zen erakusketa. Bertan, Maria Muriedas artistak *Triple X* pieza erakutsi zuen. Punta Begoñaren konglomeratuaren barrunbeetan kokatzen zen bideo sorta bat. Lau plasma pantailari eusteko kokatutako lau eskora, galeriaren alderdi

Gorputza azaltzen den eta subjektu garaikide berri batentzako irakurketa kontaezinak eskaintzen dizkiguten hainbat proposamenetan ari dira lanean euskal eszenako artistak

horren euste lana egiten zuten beste eskora batzuekin nahasten zirenak. 1921ean eraikitako oskol hori altxatzen zuten hormigoizko zutabeen artean kokatu zituen Muriedasek. Pieza hori Tokion ekain, uztail eta abuztuan egindako egonaldi batean burutu zuen. Artistak hitzorduak programatu zituen bere belaunaldi bereko hainbat pertsonekin, baita artearekiko

gertu zeudenen edo interesa zuten hainbatekin ere. Horrela bildu zuen «posearekin harremana duen jokaera sorta bat, argazkilaritza testuinguru batean». Piezarentzako idatzi zuen testuan irakur dezakegunez, «egoera performatibo bat sortzen du, zeinetan interpretatua izateko baldintzak jartzen dituen proposamen moduko partitura bat zabaltzen den».⁷



Maria Muriedasen *Triple X* lana. Argazkia: David Hornback.

Pieza honetan, prozesua pieza bera artikulatzen duen ezau-garria da; izan ere, zoria da nolabait pieza eraikiz doana. Kameraren aurrean posatzen duten gazteek jarrera oso desberdinak hartzen dituzte; lurrean, horman, zutik, kokoriko. Begirada galdua duten gorputz horiek behatzen ditugu, eta modako publizitate kanpainak iradokitzen dizkigute. Baina, aldi berean, gorputz horiek lehen aipatzen genituen etorkizunik gabeko subjektuengana garamatzate, ondoez garai haue-tara hain lotuak. Pantaila ezberdinetako gorputzen artean ere badago elkarrizketa, figuraz eta planoz aldatuz. Interesgarria suertatzen da hori, masa sentsazioa ematen duelako. Agin-du berberak jarraitzen dituzten gorputzak. Norabidetzeak garrantzi handia hartzen du bideoetan; izan ere, gorputzek hitz egiten ez diguten arren, kameraren klika entzuten dugu. Gorputz horiek ez dute hitz egiten, beste batzuek hitz egiten dute horien orde. Subjekzio praktikaren baten menpe daude guztiz. Beharbada, kapitalismoaren kontsumismo basatiaren menpe. Subjektu guztiak ongi jantzita doaz, goi-mailako joskintzako kirol arroparen kanpaina bati dagozkion arropekin. Dena den, kameraren klika entzuten dugu, gorputzek

klikaren soinuan aldatzen dute posez. Bestearen begiradaren menpe daude guztiz.

Erakusketa honetan gorputzera hurbilketa bat egiten duen beste artista bat Dani Llaría da. Muriedasenarekiko proposamen estetiko aurkako batekin, gogortasuna eta gainbehera kontrajartzen dizkio estetika egungoago bati –*millennial* belaunaldiari edo trap estetikari lotua– atxiki dakiokkeen estetika aseptikoari. Llaríaren kasuak aurreko belaunaldiari lotuago dagoen hizkuntza bat agertzen duela esan genezake. Hormigoiaren, tela hautsien, zingila tentsionatuen laztasuna. Estetika gogor eta soilagoa. Obrak *The Get Rich* du izena, eta fordismoaren kate ekoizpenetik imajinario feminista eta *queer*-eraino iragaten den diskurtso historiko eta artistikoa adierazten du.

Llaríak 2016an egin zuen eskultura serie hori, eta leku espezifikoko bakoitzerako birlandu du. New Yorketik iritsi berritan, artistak Errioxako Anguiano herrian duen tallerrean pasatu zuen uda, eskulturaren lanean erakusketa honetarako. Llaríak sei eskura ipini zituen galerien areto nagusian. Hortik langile buzo zati urratuak erortzen ziren, eta horietan jite industrialeko hormigoi molde landugabeak eta organo sexual maskulinoren bat zintzilikatzen ziren, hori guztia bere aldetik obretako zingilez helduta. Artistak piezarentzako idatzi zuen testuan, hauxe irakur liteke: «Langile fordista (*aka* peoi sindikatua) eta posfordista (*aka* sortzaile freelancea) bereizten dituen espazio-denborako klase identitateez ari da pieza». Izenburua horrela itzultzen da literalki: *Aberastu Zaitetz Jendea*, hip-hop iparramerikarraren hizkuntzari dagokion esamoldea. Artistak kontatzen duenez, «txirotasunaren lerroan kokatutako biztanleek ez dute berezko klase-ideologiarik; horren ordez, aberatsak eman dieten hura erreproduzitzen dute eta, beraz, beren gurari bakarria hura izatea lortzea da».⁸ Bere presentzia fisikotik harago, Dani Llaríaren obra horren izaerak klase auzietara garamatza.



Dani Llarriaren *The Get Rich* pieza. Argazkilaria: David Hornback.

Bi lan horiei egindako bisitaldian, subjektu hautsi, nekatu bat planteatzen dela dakusagu. Maria Muriedasen kasuan, performatibitateak presentzia argia hartzen du. Lana ekin-tza baten erregistroak egituratzen du. Euskal eszenako beste proposamen batzuen oinordekotzat jo dezakegu: hor ditugu, adibidez, Itziar Okarizen aipatutako *Red Light* edo Jon Mikel Eubaren *K.Y.D. Kill'em all*. Azken horretan aurpegi asko eta beste hainbat gorputz errepresentatzen dira: gorputz paralizatuak, etzanak, heriotzaren eta loaren artean dihardutenak. Baliteke gorputz horiek orain bizi dugunaren aurrekariak izatea. Artisten belaunaldi hark, Jon Mikel Euba tartean,

bizi zuten testuinguru kultural, sozial eta politikoa bahetu zuen, kultur identitatearen eta biolentziaren mamuak bere existentzia agertzen zuen garaietan. Muriedasen piezan, gorputzak lozorroan agertzen dira, baina ez lotan, ez daude ez ametsetan ez hilda. Bizirik diraute, esnatzeko zorian dirudite, amorrutik ezanda baten alde aurreko tentsioan. Nazioar-

Praktika horietan guztietan subjektu autoesplotatuaren esperientzia garaikidea eta identitate berrien agerpenak eragindako pitzadurak iragazten dira

teko artisten obran –Anne Imhof-enean, besteak beste– subjektu problematizatu bera planteatzen da, baina kasu horretan performancea ez dago soilik erregistrorako pentsatua. Betiereko nerabearoa haragiztatzen duten gorputzak, markaz jantzitako kontsumo molde berriez behartutako belaunaldi *galdu* bat dabil norae-

zean publikoaren aurrean. Dani Llaríaren kasua June Crespo edo Josu Bilbaoren lanetatik hurbilago legoke. Hizkuntza objektualagora heltzen den lan prozesu batekin. Genero eta klase ikuspuntutik jorratutako tradizio eskultoriko bati lotuago egon liteke, baina baita subjektuaren ikusmolde bati atxikiago ere. Lan horietan gorputzaren zatikatzea ikusten dugu, bere izatearen beraren gain bizirauten duen gorputz zatikatua. Elkarren artean erlazionatutako gorputzak, indar handiz subjektibizatutako eskulturak, ikuslea zuzenean ukitzen dutenak. Artista horien alderdi material eta korporalek materialen zurruntasun eta gogortasunaren eta proposamen korporalen jariakortasunaren artean dihardute.

Azken buruan, oso ezberdinak izan arren leku berean kokatuta dauden proposamenetara hurbildu gara, zeinetan subjektu garaikide berri bat ahalbidetzen den, posearen eta hondamenaren arteko dialektika bat eraginez. Gaur egungo belaunaldia modu behartuan, bortitzean errepresentatuz. Praktika horietan guztietan subjektu autoesplotatuaren esperientzia garaikidea eta identitate berrien agerpenak

eragindako pitzadurak iragazten dira. Hainbat arazo jartzen dira auzitan, arteak subjektibotasunaren sorreran duen zeregina, kasu. Obra horiek gorputzaren, testuinguru sozialaren eta norberaren eta besteren begiradaren arteko erdiko puntuan kokatzen dira. Gorputza da ikuslearengana beste subjektibotasun posibilitate batzuk daramatzen bidea. Eta subjektibotasun hori kritikoagoa da, erlazionalagoa, *arriskugarriagoa* eta *gorpuzdunagoa*, *makurtuagoa* eta *zaurgarriagoa*.⁹

Agur bat

Testu hau lantzeko aukera eman didan markoa Okelak antolaturiko erakusketa izan da. Nire kide Nora Aurrekoetxea eta Irati Urrestarazurekin fundatu nuen espazioa, eta ondoren Sahatsa Jauregi gehitu zitzaigun. 2014ko apirilean ireki genituen ateak, baina egitasmoa 2013ko ekainean hasi zen, Norak eta biok unibertsitatetik jaisten zen autobusean kointziditu genuenean. Han hitz egin genuen estudio bat izateko geneukan gogoaz. Erabilerarik gabeko lokal bat aurkitu eta hartu ondoren, geu arduratu ginen, lagun bat edo besteren laguntzaz, hainbat hilabetetan obrak eta berrikuntzak egiteaz. Hilabete horietan sortu zen gaur egun Okela den hori. Espazioa belaunaldiartekoa izan zedin nahi genuen, genero ikuspuntuarekin, eta gure hizkuntzak presentzia ez ezik ahalmen diskurtsiboa izan zezan. Laster bost urte beteko dira 2014ko apiril hartatik.

Buru-belarri murgildu nintzen egitasmo horretan, desiratik abiatuta. Desira horrek berak zeharkatu zuen nire gorputza gaur egun nagoeneraino. Desira horrek guztiz inplikatu zuen nire gorputza lanean, eta espazioaren hiri berean kokatu zuen. Egitasmoari jarrera irekiz heldu nion; soina zerura begira. Nekea leun eta apal etorri da; baina egitasmoa ulertzeko beste modurik ez dut: izatea eta lana bateratu behar ditu. Erabakia ez da erraza izan, ezta aldez aurretik prestatua ere. Nire gorputzetik pasatu den zerbait izan da, eta gerta zedin utzi dut, egitasmoa uzteko erabakia hartuz.

Asko ikasi dut, zalantzarik gabe esan nezake nire unibert-
sitate Okela izan dela. Espaziotik pasatu diren artista guz-
tiekin eta nire kideekin ikasi dut. Bide hunkigarri eta atse-
gingarria izan da. Beste bide mota bat gauzatzeko desiraren
atsegina, zaintzak eta praktika onek denok ukitu eta ukituko
gaituzten bide bat. Ez da bide erraza, baina nire kideek au-
rrera jarraituko dute.

Eskerrik asko, Nora

Eskerrik asko, Irati

Eskerrik asko, Sahatsa

Ez dago ariketa zailagorik (norbere burua) entzutea, (nor-
bere burua) mimatzea eta (norbere burua) zaintzea baino. 🍷

Oharrak

1. Begonya Saez Tajafuerce (arg.), *Cuerpo, memoria y representación. Adriana Cavarero y Judith Butler en diálogo*, Bartzelona, Icaria, 2014, 21. or.
2. Marina Garcés, *Nueva ilustración radical*, 2. argitalpena, Bartzelona, Anagrama, 2017, 8. or.
3. Martí Peran, *Indisposición general. Ensayo sobre la fatiga*, Hondarri-
bia, Hiru, 2016, 11. or.
4. Francisco Etxeberria, Laura Pego eta Carlos Martin Beristain (zuz.),
*Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua
(1960-2014)*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2017.
5. Hal Foster, *El retorno de lo real*, Madril, Akal, 2001, 157. or.
6. Okela, *Oskola Parau*, 2018 (www.okela.org/eu/proiektuak/oskola-parau).
7. Okela, *Oskola Parau Eskuorria*, 2018 (https://issuu.com/okela.lantegia/docs/galeriak_oskola-parau_eskuorria_lo-).
8. Okela, *Oskola Parau Eskuorria*, 2018 (https://issuu.com/okela.lantegia/docs/galeriak_oskola-parau_eskuorria_lo-).
9. Begonya Saez Tajafuerce (arg.), *Cuerpo, memoria y representación. Adriana Cavarero y Judith Butler en diálogo*, Bartzelona, Icaria, 2014.

Kultura eguneroko bizitza delako

Paradoxa polita da: denborak irautera egiten du.

Xabier Gantzarain, *Zuloa*

I

Kultura eguneroko bizitza delako da bizitzea oso arriskutsua.

Gasoilaren prezioak gailurra jotzean, garraiolariak ala oporretara gerrikoa estu doazen familiak dira ageri al-bistegietan, ez emanaldira bidean irabazi-tarterik gabe geratu diren artistak. Musikariarentzat izan ezik, samurra da musikaz bizitzea; kulturako aurrekontuen %70 egiturak mantentzera bideratzen da, MTVk ez du kultur teknikaririk kontratatzen San Mames Barrian jotzeko, eta prestigioari buruzko edozein eztabaida diruaz ez mintzatzeko eufemismoa da.

Esaterako, Goya sariak metatzeagatik euskal zinemaren sinbolo den *Handia* filmak diru-laguntzen amuari zor dio bere euskara, denok baikara turista kulturaren parke tematikoan, bisitari geure bizitzetan. Turismoak hiria nola gobernatzen du merkatuak bizimodua: marka bihurtzea da arrastoa sartzea, berezitasuna agortzeraino ustiatzea identitatearen kudeaketa, eta, ohartzeko, Airbnb-k jartzen dio prezioa denborari.

Denbora generaman, guraso on plantak eginez, seme-alaba nerabeek alkoholik probatzen eta tabakorik (belarra badenik ere ez dute jakingo) pipatzen ez zutela sinetsita. Siadecok Elkar fundazioarentzat gauzaturiko inkestaren datuen arabera, ordea, euskal hiztunen %59k erdarazko prentsa baizik ez du kontsumitzen, herritarren %70ek ez du azken urtebetean diskorik erosi, eta *Oreina* pelikulak irudikatzen duen euskaldun izateko manera gaurkotuak erdara zein euskara etengabe harilkatzen ditu *Las Tea Party* dantzatzen duten auzoko gazte hip-hopzaleen ezpainenetan. Bizitzea oso arriskutsua delako ote dabil euskal kultura jaka horirik gabe, bi ilargiren arteko gauaren ertzean ikusezin? Zer gertatuko litzateke, behiala Hollywoodeko gidoilariak legez, euskal artistek grebara deituko balute? Nahikoa litzateke autobideetako ordainlekuak edo mugak tratatzea egunkariko kulturako orrialdeetatik ateratzeko? Nor gerturatuko litzateke patuaren bidegurutzera grebalariei jan-edana eskaintzera? Auto-ilaretan harrapatutako gidariak, erruki eske, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* irakurriko al lukete, Lisabören azkena entzuten duten bitartean? Zer liokete lehendakariak, zer oposizioek? Nola emango litzateke albistea ETB1en? Eta ETB2n?

Orduan ere, iaz bezalaxe, *Teleberri*-ren iraupenak *Gaur Egun*-ena bikoiztuko du (gutxienez), euskal kulturak lanuztera deitzen duenerako euskarazko telebista publikorik ez egotea baztertzekoa ez den arren. Elkarbizitzan eta aniztasunean oinarritutako «*gabon-buenas noches*» ideologia zikiratzailearen predikatzaile goren, 2018an ere kate baskoaren aldeko apustua berretsi du ETBko zuzendaritzak, gaztelania erakarriagoa dela frogatzen tematzeaz gain, euskara ikasi nahi duenari alferrik ez saiatzeko errepikatu baitio egunero. Zertarako matrikulatu euskaltegian, Cervantesen mintzoan kantatzen badu txoriak? Ebrotik beherakoa euskaraz kopiatzeak erdalduna euskalduntzen du ala euskalduna erdalduntzen? Ez dezala inork esan ETBk fikzioari ateak ixten dizkionik, ez baitago bere helburuak betetzen ez dituen bitarteko publikoa baino fikzio handiagorik. Horregatik, audientzia-datuen

irakurketa interesatuen oihartzunean datozen etorkizuneko berrantolaketa proposamen guztiek galdera bakarra dute onartzen: zein da ETBren ardatza? Erantzunaren arabera, bere kultura baino ikusezinagoa den telebista publikoa duen munduko lehen herrialdea izan daiteke hau, ordainlekuko saskitxoak pixkanaka-pixkanaka irentsitako jaka horia.

Euskara ardatzera ekartzeaz gain, euskaldunon %100 erdal-duna dela oroitarazteko balio izan du Euskaraldiak. Hizkuntza-ohituretan eragitea nork bere burua ispiluaren aurrean miatzea da: ipurmasiletako ileak amorruez erauztea, aldakako orezta zehatz aztertzea, eta ezkutatutakoak erakusten dugunak baino fidelago agertzen gaituela onartzea. Aski izan da euskarari jaka horia

janztea euskaldunok ez garelako euskaraz bizi ikusarazteko, hizkuntza erdiguneratzea osatutako iraultzaile ahoberoaren (ahobiziaren belarriek prest behar dute, ahoberoak ez du entzuten) mingaina etengabe korapilatzea baita, erosokeria zaharrak eraitsiz erosotasun berriak eraikitzen hastea. Eta, hala ere, nola azaldu euskararen jirako ilusio-sukarraldiak pizteko herri honen aldian al-

diko gaitasuna? Nondik dator, pertsonalki egunero euskaraz bizitzeko aukera izanik erdarara jo arren, mugatutako denbora-epetan euskararen sua kolektiboki hauspotzeko bulkada definigaitza? Funtzionatuko luke Euskaraldiak urteko 365 egunetan? «Erdaldunen %100 euskalduna balitz, agian», dio erradikalak, «gaur atzo baino %0,0001 gehiago gara», pragmatikoak; eta, bizitzea oso arriskutsua denez, euskalgintza modernoaren argazkiak kokatzen du bakoitza bere lekuan.

Protagonistak birkokatuz bestelako argazkia ateratzea da aita zein ama hiltzea, jaka horidunak ertzetik gunera hurbiltzea.

Audientzia-datu
irakurketa interesatuen
oihartzunean
datozen etorkizuneko
berrantolaketa
proposamen guztiek
galdera bakarra dute
onartzen: zein da
ETBren ardatza?

2018an, 25 urte bete ditu *Otto Pette*-k, beste hainbeste Negu Gorriaken *Borreroak baditu milaka aurpegi* diskoak, hamar-kada igaro da Mikel Laboa lili bat denetik, eta «Geroa Bai baina etorkizunik ez!» oihukatzen zen Iruñeko Maravillas gaztetxean. Izan ere, gutxitan gurutzatzen dira, mendea eta segundoa nola, erreleboa eman eta jaso nahi dituztenen borrodateak, nekez egoten da eutanasiarekin amesten duena hiltzailearen ituan; sinpleegia bezain sinplista litzateke, inolako gatazkarik gabe, batek espazioa uztea besteak okupatzeko. Hala, iaz ez zen Lapurtarren Biltzarrik ospatu Uztaritzen, azken punpan heldu zitzaion Baztandarrenari Elizondon, EHZ festibalaren desagertzearen zoria urtebeteko gogoeta-aren esku geratu zen, eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaritza-ereduaren mudantzaren bidez lotu zitzaion etorkizunari. Nola ekin ezinbesteko lanari norbera ezinbesteko bihurtu gabe? Zelan hil aita edo ama, norbera aitaren edo amaren besaulkian laketzeko tentazioan jausi gabe? Zertarako hartu boterea, boterea borrokatzeko ez bada? Jaka horia janztea bakoitzak bere burua ikusteko modua da, batez ere.

Nork bere zilborrari (zehatz aztertutako aldakako oreztei eta ipurmasailetatik amorruez erauzitako ileei) erreparatu besterik ez dago publikoaren eta pribatuaren arteko muga karraskatutako egurraren gisan lausotu dela konturatzeko. Iaz, Eusko Jaurlaritzak eta *Berria*-k izenpetu zuten finantzaketa-itun bereziak zein EHUK UEUrekin itxitako akordioak errekarara bota zuten eraikuntza nazionalaren urratsean herren zetorren paradigma zaharkitua. Haatik, bizitza ziurtatzeak bizitzea arrisku-tsu bilakatzen du, aski baita pragmatikoa jaka horiz beztitzea erradikalak bere jaka erantzi nahi izateko, eta, halaber, pragmatikoak ez dio muturrekoari eskurik luzatzen denak berdin jantzita joateko ez bada. Horrenbestez, ideologikoki antipodetan egon arren, nola ez du udalak gaztetxea babestuko berak eskaintzen ez duen zerbitzu publikoa herritarrei bermatzeko bidea bada? Urteetan herritarrak nahiz herri-mugimenduak erakundeen aurretik ibili izana kapitalizatu beharreko ausardia da, ez itomen ekonomikora zigortzeko ahalkea.

Alabaina, ausardiak ez dauka inkesta soziologikorik, audentzia-datuek ez dute lotsa neurtzen, eta bere burua arriskuan sentitzen duenak darama bi ilargiren arteko gauaren ertzean ziplo datzan zurrungariak mehatxutzat duen jaka horia. Jaka pijama bihur litekeen gisan bilaka liteke lotarako arropa jaka. Kultura eguneroko bizitza delako da bizitzearraskutsua; bizitzeak hil egiten du, kultura berriz sortzea da.

II

Kultura eguneroko bizitza delako dira txanponaren alde biak boterea eta biolentzia.

Demokrazia botereak erabakitzen uzten duenaren artean hautatzea da, azken epaia entzutera buzo urdinez ala laranja agertzeko eskubidea. Horregatik ezin dira kataluniarrak demokratik izan; aginteak zedarritzen du hitzen esanahia, hegemoniak deliberatzen nori begiratzen dion goitik behera, nori parez pare. Aukera-berdintasunaren aldeko pose progresista posizio-ezberdintasunari eusteko sagu-tranpa baino ez da, gibela okatzeraino dosi ñimiñoetan irensten den beruna. Ez dago sistemari aurka egiterik bere indarkeriarekin aurrez aurre topatu gabe, astoari azenarioa ala makila aukeratu behar duela ulertaraztea baita bakea; erabakiguneak ez dituzte egitasmo politikoez arrakalatu, pragmatismoaren langaren kokapenak baizik. Zer egin lehendabiziko jipoi jasotakoan, azenarioari eskua luzatu ala makilari ukabilez erantzun? Mendekoaren lehen harramazka terroristen sailerako kondena denean, ba al da beste masaila jartzea ez den ukabilkada posiblerik?

2018an, kataluniarrak ez, kanakak dira demokratik, erreferendumaren zidorreko banana-azal lokaztuak irentsi eta demokratikoki Frantzia ahaltsua izaten jarraitzea ebatzi dutelako. Zapalduak ez du sekula nahi duena, nahi duenean, nahi duenaren arabera erabakitzen, derrigortuta dago partidaren eguna, koordenatuak zein joko-arauak zapaltzaileekin adostera; posizio-berdintasunik gabe, ordea, ez dago

aukera-berdintasunik, eta, hala ere, aukera-ezberdintasunean galtzeko (eta sistema legitimatzeko) prest egotea da posizio berdintasuna irabazteko bide bakarra. Anartean, nahi eta ezinaren tunelaren oihartzun kakofonikoan, «zapaltzailearekin inora ez!» aldarrikatzen du erradikalak, «zapaltzailerik gabe ere ez!» puntualizatzen pragmatikoak.

Hala, iaz, herritar bati isuna jarri zioten, Bilbon, udaltzainei euskaraz egiteagatik; Donostian, pertsona bat euskaraz ari zelako identifikatu zutela onartu zuen Ertzaintzak; Tuterako udaltzainen lan-poltsarako gehiago baloratu zen alemana euskara baino; hasiera batean inork zuzendu ez zitzan, Brebetaren baitako zientzia-azterketa euskaraz ihardetsi zuten Seaskako ikasleen lanak bahitu zituen errektoreordetzak; eta, haatik, euskaldunak darama inposatzailearen gurutzea bizkarrean, poztu behar du egunerokoan menosten duenak Euskaraldiko txapa jantzi duelako paparrean. Euskal hitzun praktikantea kataluniarra da boterearentzat, aukera-berdintasunaren lepotik posizio-berdintasunaren tontorra begiz jota duen bazter-nahaslea, ez banana-azal demokratikoak zintzurrean trabatuta dituen kanaka. Izan ere, hegemoniak nahi duen konpasera dantzatzea da elkarbizitza, erakusleihoko aniztasuna globalizazioaren sustriak are sakonago errotzeko pestizida, eta arrazoiaren jabe izateak ez du boterea onartzeko gertu ez dagoen ezer bermatzen.

Galdetu, bestela, indarkeria matxista jasanik, salaketa jarzen duten emakumei. «Noizbehinkako tratu txarrengatik» (sic) kondenatzen da emaztea labankadaz erasotzen duen senarra; San Ferminetako gauaren portalean, bost gizeonez kok neska bat indarrez nahi ez duenera behartzea, bortxaketa ez, sexu-abusua dela dio epaileak; bertakoek soilik eman dezakete iritzia Irungo zein Hondarribiko alardeez; eta, horrela, 2003tik 2018ko azarora, Euskal Herrian, 98 emakume erail dituen feminizidioa dela ukatu arte. Alabaina, zer gertatzen da norbera, euskaldun praktikantea izan arren, emakumeak kanaken pare nahi dituelako kataluniarrak bezalaxe tratatzen dituen boterearen parte denean? Zer justifikatzen du «kontraesanak ditut»

aitortzeak, botere horrek eskainitako pribilegio bakarrari uko egin ezean? Nondik dator posizio-berdintasunaren gailurre-ra so dagoena aukera-berdintasunaren lepoan geldiarazteko oldar primitiboa? Boterea naizelako daramat biolentzia zainetan.

Frantziak Hendaia eta Irun arteko Santiago zubira migratzaileak itzultzen ditueneko, halaber, arazoaren zaina gu geu garela islatzen dute autoetako ispiluek: gu, euskaldun praktikanteak, gu, emakume jaiotzeagatik diskriminatuak. Etxepean daude hemerotekan lurperatu-

tako Damaskoko zein Greziako migrazio-uholde amaigabeen errekaak; Melillako harresia Irunen dago, Behobia Tijuana da, eta Bilboko portuan daudenak Calaiskoan sobratutako hesiak dira. Dagoeneko euskalduna ez da susmagarria Estatuko atea etxekoa baino zoliago zaintzen duen poliziarentzat, ez da azken tximinoa hegemoniak boterea finkatzeko ezinbestekoa duen zapalduen eskalan. Euskal herritarrek dirua eta pape-rak ditu, ez da beltza, harrera-sare alternatiboak ehundu eta erakundeei ardurak eskatu arren, kanaka da, ez kataluniarra. Horregatik uzten zaio bidea libre Hendaiako Nazioarteko Zubian: munduan migrari ibili zela atzendu zaiolako, arnas batean etxetik alde egin beharra zer den ahanztar delako, eta, batez ere, erosotasunak irentsita, iragana bueltan etor daitekeela ez duelako gogoratzen. Mugazain armatuak, aldi, ongi baino hobeki daki etorkinen zein klase sozial apalenen erregistroetan apenas dagoela euskararik, ohituta dago boterearen biolentzia zein biolentziaren boterea kudeatzen, gustatu egiten zaio, erdigunean akomodatu denak kontraesan bihirik eragiten ez duen azaleko enpatiarekin baretzen baitu kontzientzia. Hegemoniak ez dauka bere burua ez den

Dagoeneko euskalduna ez da susmagarria Estatuko atea etxekoa baino zoliago zaintzen duen poliziarentzat, ez da azken tximinoa hegemoniak boterea finkatzeko ezinbestekoa duen zapalduen eskalan

beste inor engainatu beharrik, aski du bere DNA irakurtzea uneoro nor den, non dagoen eta egitekoa zein duen jakiteko.

Etengabe erdigunetik ertzera eta ertzetik erdigunera dabilenaren DNA, aitzitik, lehortze-bidean jarri nahi den putzu egindako arropa bezalakoa da, korapilatzeraino bihurritua. Ez, egoeraren kontzientzia hartzea ez da klase ertain-altuko gizon zuri heterosexuala izateagatik han-hemenka barkamen eske ibiltzea, baizik eta eufemismoz hustea eta mendekotasunetik hegemoniari exijitutakoa norbera hegemonia bihurtzean mendekoari eskaintzea. Ez du balio, zoria madarikatuz, zapalduaren lubakian bertan goxo egiteak, beruna irensten jarraitzea da urteetan luzatzen den desenkusaz moztutako autoengainua; ez dago, euskaldun praktikantea izan arren, justizia patriarkala edo mugazain armatuaren ziurtasun iraingarria nork berak ahalbidetzen dituela onartzea besterik. Sagu-tranpan jausteak ez du azeri-zepoa jartzetik salbuesten, kataluniarrak kanak diren gisan dira kanakak kataluniar, inor ez baita bando bakarrekoa, beti onen saldokoa. Horrenbestez, nola desinstalatu gure erraietatik boterearen bortxaren softwarea? Nola txertatu azalpean justizia pribilegioen ukazioan oinarritzen duen txipa? Noiz izan erradikal? Noiz pragmatiko? Zer egin demokrazia azken epaia entzutera buzo urdinez edo laranjaz agertzeko eskubidea baino gehiago izan dadin?

Erreparatu, 2018an, Iruñean, karrikak suminez gainezkatu dituzten mobilizazio jendetsuenei: justiziaren aldekoak ez ezik, kartzelaren aurkakoak izan dira. *Manadako*en auziko sententziaren osteko manifestazioetan inork ez zuen akusatuak espetxean usteltzeko eskatu, egiari bere izenez deitzen dion justizia baizik; Altsasuko gazteen aldeko ekimenetan ez da zigorgabetasunik aldarrikatu, presondegietan sartzen ez den proportzionaltasun printzipioa baino ez. Alabaina, Xabier Rey euskal presoak etxera hilotz itzuli eta gutxira agindu du Zubietako kartzela Grande Marlaska Barne ministroak. Ez da kasualitatea: balizko posizio-berdintasunean bere burua arriskuan sentitzen duenak nahi du boterea, boterea nahi duenak behar du biolentzia.

Banana-azalak eta berun-zatiak ez dira orfidalak irentsi-ta okatzen. Software libreari leku egiteko, Skolae programa instalatu nahian dabil informatikaria.

III

Kultura eguneroko bizitza delako da memoria etorkizuna.

Ezer, inor, ez da orain dena; kontakizunaren gatazkak gatazkaren kontakizuna irentsi zuenetik, denbora ez da poli-grafo bakarra.

Ez, ez zen aski ETA desagertzea: garaitua izan zela onartzea exijitzen zitzaion, bere izatea ukatuta bihar-etziko historia-liburuetako bertsio ofizialaren notario-lanak aurreratzea. Bere zilborra garaitzat duenak ez dio irabazle-galtzaile eskemari uko egiten nagusitasunaren betierekotasuna bermatu arte, ez du bakerik iragana etorkizunaren betaurrekoekin epaituarazten ez dueno. Horregatik dauzkagu Facebookeko agintariak, 'datsegit' keinuak amets, euren profilaren zentralitateaz baizik kezkatzen ez direnak. Zergatik nahiago izan zuten Urkulluk eta Barkosek Bertizeko adierazpena irakurri Arnagako gairontzeko gonbidatuekin argazkian atera baino, «Kanbo ez delako Euskadi» (sic) ala memoria etorkizuna delako? Inor, ezer, ez da gaur egun dena.

Zintzo jokatzera, *Etzidamu* behar zuen Eusko Jaurlaritzak 1960tik 2018ra bitarteko aroaz ikasgeletan gogoeta sustatzea xede duen *Herenegun* programak, asmoa ez baita atzo gertatutakoa kontatzea, bihar gogoratu beharrekoa zehaztea baizik. Alta, lurtean topatutako gomuta-zatiak testigu, buztinezkoa da memoria ikasmateriala legebiltzarreko korridoreetan idazten denetik, post-egia denbora izoztuta memoria urtu eta egia lurruntzea baita, ez mendekoa mendekatzea. Irabazleak ez du nahikoa garaitu izana, erru guztietatik libre eta etikoki zuzenaren bandoan agertu nahi du historiaren aurrera; zertarako dira banderak konplikatua sinplifikatzeko ez bada?

Errelatu intimoaren gerrak trapu bihurtzen ditu banderak; urteetan mekanizatutako argudioak larrialdietako irteerak

zirela ohartzea bizitzeko nork bere egiak (eta, beraz, gezurrak) sinetsi behar dituela onartzea da. Zer egin dut ongi, zer gaizki? Nola kontatuko diet seme-alabei jaiotze hutsak gaztazka armatuaren saldo batera egotzi ninduela? Hainbeste eragina izan al du ETak nire eguneroko bizitzan, nire identitatean? Zelan kontatzen zaio iragana etorkizunari, *spoiler* aurrekoa osteko begiekin analizatu gabe? Norbanakoen korapiloak herrien, kulturen mataza askagaitzak izaki, horra justizia maiztu arte ahoskatzen duten parlamentuentzako galdera. Osterantzean, ezin jakin ETaren desagerpenak euskarazko sormenaren gaitegia, iruditeria zein kanona aldatuko dituen, halaberrez talde berekoak ginenez bat egingo dugun 'bertso ttikietan'. Zerk ardaztuko eta ordenatuko ditu posizioak familia politikoka pentsatzeari utzitakoan? Fakirren ahotsez Twistak kantatzeko plazer minberak? Kartak berriz banatu eta partida berriei ekiteko ahalegin zinezkoak?

Zerotik hasten dena ere ez da hutsetik abiatzen; memoria etorkizuna da, iragana orainean berregin daiteke. Francoren

Memoria etorkizuna da, iragana orainean berregin daiteke. Agintzen duenak ez du orainean soilik manatzen, iraganaren jabe da eta geroa kate motzean lotzeko eskumena du

hondarrak Erorien Haranean beharrean mentalitateetan ez baleude, ez legoke jainkoaren graziaren naturaltasun berberaz paisaian zein izendegian txertatutako frankismoaren gorazarrerik. Ez da alferrik atzo gertatutakoa gaur idazten, bihar irakurtzeko. Horregatik da induskatutako Gerra Zibileko gorpuzki bakoitza narratiba hegemonikoari erauzitako orrialdea, boterera iristen ez den bitartean zapaldua ebi-

dentziak frogatzera kondenatuta baitago. Agintzen duenak ez du orainean soilik manatzen, iraganaren jabe da eta geroa kate motzean lotzeko eskumena du. Inongo politikarik ez du

bere hauteskunde-programan historia nola gereratuko duen argitzen, baina, funtsean, horri eskaintzen dio legegintzaldia.

Zertarako dira, bestela, urteurren-ospakizunak, egia bat are hondorago sustraitu ala beste bat gainetik landatzeko ez bada? Gerra Handiaren bukaeratik ehun urtera, berak irabazi balu legez jokatzeko du Macronek, baina gidoiaren eskakizunei men eginez, Putinen bosteko irmoak itotzen du Errusia komunistari buruzko aipamen oro. Logika horri esker jarraitzen dute frontera igorri zituzten biktima euskaldunak heroiak izaten; horrela ahanzten dira intsumiso zein desertore izatera ausartu ziren milaka euskal herritarrak. 2018an ere kontakizun ofizialek ez dituzte ñabardurak maite, biribildutako istorioari ertzak topatzea boterea kolokan jartzeari da. Nahikoa da orain berrogei urte German Rodriguezen poliziak inpunitate osoz erail zuela salatzen duen pankarta balkoian zintzilikatzea lur zingiratsuan murgildu izana gartzigatzen (eta kastigatzen) duen zitazio judiziala jasotzeko, eta, beldur naiz, 2052an, antzeko abisua igorriko zaiela Iñigo Cabacasen heriotza gogora ekartzen dutenei.

Begi-zapia epaileari baino forentseari janzten tematzen den etorkizunak igorritako notarioa da justizia-eredua. Bere esku dago odol-zipriztinak uhin erradioaktibo izatera ez iristea eta historiak sistemaren sen onaz ukan ditzakeen zalantzak uxatzea. Horregatik dira Iñaki Urdangarin, Rodrigo Rato edo pederastiaz akusaturiko edozein elizgizon «ardi galduak»: espeziearen iraupena bermatzeko ez bada, otsoak ez du otsokirik jaten. Bere izatea arriskuan sumatzen duenean, ordea, edonori egiten dio eraso piztiak, Legasako alkateari enkarguzko bertsoak jarri zizkion Txirritari nola Iruñeko Erorien Monumentuko kriptako irudiak grabatzen eta hedatzen dituzten artistei. Gupidarik ez presako ura harrotu nahi dutenekin, ezker eskua urak baretzeko presatzat erabiliak izan direnekin; norbanakoak hiltzen dira eta sistemak bizi behar du, ondorioz, erruak ezin du sistemikoa izan.

Aitzitik, zer gertatzen da, Altsasuko auzian, kasu, guraso talde bat etorkizunak bidalitako notarioa baino kontakizun-egile

sinesgarriagoa denean? Zer da jazotzen hegemonia sutarako egur bila joan eta txingarren ketan erretzen denean? Bote-rearen estoldetatik jalgitako gudarostea arduratzen da ausardia zapaltzeaz, zapaldua umiltzeaz, eta umildua umiliatzeaz; azaleko etorkizunari egindako harramazka bakoitza larrutik ordaintzen da, joko-arauak aldatzeko indarra duenak ez baitu sekula dena galtzen. Memoria etorkizuna delako absolbituko ditu historiak Altsasuko gazteak, memoria etorkizuna baizik ez delako daude ziegan preso, eta, bitartean, errotutako errelatua herrak ez erretzeko borrokak dirau, gau eta egun, egun eta gau.

Hala, zenbateko pisua du espetxeak herri honen narratiba kolektiboan? Nola bihurtzen da Iruñeko presondegia zaharreko orubea Intsumisoen Plaza? Nola atera kontakizunaren kartzelaren eta kartzelaren kontakizunaren arteko ez-denboratik, pentsiodunen, zaharretxeetako langileen zein laborantza herrikoia alde ari direnen borrokak betiko jasota gera daitezten? Denbora ez da poligrafo bakarra, baina gaur idazten ez dena nekez irakurriko da bihar. Horrenbestez, memoria etorkizuna izan dadin, hegemonikoa ez denak kontatutakoa egin eta egindakoa kontatu behar du, behin eta berriz azaldu (bi adieretan) beste inork buztina bere gustura moldatu ez dezan, libertatea edo eskubideak bezalaxe, memoria beti baita behin-behinekoa.

Dena likidoa den aroan behin-behinekotasunari heltzeak aukeratik beste du mehatxutik, harrikatatik bezainbat lepoan eraman beharreko harrizaretik. 2018an, mendea bete du I. Mundu Gerrak, Francok fundazioa eta Erorien Haranean hilobia dauzka, desagertu da ETA, German Rodriguezek justizia eske jarraitzen du, Altsasuko gazteek ziega-zuloan, Cabacastarrenean Iñigo falta da... Eta, memoriak ebazpen administratibotik zientzia fikziorainoko literatur-genero guztiak onartzen dituen heinean, denborak ez du bakoitza bere lekuan jartzen.

Alta, etorkizuna da memoria; ezer aldatzen ez denean ere zerbait ari da mudatzen. «Geroni baino ezin gara izan gure ikurrak», kantatzen du Garik.

IV

Kultura eguneroko bizitza delako gara futbola (gizonezkoe-na, baiki).

Independentista kataluniarrei Bartzelona Espainiako futbol ligatik at uztearekin egin zieten mehatxu; isiltasuna porrotaren sinonimotzat duenaren argudioa zirudien, ume gosetuaren kasketa. Inor gutxiestea, ordea, nork bere burua itu-itudan jartzea da.

Lujanbiok eta Messik elkarri bostekoa luzatzean pitzatu zen euskal kulturaren ikusezintasunaren kristalezko sabaia; geurez ez izatearen itzala da izan nahi ez dugunaren argia probestu beharra. Ez gara mundu horretakoak, baina mundu horretakoak ere bagara. Ispiluaren aurrean begiak itxita jartzea ertzaren ertzean bertan goxo egiteko tentazioa baino ez da, lubaki oker eta partikularrak guda-zelai karratu bezain globalaren zati direla ahanzte. Ez gara uharte bakartietan bizi, begirada alternatiboek begi ofizialak dituzte. Dena neurritz kanporatzen duen futbolak ematen du gure neurria.

Euskara batuak berrogeita hamar urte bete ditu aurten, Arantzazuko Biltzar historikoaren erreplika gaurkotua antolatu du Euskaltzaindiak, hizkuntzaren triapak inoiz baino eskuragarriago (eta euskaragarriago) daude ordutik... Baina noiz jo du goia euskara batuaren eta euskalkien arteko eztabaidak? Iñigo Martinezek Realetik Athleticera egin eta agurreko idazkia ondarrueraz plazaratu zuenean! Jokoz kanpokoak, sarrera itsusiak, gol ederrak... denetik izan zuen partidak. Denetik, baina ez denentzat. *El Correo*-k eta *El Diario Vasco*-k sustaturiko probintzianismo pozoitsuak Ermua parean *check-point*-a exijitzen zuen bitartean, hizkuntzaren sorginkerian zentratu izanak ez gaitu aparteko bihurtzen; euskalki ederrean mintzo arren batua ez dakitelako lotsatzen direnen artean hazi, eta batua zorrotz dantzatuagatik euskalkirik ez dutelako euren burua menosten dutenekin bizi naiz, baina, hala ere, futbola izatea da nire konplexua.

Umorearen pare, norbere baitako filtro guztiak saltaraziz gurinean hondoratzen den labana da futbola: ia dena barkatzen zaio, ia dena barkatzen diogu.

Umorearen pare, norbere baitako filtro guztiak saltaraziz gurinean hondoratzen den labana da futbola: ia dena barkatzen zaio, ia dena barkatzen diogu.

boterekeria matxistaren aurka, baina ohekide andrazkoaren baimenik gabe sexu-harremanak grabatzeagatik zein hedatzeagatik auzipetuta dagoen Sergi Enrichek gola sartzen duen bakoitzean urtzen dira plazerez Ipuruako harmailak. Futbola garelako behar ditugu heroiak, futbola garelako ez dugu memoriarik, futbola

garelako bihurtu da kontraesanak dauzkagula onartzea beroriek ez kudeatzeko pose hutsa, futbola garelako ikusten dugu ikusi nahi duguna... Futbola, alegia.

Eta futbolak istorio ederrak kontatzen dizkigu beti: gaizki hasi baina ongi amaitzen direnak, zoriak merituak egiten dituen eskutik eramaten duela frogatzen dutenak, sakrifizioa bezalako balioak betiketzen dituztenak, eta, batez ere, sistema osoari zilegitasuna bermatzen diotenak. Iñaki Williams Athleticeko aurrelariaren sendiak Euskal Herrira iristeko pasatako senperrak kontatzen dizkigutenean, ez zaizkigu Mediterraneo hilotz errariei edo gendarmeei Behobiara itzultitako migratzaileei buruz ari, gaurko gaua Irungo harrera-etxean eman eta bihar San Mames Barriko izarra izan daitekeen haurraz baizik. Horrela, adibideak eskuan, ez dago arazorik, ez gara deusen errudun: merezi duenak eta saiatzen denak lortzen du zerua, gainontzekoek hala nahi dutelako jarraitzen dute infernuan.

Zerutik infernurako aldea dago hitzez gurtzen ditugun ereduaren eta eroso gauzkan errealitatearen artean. Pepe Mujicaren izpirituaren liluran gogatzeko suediarrek bezala bizi

nahi dugula ez aitortzeko iruzurra da, Ikean erostea, Volvoak gidatzea edo Ibrahimovicen golak ospatzea aski iraultzailea ez bailitzan. Aitzitik, autoengainuan limurtzen garenero, euskalduntasunari erantsi dizkiogun izenondo progresistak zimurtzen ditugu. Ez gaitezen engaina, ez gara hain feminis-tak, hain ekologistak, hain ezkertiarak, hain inklusiboak... eta, segur aski, hain euskaldunak ere ez. Edo ez hori baka-rrik, bederen. Futbola ere bagara; konbentzioa xake-taularen eskuinaldean preso egoteak salbatzen du gure alternatibota-suna (hots, Bolsonarok eta Voxek).

Inor ez dago gizarte-konbentzioetatik salbu, ispiluan isla-tzen dugun irudiaren morroi gara, futbolaren gatibu. Realak bere ereserkian «aurrera, mutilak» «aurrera, Real» pareki-dearekin ordezkatu izana zelai-erditik sartutako gola irudi-tu zaigu, bi besoak zerura jasota inarrosi ditugu bufandak. Horixe baita konbentzioa, erraiei kasurik egin gabe ispiluari so dauden begiak lasaitzeko azaleko *lifting*-a, eta, 2018an, genero-berdintasunaren konbentzioa himnoa aldatzea zen, ez emakumezkoen zein gizonezkoen taldeen soldatak ala ikusgarritasun-maila berdintzea.

Alabaina, konbentzioak mugitzean datza eguneroko bo-rroka. Azken urteotan, jendarte-arauak mudatu direlako dira onartezinak geroz eta gehiengo zabalagoarentzat Irungo nahiz Hondarribiko alarde tradizionalak; alta, norma sozialei bultza egiten jarraitu ezean, agintariak ez dira sekula auzian esku hartzera behartuak sentituko. Urteetako konbentzioak mugitzeko gaitasunak erabakiguneak hormaren aurka es-tutu dituelako kantatzen dute realzaleek «aurrera, Real», ez txuri-urdinen zuzendaritza goizetik gauera feminismora konbertitu delako. Bitartean, Irunen, Hondarribian, Bilboko Ibaiganen edo neskei mutil-dantzetan parte hartzen uzten ez zaien herrietan, tradizioaren bandera da astintzen, ezer aldatu ez dadin, mugitzen ez diren konbentzioak geroz eta atzerago gera daitezen.

Hori hala, zer dio «Euskal Herria euskalduna (feminis-ta, ekologista, aurrerakoia...) izango da ala ez da izango»

aldarrikatzen duenak? Milimetroka mugitzen diren konbentzioak metroka pusatu nahian dabil ala Euskal Herririk ez dela izango onartzen? Nola uztartzen dira erradikaltasuna eta pragmatismoa, lehendabiziko desadostasunean bileramahaitik altxatzeko keinua egiten den kulturen? Noiz da asko eta noiz aski, gutako bakoitza konbentzioa gu geure garelako sinetsita bizi garenean? Gaizki jokaturako irabaztea ala joko ederra eginez galtzea da helburua? Besteren atean golik sartu ezin dugunean, zergatik tematzen gara gure atezaina bonbardatzen? Futbola garelako; eta futbola garelako onartzeak soilik salbatuko gaitu futbola baizik ez izatetik.

Gerra Handiaren bukaeraren ehungarren urteurrena aukeratu paregabea zen Ipar Euskal Herria frantsestu duten «*Morts pour la patrie*» monumentuak gezurrez garbitzeko, harrizko zizelkaturiko izen-abizenak heroiak ez, biktimak zirela argitzeko; haatik, gerrek gorpuzten zuten patriotismoa kirolak hauspotzen duen garaioan, Frantziak irabazi zuen 2018ko futboleko Munduko Kopa. Griezmannen golek bigarren fusilatutako I. Mundu Gerrako desertore euskaldunak, eta Didier Deschamps entrenatzailearen erro baionesak oroitazteak ahanzturara kondenatu dituzte orduko intsumisoak, Hego Euskal Herrian, Espainiaren porrotaz harro, «Biba Rusia!»-ka zebiltzan bitartean.

Horrenbestez, nola esplikatu Messiren bostekoa amets duen Urruñako gaztetxoari hobe duela Lujanbioren arrastoari segi Griezmannen markekin itsutu baino? Leihotik plazara begiratzea aski da Real Madrilen edo Manchester Cityren elastikoak Osasunarenak baino ugariagoak direla jabetzeko. Horixe da gurea ez den baina baden munduaren eskala, horixe ukatzen dugunero sustraiak erauzten dizkigun kulturaren ezpala; eta, hala ere, egunero autodeterminatzeko borrokatu ahal izatea altxor handia da bizitzan.

Kultura eguneroko bizitza delako gara futbola (gizonezkoena, bai). Baina ez gara futbola bakarrik, horrek etengabe iturritu jartzen bagaitu ere. 🍷

Nork laguntzen zaituen ibiltzen

«Zein politika garatuko den, horren arabera komunitatea dugu trinkotzen. Badu kulturak funtzio bat jendea laguntzeko zutik ibiltzen. Eta hori, elkarrekin». Esplikazio horiek Mattin Irigoien idazle eta antzerkilariak eman zizkidan *Berria*-n uztailean. Euskal Elkargoak oraindik martxan jartzekoa zuen kultur politikari begira. Izan ere, horra 2018ak ekarriko duen berritasun nagusietako bat. Euskal Elkargoak, hau da, Hendaia Santa Grazira, eremu horretan zabaltzen den egitura batek, lehen aldiz, kultur politika bat erabakitzen ahalko duela. Solaskide politiko gisa eragiteko aukera ukan lezakeela.

Urrundik eta lauso ikusten zuen orduan egiturak zer eman zezakeen Irigoienek. Baina argi zuen jadanik, beste behin, Antton Lukuren *Euskal kultura?* (Pamiela, 2008) liburuan proposatu analisia nehoiz baino aktualago egiten ari dela erakutsiz. 10 urte berantago. Oraino argiago ere, menturaz.

Azken bozketa bat eskas du kultur politikak. Lerro hauek idaztean bozkatua ez dena oraino. Baina jadanik erabaki norabide nagusiak finkatuak ditu Elkargo Kontseiluan azaroaren 3an. Ez dela gauza handirik aldatuko errateko balio izan dezake erabakiak, ororen buru. Testuan definizio orokor batzuk aurkitu daitezke, zerbait eta aldi berean bere alderantzizkoa ekar dezaketenak. Euskal kultura lerro batean aipatzen dute, erranez modu «transbertsalean» hartuko dituela Elkargoak euskal kulturari zuzendu ekintza bereziak. Hori bai, euskal kultura bezala, esaldi berean, hots, transbertsali-tate bera aipatzen du gaskoi kulturarentzat.

Interesgarria da ere ikustea kulturaren eremu artistikoak definitzeko Frantziako Kultura Ministerioaren definitzeko

modua bereganatzen duela Elkargoak. Eta azkenean berresten dute susmatzen zena. Koadroa, orain arte bezala, Frantziako Kultura Ministerioak duela finkatuko. Irigoienek uztailen erranak baieztatuak, hortaz:

Ari gara aplikatzen frantses kulturaren garapenerako metodo edo errezeta batzuk, eta, alabaina, ez dira gogobetegarri euskal kulturaren behar ordurako. Ez dira horretarako sortuak. Kultura hegemoniko baten aldeko politika moldeak ez dira izaten ahal kultura zapaldu edo subalterno batentzat.

Eta txarrena da hori bera erratea ezinezkoa dirudiela. Kritika horiek ezin entzunak bezala dira, edo entzuten direlarik baztertuak. Benito Lertxundi musikariak *Berria*-n urrian errana oihartzun:

Aspaldi konturatu nintzen herri hau herri menderatua dela esatea ia bekatu bihurtu dela. Eta hori bekatu bilakatu bada... edo herri hau ez da herri menderatu bat, eta hori nire uste oker bat da, edo jendea beldurtu eta otzandu da. Onartuko bagenu hau herri menderatu bat dela, horrek ez luke gatazka konponduko, baina jakin-go genuke menperatzailearen diskurtsoari erantzuten.

Izatekotan, azken aldian entzun den diskurtsoa arrunt bes-telakoa izan da. Eta hemen adibide bat.

Plazer handiak eta plazerik ezak

Peio Etxeberrri-Aintxart Elkar argitaletxeko Baionako edito-reak *Enbata* aldizkariko urriko zenbakian artikulua bat idatzi zuen “Kultura behartuari’ aski’ izenburuarekin. «Hegoaldeko abertzale batekin» ukan solas bat zuen abiapuntu, zeinak leporatzen baitzion euskaraz ez idaztea; eta horri honela erantzun ziola esplikatzen du bere artikuluan: «Plazer handi batekin erantzun nion ez nuela kasik behin ere euskaraz irakurtzen, salbu, bistan dena, nire editore lanaren karietara». Artikuluan, urrunxeago aipatzen du «esentzialismo hertsia batean laster erortzen ahal garela». Inpresio «deseroso» horrekin dago. «Nortasun bakoitzak praktika kultural (bestek

beste) behartuak» lituzkeelakoan, «eta alderantziz». Bertsolaritza ez maitatzeak ez duela gutxitzen bere euskalduntasuna, ez dela beste bat baino euskaldunago Asisko Urmenetaren marrazkiak maitatuz. Horra bere esplikazioak.

Saiatuko naiz hemen ene tripetan dudana formulatzen. Ez dadila hartua izan pertsona batek beste pertsona bati egiten dion kritika bezala. Baina bai ideia batek beste bati erantzun nahiko liokeenaren saiakera bat bezala. Iruditzen zait diskurtso hori dela esentzialista. Aurreiritzietara mugatua, justuki. Iruditzen zait nahasten duela zer den estrukturala, sistemikoa, eta zer den haguna edo anekdotikoa. Eta anekdota hori sistema bihurtzeak karta jokoa faltsutzen du. Sistemikoa den arazoa, hau da, hemen bada zinez behartua den kultura bat, hori, berriz, askatasun kontu bat bezala aurkeztua baita.

Kronika osoan badirudi euskal kultura maitatzea behartze baten ondorioa baizik ezin dela izan. Indar baten emaitza baizik ezin dela izan. Joseba Sarrionandiaren literatura edo Maialen Lujanbioren bertsoak maitatzeak berak pertsona hertsu bihurtuko bagintu bezala, delako pertsona esentzialista bat. Eta, gainera, ohartu behar dugu pribilegiatu batzuk garelako. Ikastolan ikasi izanagatik, euskaraz irakurtzea naturala delakoan, ez delakoan indar bat.

Hementxe pausatzen dut *Berria*-rako Gazteluma literatur beka egin erreportajeen Elise Dilet Ikas euskal pedagogia zerbitzuetako dokumentalistak errana. Euskaldun berri bezala aurkeztu du bere burua hark berak. Eta «paradoxa» badirudi ere, euskaldun berriek gehiago irakurtzen dutela dio: «Haien prozesuan, irakurketa garrantzitsua da. Ohidura hori hartzen dute, euskaldun zaharrek baino gehiago». Gehiago dena, euskaldun berriak ez direnek ez dutela irakurtzen ohar-tua da: «Erraten dute ez dutela plazerik euskaraz irakurtzen dutelarik, eta hori, ene ustez, zinez landu behar dugu».

Justuki, Peio Etxeberry-Aintxartek egiten duen ohar bera, hortaz. Alde horretatik, segur, arazo bat hunkitzen dute biek. Baina, aldi berean, eta hau ez da pertsona kontu bat, baina bai funtzio kontu bat, erantzule ere bada nonbait

Etxeberri-Aintxart. Elkar argitaletxeko editore bezala, eragin, eragin dezake. Eta erantzule bezala galdera. Plazerik hartzen ez duenak nola plazera transmititu. Haur eta nerabeen euskal literaturaz mintegia antolatu zuten urrian Bilketa, Ikas eta Euskal Kultur Erakundeak. Eta hor ere berretsia. Gazteek ez dutela irakurtzen, ez dutela plazerik, hori nabarmendu zuten ere irakasle batzuek. Hots, plazera zein politikoa den hemen ere azpimarratua. Euskal literatura izan daiteke, presesi, prisma interesgarri bat kultur politika aipatzeko. Euskal Elkargoak azaroan bozkatu erabakian, Elkargoak irakurketa publikoaren eskumena hartzen duela agertzen da. Literaturaren katebegi bakarra du, hortaz, bere gain. Besteak jadanik hartuak baitira. Dela sortzaileak laguntzeko, argitalpenak, dela irakaskuntzan, dela animazioak antolatzeko, dela, hain zuzen, irakurketa publikoak antolatzeko, maila bakoitzean interlokutore ezberdina. Pirinio Atlantikoetako departamendua, Akitania eskualdea, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Kultur Erakundeak, Elkargoa bera, baita Frantziako Kultura Ministerioa ere. Laguntza bila hasten denak laster labirinto batean aurki dezake bere burua. Administrazioa nola martxan den ulertzeko gaitasuna ukaitea beharrezkoa da. Eta denbora ukaitea ere. Horiek horrela, mintegian entzun denari berriz itzuliz, argi. Izugarritzko kemenarekin ari direla euskal literaturaren transmisio lanetan ari diren irakasleak. Bakoitza bere txokoan xixuketan aritzera kondenatuak, haize guztien aurka.

Batzuek ez dute iparra galdua

Zerbait ez da aldatu eta ez da aldatzekotan. Egitura batzuk jadanik existitzen dira beren autonomian. Elkargoa aitzin, eta Elkargoa eta gero. Hiritik Ministeriora, diru laguntza propioak dituztenak. Eszena Nazionala dago horien artean. Baiona, Angelu, Bokale eta Donibane Lohizuneko taulagain nagusien programazioaz arduratzen dena. Label bat da Eszena Nazionala, Frantziako Ministerioak ematen duena. 2,9 milioi

euroko aurrekontua zuen 2017an, erdia baino gehixeago diru publikoz osatua. Ezin dira konparatu konparatzen ahal ez diren egiturak, aurrekontuak, testuinguruak. Baina horiek ere osatzen dute lurralde honetako kultur eskaintza, edo kultura sinpleki, horrela aipatzen ahal bada. Eta hor ere bada politika bat. Ezin argiago azaldu zuena Dominique Burukoak, Eszena Nazionaleko buruak, 2017ko urrian *Berria*-n. Euskal sorkuntzen kalitate eskasa aipatu zuen, programazioa aurkezteko prentsaurrekoaren haritik egin nion elkarrizketan izan zen. 2018a izan du azken lan urtea Burukoak. Heldu den urtean beste zuzendari bat ukanen du egiturak. Baina nire irudipena da gisa bereko diskurtso batekin etorriko dela ondokoa ere. Kontu hauek oinarritzko kontuak baitira, ez pertsoneri lotuak.

Zergatik [euskal sorkuntzak] ez dira nazioartean ezagutuak, zure ustez?

Unibertsaltasunera iristeko borondate bat behar baita. Ez naiz segur beti badagoenik. Irekidura bat behar da. Beren artean egoiteko joera bat ikusten dut, eta ez dakit zergatik.

Artistengatik da, beraz?

Egunero 30 bat koprodukzio eskaera eskuratzen ditut. Haien artean, 30 bat hautatu ditut heldu den urteko. Bat bakarra da euskalduntzat har dezakeguna, jakinez ikusgarri euskaldun bat zer den zuzen, horretan ere ez baitira beti irizpide berak. Bat dut, bakarra baita aurkeztu.

Aipatzen duzu unibertsaltasuna, irekidura. Zer erran nahi duzu horrekin?

Kontua ez da hori. Kontua da bakarrik proposamen bat ukan dudala. Izanen dira sorkuntzak, baina segur aski ez ditugu sare berak.

Barka berriz galdetzea, baina garrantzitsua izan daiteke: zeri diozu unibertsal?

Konkista zentzuan.

Konkista?

Munduaren konkista. Ikusgarri bat sortzen badut, nahi dut ahal bezainbat jendek ikus dezaten. Ez du interes handirik nire amaitxirentzat bakarrik sortzea.

[...]

Nire lana kultura guztiei irekia izatea da.

«Kultura guztiak» diozu, baina zuen programazioan frantses kultura nonahikoa da.

Gure antzokia Frantzian da. Bistakoa da. Ni frantsesa naiz. Euskalduna naiz, baina, oroz gainera, frantsesa. Nire nortasun agiri frantsesa da. Eta Kultura Ministerioa ez da Kultura Ministerio euskalduna. Frantsesa da.

«Atea hetsi ondoren, hasten zait bizitza»

2018ak ekarri duen proiektu musikal interesgarrietako bat izan da. Hamar bat musikari elkartzen dituen *Distortsioen munduan* diskoa oinarri duen behin-behineko taldea. Behi Bideko Andere Xuriak taldea du oinarria, Xendarineko ahizpak (Karine eta Aline Etxeberri) eta baita Jurgi Ekiza musikaria ere, besteak beste. *Distortsioen munduan* Ekizaren kantu baten izena da taldean berriz hartu dutena, hain zuzen. Baina niri arreta berezia sortu didana *Gure etxen badira* kantu herrikoiaz egin duten bertsoa izan da. Distortsioen mundukoek kantuarren bukaera beren gisara egokitu dute, ez baitzuten zen bezala kantatu nahi. Kontua da kantuarren aipatzen duela bere senarra ez den gizon batekin oheratzen den emazte baten istorioa. Jakiten denean, etxetik kanporatzen dute. Kantua idatzi duenak kanporatze hori justifikatzen du. Distortsioen mundukoek, berriz, ez zuten ideia hori «zilegitu» nahi, proiektuko Aline Etxeberrik esplikatzen izan duenez. Eta Karine Etxeberrik bertso berri bat idatzi. Hemen emaztea doa etxetik, salatuz etxe horretan dena dela «muga, debekua». Eta horra azken hitza: «Atea hetsi ondoren, hasten zait bizitza».

Arramoldatze horrek oihartzun egin zidan abenduaren lehenean Maialen Alfaro eta Philippe Albor kantuz entzuterakoan, Mikel Laboa zenari egin omenaldian. *Oi Pello Pello* kantuari azken bertso bat gehitu zioten. «Oi! Pello Pello, aspertu naiz eta/ Garaiak aldatu dira!/ Argitu zait eta, orain orain orain,/ Argia dut eta, libre naiz orain!». Hor ere distortsio bat eginez ororen buru. Titular handietan agertu ez arren, zerbait interesgarri ari dela gertatzen erakutsiz. Alegia, deus ez, mugimenduan, naturaltasun osoz, teorietan denbora gehiegi galdu gabe, ekinez. 🍷

Baskoien erlijioaz

Duela hiru urte, baskoien erlijioari buruzko artikulua interesgarri bat irakurri nion Joakin Gorrotxategi hizkuntzalariari, Nafarroako Unibertsitatearen *Cuadernos de Arqueología* argitalpenean. Baskoien eta inguruko herrien sinesmenen arteko konparaketan oinarritzen zen artikulua, eta EHUko irakaslearen ondorioetako bat zen baskoien antzinako erlijioa finkatzen zuten ezaugarriak bereizi egiten zirela inguruko herrien sinesmenekiko. Esaterako, naturaren indarrei edo animalia totemikoei egindako erreferentzia ugariak zirela tarteko. Sinesmen bereziak ez ezik, indartsuak, baskoien auzoko herrien fedearen arrastoak desagertu zirenean ere, erromatarrenen errituekin nahastu eta urtu ondoren, baskoiek eutsi egin zitelako oraindik mendeetan zehar.

Artikulua interesgarria iruditu zitzaidan, erreportaje baterako egokia, eta Iñigo Astizi bidali nion, *Berria*-ko kultur kazetariari. Nik erlijioa, historia, euskara eta antropologia nahastuko zituen artikulua irakurgarria ikusten nuen tokian, berak poesia ikusi zuen, eta poema bat idatzi zuen, Gorrotxategiren artikulua izenburu berarekin: *La religión de los Vascones. Una mirada comparativa. Concomitancias y diferencias con las de sus vecinos.*

Poema horretan, Larrahe, Lacubegi eta Selaitse jainko-jainkosen izenen artean jolasten zen poeta, desagertutako sinesmenen lurrina girotuz: «Baldar ezpaineratzen ditut orain/ animalia arteko jendeek adoratutako/ animalia izeneko dibinitate izuak/ eta ahoskatu ahala igartzen ditut ezkututzen/ baina mugitzen duten orbelagatik baizik/ ezagutzen ez diren piztien lilura utziz».

Joakin Gorrotxategiri irakurri diot aurtan, beste behin, antzinako euskararen inguruko artikulu mamitsua, *Euskararen historia* izeneko liburuan, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuak kaleratu duena Gorrotxategiren beraren eta Ivan Igartuaren eta Joseba Andoni Lakarraren koordinaziopean. Nire ustez oharkabe samarrean pasatu den arren, hizkuntza-ren historiaz eta bilakaeraz gaur egun dakigunaren aurkezpen ederra egiten du argitalpenak.

Jada ezagun samarrak diren eta onartuta dauden hainbat ideien artean, deigarriak egin zaizkit giza genetikaren alorretik hizkuntzen senidetasunaz egindako ikerketez Gorrotxategik idazten duena, inoiz entzun diodalako publikoki aitortzen genetika etorkizunean laguntza handikoa izan daitekeela euskararen jatorriaz zerbait gehiago jakiteko. Artikuluan ikerlariak nabarmentzen du euskaldunen geneen sekuentziari eskaini zaion arreta, maiztasun estatistiko esanguratsua aurkitu baita gaur egungo populazioaren artean, zeinaren azalpena litzatekeen «izotz aroko eusko-kantauriar babeslekuko populazioaren hedapena, izotza urtutakoan». Baina geneen bidez euskararen historia gehiago argitzeko entusiasmoari galga bat jarri nahi izan dio hizkuntzalariak.

Zalantzarik gabe, ikerketa genetikoak ahalmen handiko tresna dira historiaurreko populazioen historia ebolutiboa eta filogenetikoa berreraikitzeke, haien harremanak eta balizko migrazioak ezagutzeko; baina ezer gutxi argi dezakete populazio horien alderdi kultural eta linguistikoei buruz, alderdi horien transmisioa ez baita gauzatzen prozedura beren bitartez.

Horregatik, Gorrotxategirentzat, «bide bakarra» dago historiaurreko populazioen hizkuntzaz gehiago jakiteko: tokiko toponimiarik zaharrenaren analisisa.

Hain zuzen ere toponimia zaharrean oinarrituta, Gorrotxategik azpimarratzen du behin baino gehiagotan polemika iturri izan den ideia: Euskal Herriko mendebala, antzinatean, zelta hizkuntzen esparrua bilakatu zela. Eta toponimia zeltaren presentzia handiaren hipotesi gisa, gaur egun arte egon diren hiru hipotesi nagusiak laburbiltzen ditu: A) Euskal mendebaldea

Goi Erdi Aroan euskaldundu zela, baskoien (nafarren) migrazio edo inbasioengatik; B) Akitaniatik bertatik etorri zela bultzada hori, Aldaietako (eta beste) aztarnategietan topatutako aztarnen azterketatik hainbat arkeologok ondorioztatu dutenez; C) Akitania bera Pirinioetako hegoaldeko herrien bulkadagatik bilakatu zela Wasconia (eta gero Gasconia).

Ematen du Euskal Herriaren hainbat alderdik, hegoaldekoek zein iparraldekoek, mendebaldekoek nahiz ekialdekoek, ordura arte aldameneko kultura edo hizkuntza arrotzekin izan zituzten harreman estuak hautsi edo galdu egin zituztela, elkarrenganako hartuemanak sendotuz. Antzinaroko egoera politikoa eta linguistikoa guztiz aldatu zen, inguruko hizkuntza guztiak, euskara izan ezik, galdu egin zirelako latinaren faboretan.

Baina zer nolako indarrak erakarri zituen zentrorantz ordura arte aske samar aritutako herriak eta, ondorioz «elkarrenganako hartuemanak» sendotu? Zer botere erlijioso, politiko edo ekonomiko izan zen horren eragile? Mitxelena 1981ean gaiari kosk egin zioneko ziurtasun eta zalantza berdinak ditugu orain, ia berrogei urte geroago.

Alferrikakoaren bila

Hain zuzen ere ia berrogei urte atzerago eraman nau Werner Herzog zinema egilearen *Conquista de lo inútil* liburuaren irakurketak, bide batez Koldo Almandozen *Oreina* filmaz eta haren filmatzeaz atera duen liburuarekin lotu nauena. Herzogena irakurri nuenean, uda aurretik, aitortu behar dut sufritu egin nuela bere ahalegin titanikoarekin, esaldi bakar batean laburbildu daitekeena: nola egin aurre naturak eta giza kondizioak paratzen dizkizun oztopo guztiei, zertarako eta une horretako zure asmoa, zure ametsa, zure proiektua aurrera eramateko: film baten sekuentzia berezi bat amaitu ahal izatea.

Herzogek Peruko Amazoniaren erdian filmatutako *Fitzcarraldo* lanaren gorabeherak aletu zituen *Conquista de lo inútil* liburuan. Amazonaren erdian egurrezko itsasontzi batekin

hainbat irudi grabatzea da pelikularen talde tekniko osoaren afana, oso baldintza gogorretan, ibai erraldoiaren gorabeheren kapritxoek ez dutelako lasaitasunerako tarterik uzten: orain uholde erauntsia dator eta prestatutako egurrezko egitura guztiak eraman ditu urak; orain lehorte garai txikia dator eta itsasontzia lokatz artean kartoletaraino dago hondoraturik, eta ez dago zer eginik. Azken egunean, azkenean itsasontzia nahi zuten tokitik eraman eta nahi duten errebol-tatik agertzea lortu dutenean, ingeniarritza asmamendu ugari tarteko, idatzi du Herzogek bere egunerokoan:

Ez dut inolako minik ez poztasunik ez eszitaziorik sentitu, ez dut soinurik entzun edo lasaitasunezko hasperenik egin. Daukadan bakarra da zerbait erabat inutila egin izanaren kontzientzia edo, zehatzago esanda, bere erresuma misteriotsuaren baitan sartu izanarena.

Koldo Almandozek antzeko giroa deskribatzen du aurten filmatu duen *Oreina* pelikularen errodateaz atera duen izen bereko liburuttoan. Antzeko etsipena, buruan daukan filma ezin izango duela egin onartzen duenean, edo, are, film inperfektua izango dela ulertu ondoren ohartzen denean, hala eta guztiz ere, bere filma izango dela, berea. Defenditu beharko duela eta bilatzen jarraitu beharko duela.

Amazonas, Behe Danubio eta Galizia

Amaitu ondoren ere, hor eduki dut, ohe ondoko mahaitxoaren dorre gero eta ezegonkorragoan, Herzogen lana, beste hainbat liburuarekin batera. Seinale ona izaten da mahaian jarraitzea. Inoiz berriro hartu eta orri artean bilatuko dudala, beste behin, aipu edo paragrafo hark sortutako zirrara. Eta azken hilabeteetan pilatuz joan diren liburuek aukera eman didate nire irakurketa ohitura kaotiko eta apetatsua gidatzen duten interesei aurtengo errepassoa emateko.

Eta, konturatu naiz, esate baterako, lagunei uzten dizkiegun liburu kuttunen ausentziak sortzen duen ezinegona ez

dela denborarekin sendatzen. Ohe ondoko mahaian Elias Canettiren *Mihia aske* lanaren poltsikoko edizioa topatu baitut, eta ez Muchniken edizio ederra, egongelako apalategitik desagertu baita. Badakit nori utzi nion, eta badakit ez didala itzuliko. Eta badakit behin baino gehiagotan itzuliko naizela lan horren orrietara, orain bezala edizio txiki baten bidez bada ere, egileak orriotan kontatzen duen haurtzaroaren bizipen linguistikoek asko esaten baitute bere lanaz, bere bizitzaz eta bere kontzientzia europar zabalaz. Honela dio Canetik lehen kapituluan, bere haurtzaroaz hizketan hasten denean:

Behe Danubion dago Rustschuk, han etorri nintzen mundura, toki zoragarria haur batentzat, eta Bulgarian dagoela esanez hiriarren irudi lauso samarra eskaintzen dut, jatorri oso ezberdineko pertsonak bizi baitziren han, zazpi edo zortzi hizkuntza entzun zitezkeen egun bakar batean. Maiz landatik etortzen ziren bulgariarrez gain, turkiar ugari bizi zen hirian, euren auzoa zuten, eta auzo horren alboan zegoen gurea, judu espainiarrena. Greziarrak, albaniarrek, armeniarrek eta ijitoak ere bizi ziren hirian. Danubioren beste ertzetik etortzen ziren errumaniarrak; errumaniarra zen nire inudea, baina ez dut haren gomutarik gorde. Errusiar gutxi batzuk ere baziren hirian.

Euskaraldia, euskara batuaren urteurren handienaren ospakizuna eta hizkuntza eta kulturaren arteko horrenbesteko eztabaidak bizi izan ditugun urtean maizago irakurri behar-ko genuke Canetti.

Joan naiz nire mahaitxoan hustuz, beraz, labealdi berriari tokia egiteko asmoz, eta une bat entretenitu naiz Álvaro Cunqueiroren *Fábulas y leyendas de la mar* zoragarriaren orrien artean, non arrainen hizkuntzaz hitz egiten duen, eta ziurtatzen baitu Rhin ibaian, behin, izokin bat itaundu zutela, krimen baten lekukoa izan omen zelako. Izokinak ukatu zuen horrelakorik, eta ilehori herren bat salatu zuen: «Claudius rubius fuit!». Han inguruan zebilen ilehori herrena urkatu zuten horrela.

Liburu pilaren azpitik atera da ere Toni Morrisonen *La noche de los niños* liburu ikaragarria, aurten irentsi dudana

ez gaiak berak, haurtzaroko traumak eta pederastiak alegia, hartara bultzatu nauelako, egilearen kontatzeko modu sotil, zuzen eta basatiagatik baizik. *Basatia* da hitza.

Nekez utziko dudan liburua da ere *Emakumeak, arraza eta klasea*, Angela Davisena, Eskafandraren edizio ederreko lana. Bereziki lehen partea, beltzen familien esklabotza garaian izandako gorabeherak kontatzen dituen, historia-ren ikuspegitik kanonikoa iruditu zait ulertzeko ez bakarrik emakumeen eskubideen aldeko mugimenduaren genealogia, ezpada gizartearen eboluzioan zehar sortzen diren korrante sakonen norabideak esplikatzeko ere bai.

Martín Caparrosen *El hambre* ezin izan dut besterik gabe ohe ondoko mahaitxotik atera eta apalategira eraman. Maisu lana da kazetariak datuak esplikazioaren mesedetan jartzeko erabiltzen duen teknikagatik: badirudi estatistika, ikerketa, zenbaki anabasa guztiaren erdian lehen berrogeita hamar orrialderen ondoren errepikapenak besterik ezin direla iritsi, baina egileak jarraitzen du bikain ekartzen datu bakoitza bere testuingurura; zifra bakoitza ezinbesteko eginez; mundu osoa interpelatzen duen afera kokatuz horrela.

Azken asteetan irakurritakoen artean, bi. Alde batetik, Edurne Portelaren *Mejor la ausencia*. Hori ere, estiloagatik, neskatala denetik emakume bihurtzen den arte bere familiararen eta bere gizartearen ibilbidea kontatzen duen emakumearen ahotsa garaiaren eta adinaren arabera maisuki modelatzeagatik. Bestea, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*, geratzeko liburua dela iruditzen zaidalako. Hemendik hamar-hogei urtera ere gogoratuko den ipuin liburua.

Banoa mahaia jasotzen. Azkenen artean, *Zuloa* bereizi dut. Xabier Gantzarainen saiakera gure gizartearen azken 50 urteetako laburpen bikaina da, artearen begiradapean. Azpimarratzeko modukoak Jose Luis Zumetaren *Gernika* koadroaren gainean idatzitako gogoetak.

Liburu horiek geratuko dira, seguru asko, oraindik urtebetez ohe ondoko mahaitxoan. Gainerakoak bildu eta tokia egin dut datorrenerako. 🍷



Eider Rodriguezen Bihotz handiegia ipuin liburuko
Paisaiak kontakizunean oinarritutako ilustrazioa



ADUR

Biharamuna

Gertakariak bertsolari txapelketaka zenbatzeko ohitura dut batzuetan. Bi urtero Bizkaikoa izaten da eta lau urterik behin Txapelketa Nagusia. Tartean hutsik geratzen den urteak ere txapelketa izena dauka: Txapelketarik bako urtea.

2017a Euskal Herriko Txapelketaren urtea izan da eta kosta zitzaidan biharamun emozionala pasatzen. 2018a iritsi zen eta ni txapelketan egindako kilometroak, kotxeko elkarriketak, gai-jartzaile taldeko berba jasak, bertsozaleen beroa, bertsolarien ekarpena, sentitutako emozioa... digeritzen harrapatu ninduen.

Behin Txapelketa Nagusiko zurrunbiloaz desintoxikatuta, gai-jartzaile taldean borrokan aritzeari utzi nion nire buruarekin borrokan jarraitzeko: gai-jartzailea bere bakardadean. Bertsolariak bertsotan jarraitzen dute eta ez dago lehiarako beharrik Euskal Herriko plaza, taberna, oholtza, elizpe... bertsoz betetzeko. Batzuetan gaiak jarriko dituen norbait behar izaten dute, eta batzuetan ni izaten naiz hori.

Aurtengoak eman dit bertso afari, bertso saio musikatu, jaialdi eta bestelako saioetan aritzeko aukera. Aurrez eta distantziara beti ederrak dira egutegian jarritako zitak, baina data hurbildu ahala nire kaosa handituz joaten da. Sortzeko beharrak estutzen nau sarri eta gai edo ideia bakar batekin ezin konformatuta ibiltzen naiz batzuetan. Prestatu dudana saiorako egitura eta gai-sorta nahikoa edo egokia ote den galdetzen diot nire buruari, eta, horrelakoetan, nire buruak ez dakiela baino ez daki erantzuten.

Gai-jartzailearen bakardade sindromeak uzten didan neurrian prestatzen ditut saioak. Gero egia da saio ona ateratzen

denean sentitzen dudan asebetetze eta pozak sindromean laguntzen didala, hurrengo krisialdira arte.

Bertsolaritza genero ikuspegitik

Martxo bueltan deitu zidan Ane Labaka bertsolariak proposamen bat zeukatela esanez. Azaldu zidan Miren Artetxe eta biak jardunaldi batean bertsolaritza genero ikuspegitik lantzekoak zirela. Entzun zutela gai-jartzaitza ikuspegitik zerbait hausnartuta nuela eta interesgarria izan zitekeela esateko neuzkanak entzutea.

Horrelakoetan, deitzen didanak zer azalduko didan argi daukanean, nik ere argi erantzun beharra sentitzen dut eta asko pentsatu gabe esan nion baietz. Nirekin akordatu izanaren pozak, planteamenduaren interesgarriak eta kale egitearen beldurrak aldean izan nituen egun batzuez.

UEUren udako ikastaroen barruan ekainaren 25 eta 26an izango ziren jardunaldiak Iruñean, Katakraken. Goiz eta arratsalderako plana zegoen jardunaldietan eta bertan lo egiteko aukerari ere baietz, noski. Jardunaldian beste ikas daitekeelako jardunaldi osteko orduetan.

Programa irakurri nuen eta miresten nituen hainbat emakume ere bertan parte hartzekoak zirela ikusi nuen. Baina berandu zen aitzakiatan hasteko eta pentsatzen nuenari forma ematen hasi nintzen. Erabaki nuen nire esatekoak esperientzia batean oinarritzea, eta Txapelketa Nagusiko gaiak hartu nituen aztergai. Alde batetik, gaien atzean dagoen lana eta hausnarketa azaltzen ahalegindu nintzen; eta, bestalde, bertsolariak behin gaiari kantatu dionean nola ohartzen garen, askotan, gaiak guk aurreikusi baino ertz edo muga gehiago zituela.

Ekainaren 26rako 40 minutuko berbaldia prestatu nuen, eta ahaleginduko naiz han esandakoak labur hona ekartzten. Beharra sentitzen nuen gai-jartzailearen lana zein den azaltzeko; alegia, gure lana ez dela soilik ideia bat ondo

irakurtzeko prestatzea. Berez begi-bistakoa dirudien arren, hausnarketa lan handia dago gai bakoitzaren atzean: gaien eta rolen arteko oreka, zeri eman nahi zaion ahotsa, ulerterraza izatea, landu gura den ikuspegia argi izatea...

Genero ikuspegiaz ari garenean, non amaitzen da gai-jartzaillearen lana eta non hasten da bertsolariarena? Galdera horri jarraiki, gai-jartzailleok dugun botereaz eta ideiek duten pisuaz ohartzeak duen garrantziaz aritu nintzen. Sortzen ditugun egoera, aukeraten ditugun rol, marrazten ditugun errealitate, esaten ditugun edo esaten ez ditugun hitzen aukeraketa kontzientea egitearen beharra nabarmendu nahi izan nuen. Askotan gertatu zaidalako taldean edo bakarka gai bati bere sinpletasunean tolesdurarik eta eremu labainik ez ikustea, eta bertsolaria kantuan hasten denean ohartzea gaiak errealitate jakin bat azaleratzen duela eta ez dela neutroa, inoiz.

Nire kasuan, behin kontzientzia ariketa egin eta onartu nuenean nire gaiak nire aurreiritzi, nire beldur, nire amorru eta nire ezintasunak agerian jartzen dituztela, hori aldatzen hasteko unea zela ohartu nintzen. Gai-jartzailleon lanak txapelketan izan dezakeen eragin teknikoaz harago, imajinario sozialean duen eraginaz jabetzea ezinbestekoa da. Behin puntu horretara helduta, zer irudikatu gura dugun erabaki eta horren alde lan egitea dagokigu.

Uste dut ikuspegi feministak gai-jartzaitzari eta, ondorioz, bertsolaritzari ikuspegi sortzaileago eta eraikitzaileagoa eman diola eta emango diola. Nire aldetik, ezin eskertuago nago bertsolaritza genero ikuspegitik lantzeko ahaleginean gai-jartzaitza ere aintzat hartu eta hausnarketarako aukera eman zidatelako. Izan ere, inori uste dudana kontatzeko aukerak eman zidalako pentsatzen dudana argiago ikusteko aukera.

Iruñeko jardunaldien bi egunetako hausnarketa eta proposamenak entzunda, argi gelditu zitzaidan egiteko asko daukagula. Zein baino zein interesgarriagoak izan ziren bertan entzundakoak, eta zer lortu gura genukeen argi azaldu zuten batzuek eta besteek. Orain, indarrak batu, diskurtsoak partekatu eta genero ikuspegia denon ikuspegia izan dadin lanean

jarraitzea dagokigu. Ederra izan zen Iruñean sortutakoa eta kosta zitzaidan egun bi haietan entzun eta bizi izandakoen zirrara soinetik kentzen.

Bertsolaritzaren formak

Saio batean gaiak jartzeko deitzen dizute, eta gaiak pentsatzerako orduan asko dira gaiaren aurretik sortzen diren zalantzak: non da saioa, zer saio mota da, zein da saioaren motiboa, nortzuk arituko dira kantuan... Horiiek guztiak eta gero hasten da sorkuntza eta egokitze lana. Kontua da zalantza zerrenda hori infinitura arte luzatzeko beste forma hartu dituela bertsolaritzaren plazak. Helburu, publiko edo une desberdinak ditu bertso saio edo bertso ikuskizun bakoitzak, eta aurten ere izan dut aukera gauza desberdinak modu desberdinean egiteko.

Aniztasun horren adierazle argia da Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira. Argentina eta Kubako inprobisatzaileak izan ditugu kantuan, Iruñean, Hernanin, Gasteizen, Eran-dion, Donostian eta Baionan. Tomasita Quiala repentista kubatarra eta Araceli Argüello payadore argentinarra aritu ziren hainbat bertsolarirekin oholtza berean inprobisatzen. Zeinen erraz zabal daitekeen batzuetan euskara mundura eta mundua euskarara. Bertsolariekin batera kantuan aritu ziren Tomasita eta Araceli, eta entzuleak erraz eurenganatu zituzten. Badute horrelako saioek magia berezi bat.

Ezagun ditugun jaialdi eta bertso saioek ere eman diote egitura eta zentzua urteari. Gertakari baten bueltan urtero-urtero plaza ezin hobeak izan dira Euskal Herrian barrena. Eta urtero data berean egiten diren saioek sortzen dute halako ardura gehigarri bat: iazkoa bezain saio ona egiteko presioa edo iazkoa hobetu beharra. Hamaika ariketa eta proposamen desberdin eta berritzailetarako aukera ematen dute halako plazek eta bertsolarien gaitasunak, baina ausartu egin behar da horretarako. Bertsolariak sortzeko eta arriskatzeko

askatasuna sentitzen duenean, niri ere aukera bera eskaini didan sentsazioa izan dut, eta elkar ulertze horrek eragiten duen asebetetzea benetan izan da ederra.

Zailena ausartzearen eta kontrola galtzearen artean dagoen horri neurria hartzea izan da. Eta zeinen konplexua den bartzuetan ariketa edo planteamendu berritzaileen izenean saio baten arrakasta edo bertsolari baten jarduna hipotekatzea. Baina eta ondo ateratzen bada? Saio-oste mingots eta gozoak ditut aurtengo ausarkerien motxilan.

Horrez gain, *Ez da kasualitatea* emakumeen bertso saio musikatueta gai-jartzaile aritzeko aukera ere izan dut, eta aurretik ere banekartzan bizipenak berretsi ditut. Plazera izan da, eta eskertzekoa gaiak pentsatu eta aurkezterakoan sentitu dudana askatasuna. Aurtengoak eman ditu Areatza, Berriz, Legazpi, Zigoitia... Saio bakoitza desberdina izan bada ere, saio bakoitzean izan da konplizitatetik, elkar zaintzatik eta iraultzeko gogotik gauza ederrak sortzeko aukera.

Ezagutzen ditugun plazako formatu desberdinek forma ematen diote egin gura den bertso sorkuntzari, baina barnean gauzak beste era batean sortu, esan eta egiteaz ere ari gara. Horrek ematen duen arnasa eta eskaintzen duen erronka ezinbestekoak iruditzen zaizkit bertsolaritzaren eta jendar-tearen eraldakuntzarako.

Bizkaiko Txapelketa

Bertsolaritzaren ekosistema irudikatu duen basoa izan da aurtengo Bizkaiko Txapelketaren irudia, eta osotasun horren parte izan gara asko eta asko. Abenduaren 15a bitarte hainbat larunbat eta igande arratsaldetako plana eskaini du txapelketak zale askorentzat, baina antolaketan, epailetzan, komunikazio lanetan, gaiak sortzen... aritu garenontzako bestelako planik ere izan da.

Bizkaiko Txapelketaren udaberriko fasea abiatu zen apirilaren erdialdean eta udazkeneko faseko gai-jartzaileen

lantaldera batu nintzen ni. Askotan aipatu izan dugu gai-jartzaike bileretan kamera bat jarritz gero bat baino gehiago harrituko litzatekeela gaiei, ideiei eta gaien idazketari ematen dizkiogun bueltekin. Aitortuko dut, korapilatzen abilak gara, baina zelako artea korapiloena...

Azken batean, bertsolarientzako gidoirik egokiena sortzea dagokigu guri; horretarako, ideiak gai bihurtzen, sortutako gaiei forma ematen, ariketa bereko gaiak orekatzen eta marraztu gura ditugun errealitatei leku egiten aritzen gara. Horretan ari garela, astearteroko bilerak nahi baino gehiago luzatzen zaizkigu gehienetan, baina benetan emankorra eta gozagarria da taldean sortzea.

Ohutzerako urteko azken hilabetearen erdian geunden eta finalak hartu gintuen Miribillan. Zortzi bertsolari eta txapel bat. Tentsioa eta gogoia bertsolarien aurpegi eta gorputzetan. Bertsozaleek txalo eskuak eskuen kontra eta zapata zolak lurraren kontra. Finalean lehiatu gabe oholtzan lekua egin zidaten sentsazioa berriz ere, a zer nolako zortea eta nolako ardura. Bertsolariak, zortziko handia, ur tragoa, zortziko txikia, algarak, hasierako puntuak, isiltasuna, hamarreko txikiak, antolakuntzako txalekoak, bakarkakoak, puntua-zioa, buruz burukoa, ilusioa eta txapela.

Ohitura dugun eran, final egunez gai-jartzaike taldeko ki-deok xanpain botila zabaldu eta topa egin genuen. Txapelketa amaitu da, baina bertsolaritzak ez du etenik. Topa, beraz, ekosistemaren alde! 🍷

Nori axola zaio artea?

Urtea amaitzeko desiratzen nago, 2018an zer gertatu zen begiratu ahal izateko Wikipedian. Adinarena izango da, geroz eta sarriago gertatzen zait, uholde zikin batek narama abaila bizian, eta ez naiz akordatzeko noiz hasi zuen euria. Etxeak ikusten ditut ur azpian desagertzen, herri osoak, jendea itozten, haurrak negarrez teilatueta antenari helduta, zuhaitzak zuztarretik erauziak, autoak ahuspez, animalien gorpu uhandituak, eta ni uholdeak narama jitoan, ur gainean naiz bederen. Bizirik nagoela esango nuke, inork galdetuko balit, baina ez dit inork galdetzen.

Arteak ere antzeko: bizirik dagoela esango luke, inork galdetuko balio. Inork galdetu gabe ere bizirik baitago. Non, nola, zein forma hartzen duen, hori beste kontu bat da. Eta forma hori nola iristen zaigun ere bai. Izan ere, ikusle arruntak azken emaitza izaten du begien aurrean, erakunde batek eskainia normalean, izan galeria, izan museo, edo bestelako. Dena pasatzen da instituzio baten galbahetik.

Beraz, instituzio bakoitzak galbahe lan hori nola egiten duen aztertu beharra dago arretaz, eta Wikipediaren zain egon gabe, aurtengo urteak eman dituen albiste batzuk aletzen saiatuko gara ondoren.

Nori axola zaio artea, museo bat daukanean?

110 urte bete ditu. Zaharra da, beste batzuekin alderatuta behintzat, Bilboko Arte Ederren Museoa, modernoa zen, XX. mende hasierako hiriak behar zuena. Gaur ez dakigu

zeinek behar duen zein: hiriak museoa ala museoak hiria. Guggenheim efektua gogorra izan da museoarentzat. Iñaki Estebanek oso ondo definitu zuen: museo berriak luxuaren ideia ekarri zuen hirira, eta behin luxua bertan izanda, zertarako behar du ba hiritarrak artea?

Gaitz horrek jota egon da urte askoan Arte Ederren Museo, eta beharbada horregatik erabaki zuten agintariak, inolako lehiaketa publikorik egin gabe –zertarako ibili disimulatzen?–, garai batean bertako zuzendari izan eta gero urte mordoxka batean Madrileko Prado museoaren gidaritza eramán zuen Miguel Zugaza jartzea berriro ere zuzendari.

Noraezean ibiltzea egozten zitzaion museoari ia oraintxe arte, bertako artistei eta batez ere garaikideei kasurik ez egitea, aintzat ez hartzea parekidetasuna erakusketetan, eta beste hainbat zabarkeria (edo –gizon– zaharkeria). Zuzendari berriak ondo daki hori. Elkarrizketa mamitsua eman zion *Berria*-ri, eta tartean hauexek bota zituen ulertu nahi dituenarentzat:

Guggenheimi dagokionez:

Egia da Guggenheimek turismo kulturala ekarri duela, eta hara doazen bisitarien %10 ere etortzen direla gurera. Baina Arte Ederren Museoak bestelako funtzioa du: sozialagoa eta artearen heziketari lotutakoa. Edonola ere, uste dut iratzarri egin gaituela Guggenheimen etorrerak. Esnatzera behartu gaitu.

Artista garaikideen presentzia urriari dagokionez:

Etorkizuna marrazten ari garen heinean ardua hartzea beharrezkoa da, eta uste dut ireki berri dugun erakusketa eta azaroan irekiko dugun *68aren ostean* izenekoa horren isla izango direla. Euskal testuinguruaren ikuspegitik abiatuta, gaur egungo artearen eztabaidetan egon behar dugu. Uste dut aurrerantzean museoak izan behar duen identitatearen inguruan posizioa hartzeko era bat dela.

Emakumeen presentzia urriari dagokionez:

Museoak ezin du gehiago saihestu gai horrekin duen erantzukizuna. Argi dago. Genero ikuspegiari heltzeko Emak izeneko plana jarri dugu martxan: ez soilik egiten diren erakusketetan emaku-

meeek ikusgarritasun handiagoa izan dezaten; bilduma osatzeari begira ere lan egingo dugu, hutsune garrantzitsuena eremu horretan baitugu. Behar-beharrezkoa zaigu emakumeek sortutako artea bilduman egotea. Andreak artearen historiaren parte dira, eta hori hala agertu behar da. Plana osatu dugu, eta aurrera goaz. Jabetu gara dugun hutsune horretaz, bai.

Kontua ez da ordea hutsuneez jabetzea, edo ez da behintzat nahikoa. Elkarrizketa horretan bertan aipatzen zuen Miguel Zugazak *ABC. Bilboko Museoaren alfabetoa* erakusketa, Kirmen Uribe idazlea izan duena komisario, eta museoaren bilduma beste modu batean erakusteko pentsatua izan zena. Elkarrizketa hartako lehen galde-erantzuna dakart osorik:

Museoaren ibilbide baten hasiera baten aurrean gaude?

Baietz uste dut. Ez espazioaren berreraikuntzagatik bakarrik. Artearen historiaren irakurketa bakarra egiteko joeratik askatu gaitu, nolabait, *ABC. Bilboko Museoaren alfabetoa* erakusketa prestatzeko prozesuak. Uste dut, era batean edo bestean, denok askatu gaituela: orain arteko inertziekin hautsi, eta etorkizunean pentsatzeko gakoak eman dizkigu.

Garazi Ansak oso kritika gogorra egin zion *Berria*-n erakusketari. Oso. Ez daukat hona dena ekartzeko modurik, baina osorik irakurri beharrekoa da. Lagin batzuk uzten ditut muinaz jabetzeko.

Museoko zuzendariak martxan jarri duen *Star System*-aren barruan –Alicia Koplowitz eta bere bilduma ezin baitira beste modu batera definitu, artearen munduko izar gisara ez bada–, modu honetako erakusketa bat komisariatzeko ere ezin atzean gelditu, eta euskal kulturako izarretako baten aldeko apustua egin zuten: Kirmen Uribe. Dударik gabe, izenak behintzat jendea erakarriko zuen arrazoi batengatik edo besteagatik; eta erakarri du, nola ez. Eta ezin ukatuko dut: inaugurazio egun inguruan jazotako argi festa eta burrunba guztiak nire kuriositatea elikatu zuten.

Erakusketa ikustean, ordea, ezin esan iragartzen zen hura gutzia topatu nuenik. Su artifizialak ke artean galdu dira berriz ere. Arte bildumen interpretazioak egitea benetan interesgarria da, halakoek museoaren bildumarekiko ikuspegi berriak eskaintzen dituztelako beti, erlazio berriak azaleratu, ideia berriak mahai gainean jarri. Eta, alde horretatik, Arte Ederren Museoan haize

fresko pixka bat sartu dela badirudien arren, berrinterpretazio nahia nahi hutsean gelditu da, inongo oinarri sendorik gabe.

Seguru asko, Zugazari eta museoari gutxi axola zaio euskaraz argitaratzen den egunkari bateko arte kritikari gazte batek dioena, baina etorkizunean pentsatzeko gako horiek hobeto kokatzen lagunduko lioke, irakurriko balu. Eta irakurriko balu Haizea Barcenillak komisariotzaz idatzi dituen bi zutabeetan esandakoa, beharbada hobeto pentsatuko luke hemendik aurrera erakusketa baten komisariotza zeini eman. Hemen zutabe horietatik ateratako lagin batzuk:

Komisarioak, ordea, artelanen bidez diskurtsoa eraikitzearen ardua du, logika sozial eta estetikoak ulertuz. Eta arte instituzioetan egin ohi du hori, alegia, historia eraiki eta iruditegi komunak sortzeko legitimitatea duten lekuetan. Hortaz, artearen zein lanbidearen ezagutza funtsezkoa da, eta hori da, hain zuzen, Kirmen Uriberen *Bilboko Museoaren alfabetoa* erakusketan falta dena.

Artelanak beti du irakurketa ugari, eta, erakusketak bati lehentasuna eman arren, ez ditu besteak itxi behar. Hemen, horren ibilbide motzekoa da irakurketa, esanahi ugari horiek antzutzen dituela. Lanak irudikapen bihurtzen ditu, ez zentzuz beteriko irudi.

Tristea da lan berri ugari eskaintzen dizkigun mostra, ikuspegi tradizioaletatik bestelako aukerak bilatzen zituena, diskurtso kritikorik emateko gai ez izatea; eta horren ondorioz, museoak dituen artelan bikainak denbora-pasan, anekdotan, dekorazio huts bihurtzen duen diskurtso gainazalezkoa sortzea.

Kritika horiek irakurrita, galdera, susmoa sortzen zaio ordea bati: eta justu horixe baldin bazen lortu nahi zuena?

Dena dela, abenduan jakin dugu Arte Ederren Museoa handitzeko proiektua onartu egin dela, eta ikusi egin beharko da horrek zer ekartzen dion Euskal Herriko arteari eta gizarteari.

Nori axola zaio artea, eta (gutaz) esateko daukana?

Baionako Euskal Museoak Gaur taldeari eskainitako erakusketa izan zuen ikusgai 2018an, izenburu honekin: *Gaur, 1966*.

Euskal arte ihardukitzailea. Eta batek ez daki nola hartu. Betikora begira jartzea izan liteke, eta izan liteke iraganaren irakurketa berri bat egitea gaur egungoa hobeto ulertzeko. Ez dakit, akaso beharrezkoa zen Baionan. Eta akaso bide berri baten hasiera izan liteke, ikusteko dago.

2018ak zalaparta handirik sortu ez duen albiste bat ere ekarri zuen, erakundeei dagokienez urteko inportanteena ene uste harroan: Beatriz Herraiz da Artiumeko zuzendari berria. Daniel Castillejok utzi ostean lehiaketa abiatu zuen Artiumek, eta urrian jakin zen aurkeztutako hautagai guttinetatik berea jo zutela proiekturik sendoena.

Komisarioa, han eta hemen lan asko egina, besteak beste Xabier Arakistainekin batera Montehermoson ibilia, oso pertsona egokia izan daiteke Artium berritzeko, eta euskal arte garaikideari orain arte eman zaiona baino zentralitate handiagoa emateko. Betikoa, aurrekontua izango du kontra, bilduma osatzeko diru nahikorik izango ote duen.

Bildumarena oso da kezkatzeko motiboa. Bai Arte Ederren Museoa, bai Artium, bai eta neurri batean Guggenheim bera ere, gaur egun Euskal Herrian arte bilduma osatzeko ardura duten erakunde bakanetakoak dira, bai behintzat nagusiak, nahiz eta San Telmok eta beste erakunde batzuek ere bilduma izan.

Osatutako bildumaren arabera egin ahalko dituzte etorkizunean gure gaurko iraganaren irakurketak, Wikipedian begiratuta edo begiratu gabe. Eta horretan hankamotz gabiltza. Horixe uste dut dela urgenteena orain, urte luzez bazter utzita eduki ostean.

Bestela, produkzioan, artistei lanerako aukerak eman eta giro egoki bat sortzen, gure gaurko gizarteari buruz hausnartzen, artearen beraren egitekoaz galdezka, etengabe eta isilean, ondo ari dira instituzio batzuk, txikienak: Azala, Bulegoa, consonni, Okela, La Taller, Erredakzioa eta, batez ere, Uharte Zentroa. Lau emakumek osatutako zuzendaritza berria sartu zenetik (Oskia Ugarte, Elisa Arteta, Nerea de Diego, Betisa San Millan), zentroa goitik behera eta behetik

gora aldatu dute, eta oraintxe bertan Euskal Herriko gunerik interesgarrienetakoa da; Iruñerria, oro har.

Horrekin batera, aurtengo pelikulari amaiera gozoa emateko, Durangoko Azokan aurkeztu zuten proiektua dago, bizipozgarri: Tractora artisten kooperatiba, eta hortik sortutako -zko argitaletxea. Ikusteko dago noski zer emango duen, baina *a priori* aurten arte munduan izan den iniziatiba ederrenetakoa da.

Izan beza bizitza on eta luzea.

Edo gutxienez 2019 oparoa. 🍷

A(R)TEA





Ez da kasualitatea

‘*Handia* fenomenoak’ harrapatu gintuen iaz, ezustean, oraindik ere txikiak izatearen mantra errepikatzen geniola geure buruari. Euskal zinemagintzaren marka eta zenbaki guztiak lehertu, eta azken 30 urteetako euskarazko film ikusiena bilakatu zen Jon Garaño eta Aitor Arregiren pelikula, ordura arte datu onenen jabe zen *Aupa Etxebeste!* (Asier Altuna eta Telmo Esnal, 2005) arrakastatsuari aurrea hartuta. Urtetako ibilbidea duen produkzio talde bati heldutako arrakasta eta aitoren berantiarraz hitz egin genezake, ondoren etorri diren kopuru eta kalitateak ere industria oso baten une gozoa islatuko ez balu.

Paul Urkijoren *Errementari* izan zen 2018ko goiztiarrena. Erreferentzia onak jaso genituen Donostiako Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Astean egindako aurrestreinaldira joandako pribilegiatu gutxi horien ahotik, eta filmak publikoaren saria eskuratu izana ere aurrekari gisa ulertu genuen askok. Bada, nazioarteko jaialdi ugari konkistatu ditu Urkijok, eta mundura Netflix erakusleiho erraldoitik begiratzea zer den ezagutu du.

Inoizko aldirik oparoena bizi dugu euskal filmei dago kienez, eta orain urtebete *Handia*-k laztandutako sabai horri eusten diogu oraindik ere. Urrezko aldi horren argazki izan daitezkeen nahi beste adibide topatu ditzakegu gurean, etengabeko jarioan ospatzen diren zinema jaialdi edo erakustaldietan.

Nabarmentzekoa da, esaterako, euskal jatorriko inoizko film kopuru handiena izan duela Donostia Zinemaldiaren 66. edizioak. Hogei izan dira orotara eta, horien artean,

hamalau izan dira, osorik edo hein handi batean, euskaraz ikusi ahal izan ditugunak.

Zinemira da Donostia Zinemaldiak euskal zinemagintzari propio eskaintzen dion saila, eta, horregatik, erraz pentsatzekoa da atal horrek bildu dituela horietako gehienak. Hala izan da, eta jarraian aipatuko ditugu denak. Zinemaldiak ahalbidetzen duen agertokia aukeratu dute hauek guztiek mundura jaurtitzeko: Ana Schulzen eta Cristobal Fernandezek *Mudar la piel* lanak inauguratu zuen saila, eta Fermin Muguruza musikariaren *Black is Beltza* animazio filmak itxi. Sail berean ikusi genituen, halaber, Oier Aranzabal zarauzarraren *Margolaria* opera prima, Mikel Urdangarin musikari eta Alain Urrutia pintorearen arteko elkarrizketa batetik abiatzen den dokumentala; Joseba Sarrionandiaren obrari gorazarre egiteko, hamabi autoreren pieza banaren baturaz osatutako *Gure oroitzapenak*; Txuspo Poyoren *Izaro*; David Rodriguez Losadaren *Lady Off*; David Gonzalezek *La noche que nos lleva*; Antonio Diezek Aitor Frantzesena *Gallo* surflariari eskainitako *Gallo* dokumentala; Juanmi Gutierrez zinegile beteranoaren *Kutxak*; Joaquin Calderonen *Basque Selfie* satira; edo espainiar zinemagintzaren aurpegi ezagunenetariko batzuk bildu dituen *Bajo la piel del lobo*.

Euskal zinemagintzari eskainitako saila izanagatik, jaialdiko beste atal nagusiek ere izan dute euskal produkziarik lehian; Telmo Esnalen *Dantza*-k lortu zuen posizio onena, uneko puntako zinemagileen filmak erakusten dituen Sail Ofizialean, lehiaketatik kanpo; Koldo Almandozek, berriz, Zuzendari Berriak sailean erakutsi zuen *Oreina* pelikula. Perlak sailean lehiatu zen Publikoaren Sari Nagusia jaso zuen Raul de la Fuente eta Damian Nenowen *Another Day of Life* animazio dokumentala; eta Maddi Barber iruindarrak Zabaltegi-Tabakalera sailean aurkeztu zuen *592 metroz goiti* film laburra. Aspaldiko partez, gainera, Euskal Herrian ekoiztutako bi lan izan dira gastronomia eta zinema uztartzen dituen Culinary Zinema sailean: Aitor Bereziartua eta

Ander Iriarteren *Bihar dok 13* eta Miguel Angel Jimenezen *Y en cada lenteja un dios* filmak, hain zuzen.

Aipatu dugun bezala, zinemaldiaren testuinguruaren eta horrek ahalbidetzen duen nazioarterako irismenaren alde egin zuten euren filma Donostian aurkeztu zuten zinegileek, eta hasierako 'testatze' hori pasata, filmak publiko zabalaren aurrean estreinatu bezain laster hasi dira jasotzen egindako lanaren aitortpenak. Berriki jakin dugu, esaterako, Goya sarietarako proposatu dituztela *Mudar la piel* dokumentala eta *592 metroz goiti* film laburra, bakoitza dagokion atalean. Kanaki Films ekoiztetxe donostiarraren *Another Day of Life* filmak, halaber, ibilbide geldiezina darama nazioarteko jaialdi eta sari banaketetan. Kasu horretan, gainera, filma ez ezik, ekoiztetxea bera ere saritu dute Europako Urteko Ekoiztetxe Onenaren sariarekin.

Errementari, Areka, Jainkoak ez dit barkatzen, Muga deitzen da pausoa, Lurralde hotzak... hamaika dira arrakasta eta nazioarteko aintzatespen horren beste adibide nabarmen batzuk. Inoiz baino euskal film gehiago lehiatu dira aurten Donostia Zinemaldian, baina lorpena ez da amaitutako film mordo bat. Euskal zinemaren kalitate maila eta publikoaren babesa ere inoizko handienak dira, eta ez da kasualitatea.

Efemerideak

Filmen ekoizpena hauspotzea bezain garrantzitsua da sortutakoa balioan jarri, katalogatu eta hedatzeko bideak zabaltzea. Egun, ezingo genuke ikus-entzunezko loraldi baten inguruan hitz egin, eragile batzuek itzaleko xinaurri lana eginez berori indartu ez balute. Urte berezia izan da 2018a horietako birentzat: Euskadiko Filmategiak 40 urte bete ditu, eta Kimuak egitasmoak 20.

1978ko maiatzaren 1ean sortu zen Euskadiko Filmategia, Peio Aldazabal, Juan Jose Almuedo, Jose Luis Basoko, Nestor Basterretxea eta Jose Manuel Gorosperen ekimenez,

Euskal Herriko ikus-entzunezkoen arloko ondarea osatzen zuen materiala gordetzeko beharra ikusi zutenean. Euskal artxibo zinematografiko bakarra da, eta egun erreferentziazko erakundea da ikerlari, ekoiztetxe, banatzaile, ikasle eta abarrentzat. Bost milioi metroko euskarri zinematografikoa zein 17.000 metroko euskarri bideografikoa gordetzen ditu, Donostia Zinemaldira aurkeztu diren eta Euskal Telebistak ekoitzi dituen materialekin batera.

Kimuak egitasmoari dagokionez, Filmategiaren ekimenez sortu zuten 1998an, eta, ordutik, euskal film laburrak nazioartean sustatzea eta banatzea izan dute jardun nagusia. Hala, deialdi bat zabaltzen dute urtero, jasotako lan guztiak aztertu eta EAEn ekoiztutako zazpi bat film laburren aukeraketa osatzen dute horiekin. Ondoren, lan horiek azpigitulatu, eta mundu osoko zinema jaialdietara banatzen dituzte (erreferentziarik ez duzuenontzat, 1.000 zinemalditik gora daude munduan).

Bi erakundeak kontziente dira, lantalde txikia izanagatik, egiten duten lanaren garrantziaz; eta horren jakitun izan beharko genuke euskal zinemaren unibertsoa osatzen dugun eragile zein norbanakook ere. Izan ere, distribuzioa eta filmak jaialdiz jaialdi eramateko esfortzua eta kemena garestiak izan dira beti. Lan gogorra, esker txarrekoa eta prezio altukoa izan ohi da filmen banaketa, eta bertako zinemagileen kalitate handiko lan askok ibilbide mugatua izaten dute horregatik.

Sortzaile berriak ezagutzera eman eta haien lanak zabalteko ate handi bat izan da beti Kimuak egitasmoa, baina hori baino gehiago ere bai. Egun erreferente diren zinegile askok aterpe izan dute euren hastapenetan: Luiso Berdejo, Isabel Herguera, Koldo Almandoz, Borja Kobeaga, Koldo Zuazo, Pablo Malo, Marian Fernandez, Juanmi Gutierrez, Asier Altuna, Telmo Esnal, Moriarti taldekoak... Guztiak gordetzen dute lotura bereziren bat banaketa programarekin, aldi berean etxe moduko bat, kalitate neurgailu bat izan baita eragilea horientzat guztientzat.

Etxean ez ezik, gure mugez kanpo ere omendu dituzte bi eragileak. Glasgoven (Eskozia), esaterako, astebeteko zikloa

eskaini zieten maiatzean, eta urte hauetan guztietan nolabait esanguratsu izan diren filmak programatu zituzten. «Ohion, Cleavelanden... jaialdiez gain, badira urtero euskal ekoizpenen lagin bat erakusten duten lurralde ugari, guk deitu baino lehen, gugana jotzen dutenak», adierazi zigun Esther Caberok, Kimuak egitasmoaren koordinatzaileak, *Zinea*-ri eskainitako elkarrizketa batean. Caberok aipatu zituen leku horietan guztietan argi dute euskal lanak direla, euskal ikus-entzunezkoa ikustera doazela, eta ezinbesteko papera jokatzen dutela bi eragileek hori ahalbidetzeko bitartekari modura.

Euskal zinemagintzaren gordailu eta ordezkari onena dira egun Euskadiko Filmatagia eta Kimuak programa, tresna dira. Merkatua, industria ugaltzearekin batera hazi dira horiek ere, nolabaiteko elkargunea sortu dute gure zinegileentzat, eta beren jardunaz indartu dituzte. Bada, izan bedi luze horien ibilbidea, hemendik hogeitaz urtera ere arrakastak pilatzen eta ospatzen jarraitzeko aitzakia emango diguna!

Parekidetasunerantz

Ez da zaila ulertzeko. Argazkian kabitzen ez denari tokia egiteko, inplementatu beharra dago fokuak hartzen duen espazioa. Argazkia bereganatzen dutenek pauso bat atzera egin behar dute, eta tokirik ez duenari bidea zabaldu. Behar baino beranduago, baina, inoiz baino beharrezkoago, emakumeen ikusgarritasuna indartuko duten hainbat neurri hartu dira azken hilabeteetan euskal zinemagintzaren ekosisteman.

Batetik, Noka laguntza-programa aurkeztu zuen urrian Eusko Jaurlaritzak. «Kulturari, eta, horren baitan, zinemagintzari, arrakala eta disfunkzio handi bat daukagu», adierazi zuen Joxean Muñoz Kultura sailburuordeak egitasmoa aurkeztu baino pixka bat lehenago, «emakumeek ez dute izan behar hain luketen presentzia». Esan eta egin: industria oso baten kezka bilakatu dute premisa hori, eta emakumezkoen

presentzia eta pisua indartuko dituen egitasmo multzo baten lehenengoa izango omen da hori.

Emakume zinegileen jarduna bultzatzea du helburu, eta hiru euskal zuzendariren lanak lagunduko ditu urtero zabalduko duten deialdi baten bitartez. Egitasmoa zinegileen tranpolina izango da, laguntza eta aholkularitza jasoko baitute dagokien eremuetan; baina kontu asistentzial bat baino harago, emakumeentzako topalekua ere izango da. Elkarretaratzeak, solasaldiak, mahai-inguruak, mintegiak... egingo dituzte sektorea ahaldundu eta parekidetasunean hezteko.

Iaz Cannesko jaialdiak zabalduko bideari eutsi dio, bestetik, Donostia Zinemaldiak. Jaialdiaren testuingurua aprobetxatuz, parekidetasunaren eta emakumeen inklusioaren aldeko gutuna sinatu zuten Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak, Carmen Calvo Espainiako Gobernuko presidenteordeak, José Guirao Kultura eta Kiroletako ministroak, Eneko Goia Zinemaldiko Administrazio Batzordeko buru eta Donostiako alkateak eta Cristina Andreu CIMAKo presidenteak.

Zinemaldiak jada betetzen zituen zenbait konpromisoren berrespena ekarri zuen gutuna sinatzeak, baina konpromiso berri batzuk hartzea ere bai. Esaterako, generoaren arabera banatutako estatistikak biltzeko lanari ekingo ziotela iragarri zuten, hautagai izan diren zein hautatu eta programatu dituzten filmen ingurukoak. Emakumeek zuzendutako proiektuen presentziari buruzko datu fidagarri eta egiazkoak biltzea litzateke helburua.

Horrez gain, datozen hilabeteetan hautespen- eta programazio-batzordeetako kideen zerrenda zabalduko dutela azaldu zuten, hala nola, Zinemaldiko organo exekutiboetan aldaketak egiten hasteko egutegi bat ezarri dutela. Bi kasuetan parekidetasuna lortzea litzateke xedea, oraindik desoreka baitago.

Promesak promesa, gutuna sinatu eta egun batzuetara heldu zen lehen aldaketa. Urriaren hasieran jakinarazi zuten datorren ediziotik aurrera hamargarren kidea izango duela

hautespen-batzordeak: Ruth Perez de Anucita Zinemaldiko komunikazio arduraduna, hain zuzen. Ilusioz eta, zergatik ez, premia apur batekin itxarongo diogu datorrenari.

Aspaldi gainditu beharreko langa izanagatik, gero eta ohi-tuago gaude lehen gizonezkoek betetzen zituzten izendapen eta saridunen zerrenda horietan emakumezkoen izenak ikusten. Urrutiegi joan gabe, esandakoa nabarmentzen duten hamaika titular zenbatu ditugu azken asteetan: gizonezko adina emakume bildu ditu aurten Kimuak katalogoak; Ira-txe Fresnedak eta Maider Oleagak eta Maider Fernandezek beren azken proiektuak aurkeztu dituzte Gijongo zinemaldian; Maria Elorzak euskal film labur onenaren saria jaso du Bilboko Zinebi jaialdian; Maddi Barber iruindarra film labur onenaren saria jasotzeko hautagai izango da Goya sarrietan... eta gehiago.

Zutik, Zinemakumeak! 🍷



Beste teatro bat posible da

Hasiera deigarria eman nahi izan diot artikulu honi, tipikoa baina tira, kuriositatea sor lezakeena, edo ez. «Beste teatro bat posible da» diot, akaso betikoa esateko, edo ez. Beste teatro bat posible da, eta oker dator nahia, idatzi orduko etorri zait ñabardura gogora: beste teatro bat posible da... aspalditik, ordea. Alegia, egon badago beste teatro bat, dagoeneko posiblea den beste euskal teatro bat, beste euskarazko teatro bat. Bada beste teatro bat, eta agian posible behar lukeena beste zerbait da: egon badagoen teatro posible horren ikusgarritasuna. Egon badagoen teatro posible hori posible izaten jarraitzeko posibilitatea.

Ikusgarritasunaz, oraindik ere, XXI. mendeko 2018ko abenduaren hastapenean

Ikusgarritasuna hitzak arazoak sorten dizkit. *Ikusgarria* omen delako batetik *espektakularra* dena, handi(nahi)a dena, baliabide tekniko asko dituen, diru-laguntza (publiko?) ugari jasotakoa, emanaldi kopuru handia, eta, batzuetan, baita ere, artistikoki oso birtuoso dena. Ezaugarri horiekin edo batzuekin gerta daiteke ikusgarritasuna, alegia, guztien begiradapean egotea, askoren jakingarri eta, ondorioz, arrakastarako bidea mila bider biderkaturik. *Ikusgarri* hitza espektakularren baliokide gisa erabiltzen da; edo obra bera adierazteko. Bestela, *ikusgarria* erabil liteke *ikuskitzuna* bera adierazteko ere. Edonola ere, nire imajinarioan ikusgarria ikusezinaren kontrakoa da, inoiz ikusezin izan den, sentitu den edo egin duten horren lorpena, oholtza gainean

ikusgarri(a) eginez ikusezina izateari uztea. Eta batzuetan hori soilik bada sekulako arrakasta, emaitzaren numeroak gorabehera, ikusgarri(tasun) hori lan mota batzuen ahal-duntzarekin eta espazio publikoaren okupatzearekin lotuta ulertu ahal delako.

Ikusgarritasuna hitza darabilt *beti-euli* euskal teatroaz pentsatzen dudanean. Lerro hauetan pasa den urteko estreinaldien kronika pertsonala egitea egokitu zait. Pertsonala, ezinbestean, ez dudalako euskaraz egin den guztia ikusi, besteak beste, asteburuetan antzokietan lan egiten dugunok garelako sarri antzokietara besteen lanak ikustera joateko zailtasun gehien daukagunak. Hala ere, beste behin ere, ikusgarria iruditu zait aurtengo euskarazko teatroaren emaitza. Soilik estreinaldiei begiratuta, emaitza askotarikoa da oso. EHAZE elkarteak 2016-17ko estreinaldien zerrenda argitaratu zuen iaz, eta hori egite hutsak euskal teatroaren inguruko begirada aldatzen lagundu zidan. Aurten plazaratu du 2017-18 denboraldiari dagokiona, eta, hura ikusita, nago ez ote den batzuetan euskarazko teatro mota batzuen arabera egituratzen sektore osoa, ez ote den izen gutxi batzuen itzalaren arabera neurtzen antzerkigileei kazetariak hainbestetan analizatzeko eskatzen dioten «euskal teatroaren egoera». Nire ustez, zerrendaren ikusgarritasunak mesede egiten dio une honetan euskal teatroari: ikusezina izateari uzteak.

Izan badiren beste teatro motak

Orain idatziko dudana kotoizkoa irudituko zaizue agian, baina hala da: une honetan teatro mota guztien alde nago. Hau da, teatro eredu batzuk gutxi interesatzen zaizkidan arren, nik jarraituko ez nituzkeen bideak islatu arren, uste dut ahalik eta teatro mota ezberdin gehien beharrezkoa dela sektorea indartzeko, eta aniztasun hori ikusgarri egitea. Zeinen aspergarria litzatekeen euskal teatro guztia esperimentala balitz! Baina zeinen pobrea euskal teatroa, dramaturgia berriei lekua egin gabe...

Emaitzetan eta oholtza gaineko teatro moduetan soilik ez, proiektuak, taldeak, konpainiak eta enpresak kudeatzeko moduetan ere aniztasuna dago. Teatroa taldea den heinean, korala den heinean, ekipoa den heinean, proiektu bat kudeatzeko modua ere proiektu horren izaeraren parte bilakatzen ahal da. Konbentzitua nago, sormen prozesu sendo eta parte hartzaile bat edukitzeak oholtza gaineko emaitzan eragin erabatekoa duen bezala, proiektu baten kudeaketa moduak ere eragina duela sormen lanaren izaeran eta publikoarekiko irismenean.

Euskararekin berdin: ez da gauza bera erdarazko testu bat erdaraz muntatu eta ondoren euskarazko bertsioa egitea, edo antzezlan bat euskaraz sortu, euskaraz estreinatu eta soilik euskaraz eskaintzea. Ugariak dira ñabardurak: bada euskaraz sortu eta ondoren erdarazko bertsioa egiten duenik, gutxiengoa tamalez. Badira enpresa eredu klasikoez at modu profesionalean lan egiten duten kultur elkarteak, kolektiboak, kooperatibak.

Funtzionatzeko moduen aniztasuna agerian uztea ezinbestekoa da euskal teatro garaikidea bere osotasunean ulertzeko, ezin da soilik takilla irizpideen arabera neurtu euskal teatroaren inpaktua. Programatua izateko erraztasunetatik haratago, zein antzezlanek izan dute aurten eragina jendar-tean? Nola? Zergatik?

Euskal teatroa oraindik ere ezezagun handi bat da, eta, enpresa irizpideari loturikoez gain, balio kulturalen betaurrekoak jantzi ezean nekez ulertuko da –eta publikoarentzat ikusgarri egingo, eta erakunde publikoetatik lagunduko– euskal teatroa bere osotasunean.

Estreinaldiak barrenak astintzen

Barkatu. Artikulua idazten hasi eta joan egin zait berriz ere burua. Ezin diot eutsi. Hainbeste dago esateko, hainbeste dago eztabaidatzeko. Urte honetako uztaz jardun behar nuen. Euskal teatroa izurrite bat da. Kutsa gaitezen.

2017-18ko denboraldiko estreinaldien zerrenda begiratu eta zirrara une askoren akordua etorri zait gogora, ikusleen eserlekuetan nintzelarik. Ez dizuet gezurrik esango, aurreko lerroak irakurri badituzue argi geratuko zen: edozein zentzutan bide berriak urratzen dituzten lanak maite ditut, eta, batez ere, *batez ere*, emozionatzen nautenak –nahiz eta *bide berriena* dagoeneko gauza zaharra izan, oraindik ere horrela gabilta!–. Izan ere, batzuetan gerta daiteke lan txukunak ikustea eta blablaba, euskal kulturaren testuinguruan garrantzitsuak izatea eta blablaba... Baina hunkitu? Erraiak astindu? Antzokitik mugituta atera?

Aurtengo ADEL jardunaldira egin dit berehala salto go-goak. Antzoki batean aspaldian ikusi gabeko eztrandaren lekuko izan nintzen. Bi aktore oholtza gainean guztia eta gehiago ematen, publikoa sutan. Zer eta pieza labur batekin, zer eta teatro fisikoarekin, zer eta topikoak apurtuz emakumezkoek kode basa baten menpe sortutako lanarekin, zer eta bi kolektiboren arteko elkarlanaren bidetik. Izaera laburragatik antikomertziala (alegia, ez salgarria) izateko boletu guztiak dituen lan bat. Eta hala ere eztanda. *Agur eta dolore*, Iraia Elias eta Miren Gaztañaga sortzaile, Amancay Gaztañagaren kanpo begiradaren laguntzarekin.

Eta pieza horretatik urrundu gabe, aipatutakoek tarteka beste pieza ez hain labur batekin konpartitu izan dute oholtza: Atx Teatroaren *Tomiris*. Gerrillako teatroa, ia edonon egitekoa. Akaso ez zara bat etorriko gidoiak dioen guztiarekin, edo esateko moduarekin, baina nire kasuan bost axola: erraiak astindu dizkit, eta aski dut horrekin. Bada obraren hasieran une bat, zeinean aktoreak, lurrean etzanik, ke artean, aitortza egiten dion publikoari. Urte osoan ikusi dudana eszena hunkigarrienetako bat. *Tomiris*-en Iñaki Ziarrusta da aktore, baina zuzendari gisa aurten estreinatu du beste lan bat ere: *Zazpiak bat*, edo hiru aktore bikain bere onena ematen ikustearen plazera, Miriam K. Martxante, Aiora Sedano eta Estibaliz Villa.

Heriotza bikoitza da aipatu nahi nukeen beste lan bat, neuk pertsonalki dramaturgiari dagokionez Metrokoadroka

kolektiboan landu ohi dugun lanen oso familiakoa sentitu dudana. Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga kimika ikaragarriarekin oholtza gainean, Zazpi T'erdiko zinemagileekin batera. Jon Ander Alonsoren bulkada batetik abiatu den proiektua, talde lanean garatu dena itzalean lan egin duen artista talde zabal batekin.

Lesakako Mairu taldearen *Txoriak eta zauriak* lanak amateur hitza berriz ere zentzugabea dela –eta haren erabilera gehiegitan interesatua eta elitista dela– adierazten didan lan bat da. Egia da, bai, aktoreak aspaldi oholtza gainean ibili gabeak zirela; baina hori horrela izanda, sen ikaragarria da barruan gordeta dutena, soilik testua botatzeko moduari erreparatuta. Obra Gaizka Sarasolak sinatua da, aspaldian Euskal Herrian ikusle gisa jaso dudana testurik bikainenetako bat, laster argitaraturik ikustea nahi zenukeen horietako bat.

Ibilbide luzeko konpainien kasuan, idealista jarrita teatro molde berrien izurritearenak nahi nituzkeen pustulak, nahiz eta konpainia horien historia ikusita segur aski ez duten izurriteen beharrik: Vaiven konpainiak ez ohiko lan talde batekin harritu gintuen *Sherezade eta tipularen azalak* antzezlanean. Companhia do Chapitô ez da nire talderik gogokoena, baina ukaezina da haien maila eta ekarpena, eta Euskal Herrian zale ugari duen teatro fisiko mota baten erakusle dira. Oso nabarmentzekoa oholtza gaineko hirukote bikainak –Miren Tirapu, Xabi San Sebastian, Iraia Elias– egin zuen lana eta euskarazko bertsioa egokitzerakoan egin zuten ekarpena.

Hika teatroak ere molde berri batekin harritu du publikoa aurten: *Txarriboda* antzezlanea, Agurtzane Intxaurragak aktore taldearekin batera sormen prozesuan idatzia. Ikusle asko harrapatu ditu gozamen betean, herriz herriko eragileak igoz elkarlanean oholtza gainera, gainera.

Ibilbide luzekoekin jarraituz, Le Petit Théâtre de Painen lekukoa hartu du Axut! proiektuak. Berri pozgarria, zalantzarik gabe, Fuchs anaiek orain arteko lanetan gehienbat frantseseko lana izan duten heinean. Interes handiz ikusiko dugu zer

dakarren euskara hutsez hasi duten bideak. Lehenengo lana, *Zazpi senideko*, ez da guztiz murgiltzen performancearen kodeetan, baina beste lengoaia bat dakar euskarazko haien ibilbidera: aurtengo hunkipenen zerrendan gordetzekoa bi anaiek haurtzarora gogoan ilunpean duten eszena.

Aipatutakoetatik antzezlan bat kenduta, guztiak dira euskaraz sortuak; eta, horietako pare bat izan ezik, euskaraz taularatu dira soilik, erdarazko bertsiorik gabe. Horiekien batera, askoz gehiago dira iazko estreinaldien zerrendan euskara hutsaren bidea hartu dutenak. Errespetagarria iruditzen zait erdarazko bertsioak egitea, euskarazkoaren kalitateari eusten zaion heinean, baina oso kontuan hartzeko errealtatea iruditzen zait euskara hutsaren bidea aukeratu duten proiektuen kasua, erdararen neurrira egituraturik dagoen Euskal Herriko arte eszenikoen zirkuituaren testuinguruan ikusgarri egin eta aldarrikatu beharrekoa. Nire uste apalean, arte eszenikoen egituratze publikoan aintzat hartu beharko litzatekeen aldagaia da euskara hutsez lan egitea aukeratu duten taldeei babesa.

Gogoetarako apuntea, Wajdi Mouawad-en antzezlan bat gozatu berri dut Gasteizko Antzerki Jaialdian, bertsio originalean eta azpтитulaturik. Zergatik ez egin gauza bera, beharrezkoa den kasuetan, euskarazko lan batzuekin? Diot, adibidez. Kontua ez baita soilik euskarazko bertsioa egitea, euskarazko antzerkia hori baino askoz gehiago da: mundu ikuskera bat, estetika bat, hizkuntzaren musikaltasun bat, hizkuntza orok dakarren gorputzaren eta mugimendu fisikoaren tratamendu propio bat, orain eta hemen bizi den jendartearekin kezka batzuk konpartitzeko nahia. Hori guztia da euskarazko teatroa. Eta horregatik, besteak beste, erakunde publikoen aldetik borondate handia behar da oraindik, zirkuitu eta antzoki publikoetan euskarazko teatroaren ikusgarritasuna eta biziraupena bermatzeko; eta publikoaren aldetik, hautu horrek suposatzen duen ahaleginaren kontzientzia; eta sortzaileen aldetik, bide hori egungo teatro garaikidearen kalitatearen oinarri bilakatzea.

Ikusteke dauzkadanak

Asko dira ikustea lortu ez ditudan baina arrazoi ezberdinegatik deika ari zaizkidan lanak: Adosen *Dublindarrak*, Gilkitzaroren *Morbus operandi*, Itzel Teatroaren *Bizimiñak*, Beheko Larraineren *Manifestu bat*, Tartean Teatroaren *Tabernaria* eta *Ghero...* Ezin horiei buruz ezer esan, ez bada gogo biziak ditudala ikusteko. Nolanahi ere, denboraldi bakarrean ikusitakoak eta ikusteke geratutakoak zenbatuta, euskal teatroaren ikusgarritasunaren alde lanean jarraitzeko gogoia pizten zait. Zuei ez? 🍷



Urteko liburugintza

«Urteko liburugintza» esapidetik hasi nahi dut artikulu hau, urteko errepassoa egiteko eskatu zidatenean burura etorri zitzaidan lehen arazoa horixe izan baitzen: zertaz ari ote garen liburugintzak urtean eman duenaz ari garenean.

Auziari dagokion lehen geltokia, nire gogoetan, urteari dagokio; zer den gure literatur sistemari dagokion urte bat. Durangoko Azoka pasa berri da lerrook idazten ari naizelarik, eta Durangoko Azoka, liburugintzari dagokionez, urte amaiera izaten da. Baina, amaieraz gain, urteko plangintza editorialari forma eman ohi dion data ere bada. Durangoko Azoka bezperak liburu-aurkezpenez josita egon ohi dira. Donostiako Liburutegi Nagusiko San Jeronimo aretoan egi-ten dira argitalpen gehienen prentsaurreko aurkezpenak, eta, bertako langileak esan zuenez, gutxi gorabehera egunean hiru aurkezpen inguru zeuden programatuta azaroko azken astean.

Urte amaiera honetatik atzera begira jarriz gero, egutegi itxuragabe bat dugula eman dezake. Argitaratu berri den liburu samalda ezin izan dugu ganoraz asimilatu oraindik, eta ez naiz Durangotik bueltan gau-mahaietan altxatu diren liburu-dorreez ari, baizik eta prentsaz, kritikaz, irakurle taldeez. Urteari begiratuta bi argitalpen-sasoi nagusi ditu gure literatur sistemak: udaberrikoa eta udazkenekoa. Udaberrikoaren uberaldiak udazkenera arte irauten du, noski; baina udazkenekoarenak hurrengo urteko udaberrira arte irauten du. Hori dela eta, urte amaieran ohikoak diren atzera begirako balorazioetatik kanpo geratzen dira azken unean edota entzute handiagokoen itzalean argitaratutako liburu asko eta asko.

Bigarren auzia, eta hau obsesio are pertsonalagoa da agian, literaturaz aritzeko dugun moduari dagokio. Literatura eta liburugintza airoski parekatzen ditugu prentsan eta diskurtso publikoetan. Baliokidetze horren albo-kalteak zein izan daitezkeen ez daukat oso argi, baina ez dut uste debaldekoa denik. Literaturgintza ez da, jakina, beti liburugintzara murrizten, baina literaturaz, idazketaz eta egiletzaz dugun irudia liburugintzari hertsiki lotua da gaur egun. Era berean, liburuez, liburugintzaz, aritzea ez da nahitaez literaturaz aritzea. Testu honetan, esaterako, gehiago arituko naiz liburugintzaz literaturaz bere horretan baino.

Horraino *urteko liburugintza* kontzeptuari buruzko aitzinso-lasa, hemendik aurrera urteak eman duen liburugintzari buruzko ohar batzuk, batere osoak eta orohartzaileak ez direnak.

Poeta «berriak»

Poesiari dagokionean, joria izan da aurtengo uzta ere. Hainbat poeta *berrik* egin du salto literatur plazara, lehen poema liburu argitaratuz. Hona hemen idazle eta liburu horietako batzuk: Antxiñe Mendizabal Aranburu eta Iraia Okina Salazar, *Emakume burugabea* (Elkar, 2018); Karlos Cid Abasolo, *Keinu konplizeak* (Susa, 2018); Iñaki Irazu, *Errukiaren saria* (Erein, 2018); Josu Goikoetxea, *Zer luzea negu hau* (Elkar, 2018) eta Idurre Eskisabel Larrañaga, *Goseak janak* (Susa, 2018).

Zerrenda horretako idazle guztiek dagoeneko ibilbide bat egin duten arren, baita ibilbide literarioa ere, orain arte ez dute poema libururik argitaratu. Prentsan, bertsolaritzan, itzulpen-gintzan aritu dira, besteak beste, eta beraietako gutxi batzuek beste libururen bat ere argitaratu dute. Deigarria egin zaidana zera da, horien lehen poema liburuak izanik ere, guztiek erakutsi dutela poetika propio bana, garatua oso, hutsetik atereak diruditen arren, egiaz, ezkututik argitara ateratakoak direnak.

Idazle –egile– publiko eta argitaratuaren ohiko ibilbidearen desbideratze pozgarriak dira bost liburuok. *Egile berri-idazle*

gazte ezinbestekoa dirudien binomioa hausten dute, era berean; nahiz eta aipatu idazleei idazle berri esatea zuzena ez izan eta binomio hori, noski, faltsua den funtsean. Egiletasuna zerekin eta nola identifikatzen dugun –liburu bat argitaratzeak egiten ote duen bat idazle, eta *idazletze* hori nola ematen den, nola bizi duten egileek–: hori ere ez da auzi makala, hemen aipatuko ditudan liburuetako askotan lantzen dena, hain zuzen ere.

Adibide gisa, eta liburu hau zentzu askotan apartekoa deenez parentesi bat zabaldu beharrean nago, sortze-jardunari, egiletasunari eta publikotasunari eta alor horietan genero eraikuntzak duen eraginari zuzenean erreparatzen dion liburu bat aipatuko dut: Txakur Gorria kolektiboak urtearen hondarretan atera duen *Lauhazka, kaiera bat jarraitzeko* (Txakur Gorria, 2018), poesia, bertsolaritza, narrazioa, testigantza eta irudigintza uztartzen dituen liburu-albuma.

Beste bi liburu ere ekarri nahiko nituzke aipatuen zerrendara, agian orain arte esandakoaren ertzetan geratzen direnak. Horietako bat, ekaineko basamortu editorialean argia ikusi zuen Juanjo Olasagarreren *Ia hemen* (Pamiela, 2018), poesia-rik argitaratu gabe eman dituen ia bi hamarkaden ostean heldu dena. Bigarrena, Esti Martinez Diaz de Cerioren *Azalberritze bat* (Balea zuria, 2018), egile gazte baten lehen poema liburua. Aipagarria da literatur lehiaketa bana irabazitako lanak direla horiek. Xabier Lete Poesia Sariaren IV. aldia irabazitakoa da *Ia hemen*, DK Poesia Sariaren I. aldia *Azalberritze bat*. Sari horiei esker heldu zaizkigu bi proposamen interesgarriok: bere poetikaren garapenaren jarraipena Olasagarreren kasuan, poetika fresko baten agerpena Martinez Diaz de Ceriorenean.

Nobelagintza: ahots berriak eta bueltan etorriak

Poesiagintzarekin egin bezala, 2018an argitaratu diren noblei dagokienean ere egin daitezke aieruzko azterketa batzuk. Ahots berri ugari topa daitezke 2018ak eman duen

nobelagintzan, eta hemen ere sariketei esker argitaratutako lan pare aipatuko dut: Gazteluma sariaren irabazle Maialen Hegi-Lukuren *Girgileri Anderea* (Elkar, 2018) eta Igartzaren irabazle Ekaitz Goienetxearen *Zaldi mamarroa* (Elkar, 2018). Horiez gain, Ugaitz Agirrek ere bere lehen eleberria argitaratu du, ahulguneak ahulgune asmo handikoa eta ausarta den *Tximeletak bizkarrean* (Susa, 2018). Maite Darcelesek ere lehen nobela du *Bihotza daramagun mundua* (Alberdania, 2018), etorkizun hurbilean kokatutako zientzia fikziozko kontakizun distopikoa, gurean gutxi ikusten direnetakoa.

Lehen nobela horiei guztiei beste bat gehitu nahiko nieke, nabarmentze aldera: Oier Guillanen *Zauri Bolodia* (Txalaparta, 2018), zeina ez baita nobela gisa sailkatzen erraza. Kulturaz, sorkuntzaz eta egiletzaz mintzo da eguneroko poetiko-teatral formako eleberri hori, baina baita kolektibotasunaz ere, eta bizitzaren politikotasunaz, ezinbestean.

Gehiago dira, agian, aurten nobelagintzara *itzuli* direnak. Itzuli dira, baina oso posible da sekula joan ez izana. Izan ere, zenbat denbora behar da nobela bat idazteko? Zenbat urte igaro behar dira azken nobelatik berri baten argitalpena aparteko notizia bilakatzeko?

Hogei urte igaro dira Pako Aristik azken nobela argitaratu zuenetik. *Rosa itzuli da* (Erein, 2018) eleberria da bere bosgarrena, etenaldia eten duena –nahiz eta artean liburu andana argitaratu duen: *Maitatu zure egunak* (Erein, 2018) poema liburua, azkena-. Hamar urteren ostean itzuli da Irati Elorrieta, *Neguko argiak* (Pamiela, 2018) hiri-nobela ederrarekin. *Twist* (Susa, 2011) argitaratu zuenetik zazpi urte igarotakoan itzuli da Harkaitz Cano, Imanol abeslariaren bizitzan oinarritutako *Fakirraren ahotsa* (Susa, 2018) eleberriarekin. Xabier Amuriza bost urteren buruan itzuli da, *Neska bat leku imposiblean* (Elkar, 2018) fantasiaz kontatutako kronika-nobelarekin. Lau urte atzera ikusi zuen argia euskarazko nobelagintzaren maila estilistikoa puskaz altxatu zuen Danele Sarriugarteren *Erraiak* (Elkar, 2014) nobela-leherkariak. Bigarren nobela argitaratu du aurten Sarriugartek, hain

zuzen ere, publikotasunaz eta sortzaile izateaz hausnartzeko parada ematen duen *Azala erre* (Elkar, 2018) eleberri laburra. Ezin aipatu gabe utzi, artikulu honetan erreparatu diedan auzi batzuekin bat datorrelakoan, *Esker ona* edo *nobela baten historia* edo *autore indibidualaren mitoa hausteko ahalegina* izeneko gibel-solasa, non nobelaren sorkuntza-prozesuaren gorabeherak kontatzen dituen idazleak, ezkutuan geratu ohi den zerbait egurastuz. Lehena argitaratu eta hiru urtera argitaratu du Katixa Agirrek bere bigarren eleberria: Zubikarai saria irabazitako *Amek ez dute* (Elkar, 2018), beste gogoeta bat idazteaz, amatasunaren inguruko hausnarketekin oraingoan, Truman Capoteren *Odol hotzean* klasikoaren arrastoari jarraitzen dion Emmanuel Carrèreren *Aurkaria* nobelaren arrastoan sakontzen duen lana.

Edalontzi hondoan

Azken tantak geratzen dira artikulu-edalontzi honen hondoan, baina jabetuko zinen oraindik ere hainbat upel aski bete eta aski deigarri laga dudala zabaltzeke. Ipuingintza, saiakeragintza, orotariko itzulpengintza... ez ditut usaindu ere egin oraino. Nobelagintzako eta poesiagintzako asko ere kanpoan utzi ditut halabeharrez. Ez du horrek esan nahi ezer aipagarririk egin edo jazo ez denik aipatu gabeko eremuetan ere.

Ipuingintzarentzat urte garrantzitsua izan da, esaterako. Batetik, Euskadi Literatura Saria jaso du Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (Susa, 2017) bildumak. Bestetik, Harkaitz Canok azken hamarkadetan argitaratutako ipuingintza jasotzen duen antologia apailatu du Irati Jimenezek: *Mecanografik* (Txalaparta, 2018). Gainera, liburu bana argitaratu dute, besteak beste, Xabier Mendiguren Elizegik –*Zu entzuteko gabe* (Elkar, 2018)–, Iban Zalduak –*Sekula kontatu behar ez nizekizun gauzak* (Elkar, 2018)–, Aritz Gorrotxategik –*Ahazten diren gauzak* (Erein, 2018)– eta, aipagarriki, baita Iñigo

Aranbarrik ere, bere lehen ipuin bilduma: *Munduko tokirik ederrena* (Susa, 2018).

Saiakerei dagokienean, aurten ere bilduma feministetan ikusi dute argia alerik interesgarrienek. Jule Goikoetxeak zuzentzen duen Lisipe bilduman *Ezagutzaren matazak* (Susa, 2018) liburua argitaratu du Emagin elkarteak, sakontasun handiko lana, epistemologiaren ohiko irudia irauli eta testuaren bitartez gogoeta feminista gorpuzten duen liburu kolektiboa. Eskafandra bildumak ere bi klasiko ekarri ditu gurera: Judith Butlerren *Genero nahasmendua* (Elkar-Jakin, 2018), Ana Isabel Moralesen itzulpenean, eta Carol Patemanen *Kontratu sexuala* (Elkar-Jakin, 2018), Maialen Berasategi Catalánen itzulpenean.

Itzulpengintzan, lanean errime diraute, besteak beste, Igelak, Pasazaitek, Meettokek eta azken urteotan baita Katakrakek ere. Aurten argitaratu dituzten liburu batzuk gainetik bada ere aipatu nahiko nituzke: Jack Kerouacen *Errepidean* (Pasazaite, 2018), Iñigo Roque Eguzkitzaren itzulpenean; Slavenka Drakulićen *Han ez banengo bezala* (Pasazaite, 2018), Amaia Apalauzaren itzulpenean; Anthony Burgessen *Laranja mekanikoa* (Meetok, 2018), Ion Olano Carlosen itzulpenean; Fleur Jaeggyren *Proleterka* (Igela-Erein, 2018), Miren Iriarte eta Fernando Reyren itzulpenean eta Rosa Luxemburgen *Kartzelako gutunak Sophie Liebknechti* (Katakraak, 2018), Amaia Lasaren itzulpenean.

Testu hau osatu ahala joera batzuk, kezka elkarbanatu batzuk ikusi uste izan ditut; nireak ere baditudan kezkek. Liburuaren eta haien egileen –artearen, kulturaren eta horren sortzaileen– arteko eta kulturaren eta publikoaren arteko harremanen inguruko gogoeta ugariak topa daitezke aurtengo argitalpenetan. *Idazteaz idazten duen idazlearen* ahots klasikotik harago, sortzailetasunaz orokorrean eta testuinguruari arreta jarritz hausnartzen duten ahotsak ohi baino presentego egon direla uste dut. Horixe amaierako aieruzko ustea, edalontzi hondoko azken tanta. 🍷

Errota berri maiteak

Zaharrak berri esaera eta makulu maiztuak nekez izango luke erabilera aproposik 2018an musikak eman duenaren erre-pasoaren goiburu gisara. Izango zuen urteak zaharretik ere, zenbait joeratan, inertziatan; merkatuak, erosotasunak zein errazkeriak gidaturiko zirkuitu, ebentu eta produktuetan batez ere, baina mugimendua izan du ezaugarritzat urteak. Gorrdio gutxi pilatu du ibilian dabilen musikaren errotarriak.

Zenbait albiste, gertakari eta urtemuga izan dira errota-rritari bultzada eman diotenak, eta haien inguruan sorturiko debateek (edo sasieztabaidek, beti ere ez baita asmatu izan kontrako iritzi horien arteko dialektika bideratzen) zedarritu dute 2018koa. Musika musika baino zerbait gehiago, puskaz gehiago, dela nabarmen utzi dute gertaera eta ezta-baidok, bestalde.

Denbora da poligrafo bakarra

Zaharretik baino gehiago izan du berritik, esaterako, Berri Txarrak (BTX) taldeak izan duen urte amaierak. Foku nagusiak bereganatu ditu pop-rock hirukoak. Ezin bestela izan. 25 urtez ibilbide aski sendoa urratu duenak 2019rako iragarri baitu «geldialdi mugagabea». Hastapenetatik taldeko gidari eta arima izan denak, Gorka Urbizuk, ohar baten bidez jakinarazi zuen berria, urtearen hondarrean: «Berri Txarrak-ekin ziklo ahaztezin bat ixteko garaia heldu dela sentitzen dut. Geratzeko beharra daukat, distantzia hartzekoa. Horren konplikatua eta sinplea da».

Sinplea da ulertzea musikarekiko konpromisoa modu integroan bizi izan duenaren mende laurden osteko nekea. Konplikatua dena da arrakasta deitzen zaion horren aparrean dagoenean olatutik jaisteko hautua egitea. Berri txartzat jo du jarraitzaileetako askok, normala den gisan, baina erabakiak asko du ausart eta zintzotik. Atsedenerako ez ezik, aldaketarako eta sorkuntzarako konpromisoa berresten du. 25 urteko ibilbidea, estudioko bederatzi disko, zuzenekoak, singleak... eta hamaikatxo ereserki utziko ditu ondareztat rockaren, poparen eta hardcorearen mugetan dantzan ibili den taldeak. Eta rock garratzean melodia dotoreak txertatzeko gaitasun ia bakana.

Ulertzekoa da BTXen agurraren iragarpenak zaleak zurtz sentimentuarekin utzi izana; denbora da poligrafo bakarra, eta hark erakutsiko du taldearen itzala zein neurritakoa den, baina ausartuko nintzateke esatera euskarazko pop eta rockaren historian letra larriz idatzita geratuko dela, zer dakit nik, Errobi, Hertzainak, Itoiz edo Negu Gorriak-en paretsu horretan.

Apurka-apurka egindako ibiliari esker, oihartzuna ez eze, jarraitzaile saldoa aurrenik, eta, gure txikian, masa fenomeno izatera iritsi baita BTX. Fenomeno izaera horren adibide izan ziren, esaterako, Barakaldoko BEC aretoa bete izana martxoaren 17an, edo MTV kate estatubatuar erraldoiak Bilboko San Mames futbol-zelaian antolaturiko kontzertu nagusian parte hartu izana azaroan. Aldeko eta kontrako iritziak bildu zituen taldeak ebentua handi horretan parte hartu izanak. Debatea sortu zen, eta horrek ez gintuzke uxatu beharko, MTV zer den kontuan izanik –espektakuluaren kultura harat-honat barreiatuz musika aitzakiatzat darabilen multinazional erraldioia–, Bizkaiko eta Bilboko erakundeek zein diru-laguntza eman zituzten kontuan izanik eta, horren aurrean, erresistentzia modura, hirian bertan Piztu Bilbo-Itzali MTV ekimena sortu zela aintzat hartuta.

Debatea sortu bazen sortu zen, eta osasungarri da hori, zinez; besterik da, ordea, zein moldetan gauzatu zen, zein gorputz hartu zuen. Iruditzen zait kazetariok ez genuela asmatu

benetako eztabaida bideratzen, eta halakoetan infernuko tresna bilakatzen diren sare sozialek, gertaeraren inguruko edukizko eztabaida baino gehiago, BTX bai / BTX ez-en artekoa sustatu zutela. Eztabaida kritiko eta konstruktiborik gutxi. Eta aukera galdu bat substantziazko kontuez hitz egiteko, adibidez, kultur ebentu eta makroekitaldien kulturaren inguruko eztabaida sustatzeko, zer dakarten eta zer ez eztabaidatzeko.

Zuzenekoan ereduak

Bizkaiko Diputazioak eta Bilboko Udalak hiru milioi euroko «ekarpena» egin zuten erdi bana «Bilbo eta Bizkaiko irudia mundu osoan sustatzearen» truke. Barakaldoko Udalak beste 220.000 euro jarri zituen, urtero herriko auzoetako festetarako jartzen duena halako bi. Unai Rementeria ahaldun nagusiak garbi esan zuen zer ekarpen egin zuen MTVren astebeteko festa burbuilazkoak: «46,8 milioi euroko inpaktu ekonomikoa izan dugu; inbertitutakoa halako hamasei». Ditzosozko *inpaktu ekonomikoa* kontzeptu bogako monetaristak zehazten ez duena da diru itzultze hori noren eskuetara joaten den. Ez hori bakarrik. «Marka bezala eskailera bat igo dugu; ebentuak antolatzeko eskaileran gorago gaude». Hara hor ebentua Bilbora ekartzeko arrazoia: aurrerago ebentu gehiago egiteko aukeren hierarkian urrats bat gora egitea. Arrakasta deitzen baitiogu urrunago iristeari eta ez gerturago iristeari...

Aukera galdu bat, hortaz, egun indarrean den zuzeneko musikaren ereduaz ikuspegi kritiko bat garatzeko. Ingurura begiratzea besterik ez baitago ohartzeko egungo zuzeneko musika zirkuitu nagusia mugitzen duten errota nagusiak makrojaialdiak izaten direla. Eta aldea egon badago, nire ustez, enpresa antolatzailea nazioarteko multinazional bat izan (MTV, adibidez) edo bertako enpresa bat izan, baina patroio rokor bati erantzuten diote batzuek zein besteek antolatutako ebentu handiek: Bilbao BBK Live, BIME, Donostia Festibala, Azkena Rock, Biarritz en Été... Diru publikoz elikatutako

ekimen pribatu erraldoiak dira, inpaktu ekonomiko eta turistikoa dutenak xede, bai behintzat bertatik bertarako musika sorkuntza, harreman eta ezagutza baino gehiago.

Hala ere, ezin erabateko itxaropena galdu, azken urteetan izan baita kontrakarreko mugimendurik ere honetan. Ugalduz ari dira marka komertzialen espontsorizaziorik gabe kultur elkarte edo kolektibo herritarren ekinbidez antolatzen diren jaialdi txikiagoak, herri ingurune zehatzagoei lotuagoak. Horrela, Uso Pop (Sara, Lapurdi), Lekuek (Gernika, Bizkaia), Kalegorrian (Urretxu-Zumarraga, Gipuzkoa) eta Jazzpana Fest (Beasain, Gipuzkoa) jaialdiei, adibidez, Oñatiko Beratu (Gipuzkoa), Zarauzko Adarretik (Gipuzkoa) eta Ozaetako Harrikadak (Araba) musika elektroniko jaialdia batu zaizkie, batzuk aipatzearren. Honela azaldu zuen Beratu jaialdiaren filosofia Arkaitz Villar antolatzaileak: «Musika entzuteko askotariko aukerez gain, musikaren ertz ezberdinak bizitzeko modu berri bat proposatzen dugu, gertukoa eta hurbila izan gura duena».

Bada zerbaiten seinale, arnas berri baten seinale.

Bidehutsen bidetik, bi zigilu

Eta halatsu da, musika modu kooperatibo eta gertutik gerturako moduan ulertzearen seinale, aurtan bi zigilu eta kolektibo berri sortu izana ere: Erraia eta Mukuru. Biak ala biak dira Bidehutsek azken hamarkadan ireki eta landutako bidea eredutzat hartuz sorturiko egitasmoak; musikari eta talde adiskideek elkarrekin eta autogestioa ardatz izanik sorturikoak, hain zuzen ere.

Gasteizen du eragin erradioa Erraiak. Kolektiboa osatzen duten taldeetako bik disko banarekin agurtu dute zigilua, eta ez dira nolanhikoak, gainera. Izaki Gardenak-ek *Dena oskol* sotila eta Montauken *Geruzak* bigarren lana, pop ahaire berri bat eta *Itzali da Berlin* urteko singleetako bat dakartzana. Gipuzkoako, Nafarroako eta Behe Nafarroako taldeak biltzen

ditu, aldiz, Mukuru kolektiboak. Tartean dira Paxkal Irigoien, Muskulo, Kaskezur, Seitan eta Klak!son taldeak, esaterako, Peru Galbete, Nigara Zuek eta Hatxe bakarlariak, eta aurten estreinatu den Txost! taldea ere bai. Urteko diskorik arnas berritzaileenetakoa da azken horrek plazaraturiko *Erreferak esperantza*. Pop eta funky jostaria, jazz arima, espiritu naif alaia eta letra surrealista, goxo zirikatzaileak uztartzen dituzte, gurean oso gutxitan egin den moldean.

Bidehutesek berak eman du urteko ezusteetako bat, ia inork espero ez zuela iragarri baitzuen Lisabören lan berria: *Eta edertasunaren lorratzetan biluztu ginen*. Azaroaren 30ean iragarri zuten, eta hurrengo egunean, abenduaren 1ean, *Rock-delux* musika aldizkariaren webgunean izan zen entzungai. Ez zuten alferrik hautatu data hori aurkezpenerako, hamar urte bete baitziren Mikel Laboa zendu zenetik egun horretan. Laboak plazaraturiko *Xoriek 17* azken diskoan (2006) parte hartu zuen Lisabök, *Orduan* piezan, hain zuzen ere.

Mitotik harago

Laboaren heriotzaren urteurrenaren harira izan zen bestelako omenaldi keinurik, azken hamar urteotan data iritsi izan denean han-hemenka gertatu izan dena areagotuz. Laboaren figura eta obra, zenbait kantu ikoniko batez ere, jendartean zein txertatuta dauden ikusteko eta baieztatzeko balio izan dute omenaldiok; ez horretarako bakarrik, ordea. Mitoaz harago, haren musika ulertzeko moduak eta esperimentaziorako jaidurak gurean eta egun jarraitzailerik baduela azkar suma daiteke: begira, bestela, Akauzaztek ematen dituen zuzeneko urriei, Donostiako Dabadaban emanikoari, adibidez (bidenabar esanda, ekimen pribatutik musika eta kultura nola susta litekeen adibide eredugarri bihurtu da areto hori, etengabeko programazioa osatuz, estilo orotarikoei leku eginez, eta atzerriko nahiz bertoko taldeak bereizkeriarik gabe tartekatuz), edota Amorantek, Mursegok eta Paxkal

Irigoienek sarriago ematen dituztenei. BTXek bezala agurra iragarri duen Delorean taldearen emanaldi laboatarrei erreparatu, edo berriro ere bere lagunez inguraturik diskoa plazaratu duen Joseba Irazokiri –*Zu al zara?* (Bidehuts)–.

Musikari ezagunak dira horiek gutxi-asko; baina, urtemugaren harira, hainbat herritako musikariek ere antolatu zituzten emanaldi kolektiboak, Azpeitian (Laboaldiak jardunaldien baitan) edo Zumarragan, esaterako. Laboa herrian txertaturik dagoela adierazten du horrek; baina, emanaldiei erreparatuta, nabarmen liteke ez zirela bertan goxo gertzearen aldeko proposamenak izan gehienak, Laboaren ildo esperimentalari jarraiki, orotariko bertsioak entzun baikenituen, zerbait berria zekartenak horietako asko.

Hedabideetan ere oihartzun zabala izan zuen Laboaren heriotzaren urtemugak. Artikulu dezente agertu ziren musikariaren emaria aletuz, haren biografia nahiz obra goratuz, euskal jendarteari eta kulturari egindako ekarpena oroitzuz, eta baita mitoaz haragoko irakurketak proposatuz ere. Honela zioen Ibon Rodriguez musikariak *Berria*-n idatzitako ‘Ezkoa’ artikuluan:

Mittoa sendotzen eman dugu hamarkada, kantu berberak behin eta berriz eskuztatzen, fusio handinahi eta *kitsch*-ak sortzen, Laboari abizenak ipintzen. Kanonak ikuspegi kritikoa deuseztatzen du, kontserbadorismoa pizten, eta norabide bakarretik interpretatzen artelana, identitate-ikuspegitik. Horrela ez dago belarri kritikoak sortzerik.

Klika eta belarri kritikoak

Rodriguezen hitzak ekar daitezke 2018an izan den beste musika eztabaida nagusi bati erreparatzeko ere. 2019ko Korrikarako *Klika* kantua eta bideo-klipa aurkeztu zituen Fermin Muguruzak azaroan, eta hara non kritika saldoa jaso zuen ikus eta entzungai jarri eta berehala. Kritikarako arrazoi nagusia izan zen ez dela Korrikarako moduko kantua: «Hori ez

da gure musika», «gure haurrek ezin dute musika hori entzun eta dantzatu»... eta gisakoak. Norberaren gustuak kontu bat dira, baina argudio horiek guztiek azaltzen dute *Korrika kantuen kanona* puskatzeak ekarri zuela jende askoren marra, hots, kontserbadorismo estetiko ageriko batek.

Bitxia baita kontua: zer den 'gurea' kontsideratzen den musika eta zer ez. Korrika kantuetan, adibidez, ohikoak izan dira trikiti-ska-raggamuffin estiloko kantuak. Horietako estilo zenbait geureganatzeko Muguruzak berak lehenago dezenteko ardura izan zuen. Ska eta raggamuffina ez baitziren sortuak izan Euskal Herrian prezeski.

Klika kantuak traparen, dancehallaren, raparen eta txistuz emaniko euskal doinuen nahasketa bat egin du, hots, lehenago beste zenbait estilorekin egin izan duen bezala, estetika eta diskurtso musikal berriak erabiltzeko proposamena, baina pixkanaka Euskal Herrian ere entzuten eta txertatzen ari diren doinuak erabiliz. Akaso galdetu beharrekoa da zerbait berritzaile eta ausartagoa egin nahi izan denean zergatik jo den berriro Muguruzarengana, Lander Arretxeak *Berria*-n idatzi bezala:

Ausardia behar da; baina beste publiko batzuk erakarri eta zerbait desberdina egin nahi bada, zergatik ez eman autonomia eta ardura giro horretan ari den sortzaile bati? Zergatik ez Mad Muaselek eta La Furiak konposatu eta eraiki duten abestia eta bideoklipa aitabitxien premiarik gabe?

Goroldiorik ez


Elkarrekin eta aitabitxien premiarik gabe, halaxe antolatu eta egin zuten *Zorrak* kontzertu kolektiboa hainbat emakume musikaririk, Feministaldiak antolaturik, Donostiako Bukowski aretoan, urtea amaitzear zela. Emakumeek euskal musikan duten indarraren adierazle garbi, han izan ziren Anari, Mursego, Saioa, Lorea Argarate & Ines Osinaga, Birkik eta Mice, besteren artean.

Zarautz aldeko emakumez osaturiko bi talde ere nabarmen-tzekoak dira 2018an. Perlak taldeak ibilbidea etetea erabaki baitu, post-punk ildoko bi disko aipagarri utzita, eta Drum-kopters hirukoak estreinakoa kaleratu du garagea-surfa-post-punka riot jarrerarekin uztartuz.

Rockak jarraitzen du izaten hegemoniko; gitarretan, distortsioan eta talde izaeran oinarrituriko belaunaldi berri bat ere agertu da: Vulk, Arrotzak, Kaskezur, Madeleine, Nau, Mikel Uraken... Horietako zenbaitek euskara eta gaztelania edo euskara eta ingelesa tartekatzen dituzte disko berean... Hori ere joera bat da. Herri musikagintzatik eta pop-rocketik datozen beteranoak ere disko nabarmenak plazaratu dituzte: Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Gari...

... baina, era berean, estiloak, estetikak, diskurtsoak berri-tzen ari dira, emeki baino gelditu gabe. Elektronika eszenatxo bat loratzen hasi da: Mugako jaialdia (Gasteiz), Dantz jaialdia (Donostia), BET (Bergara, Gipuzkoa)... Artistak ere ugari-tzen ari dira: Telmo Trenor, El Txef-A, Garazi Gorostiaga, Eyharts... Trapa lehen bizi zantzuak ematen ari da: Nizuri Tazuneriren *Zazpi* urteko diskoetako bat da. Eta raparen, reggaearen eta gisako genero beltz urbanoen aldaerak gu-rean ditugu: Glaukoma, Gorpuzkingz, La Basu, Aneguria, Ttun Ttun Brigade...

Goroldiorik ez zaio itsatsi musikaren errotarriari azken urtean. 🍷



GAIAK

105 Norbere buru-gorputza irakurtzeaz
Garazi Arrula Ruiz

Norbere buru-gorputza irakurtzeaz

Garazi Arrula Ruiz

Itzultzailea eta itzulpengintzan doktorea

Identitatea aztergai eta eztabaida iturri izan da giza zientzietan, eta hala ere itzulpen ikasketetan axaletik aipatu izan da, hausnarketa teorikorik gabe maiz. Identitatea etengabe interpretatzen dugun praktika multzoa dela ontzat joz gero, itzulpena, jardun kognitibo eta diskurtsiboa den heinean, tresna esanguratsua izan daiteke identitatearen (des)eraikuntzarako. Halaber, hizkuntza bat eta horrek berekin dakarren erreferentzia-sarea besteengandik bereizteko propietate izan daitezke, identitate kolektiboa osatzeko, hiztun komunitatearen parte izan eta horretaz kontziente bagara. Baiezta dezakegu, ordea, hizkuntzaz aldatzen garen bakoitzean, identitatez mudatzen garela? Berdin zuzentzen gatzaiakio hiztun komunitate bati eta beste bati, norbera bi kulturaren parte denean?

Galdera horiek abiapuntu izanen ditugu itzulpenean eta itzulpenaren bitartez identitatea nola berrinterpretatzen ahal den aztertzeko, literatura oinarri hartuta. Horretarako, aski erroturiko teoria psikosozialetatik abiatuko gara, eta kasu azterketa baten bidez azalduko dugu horien aplikazioa, horrela, itzulpen ikasketetan identitatearen auziari erantzuteko proposamen bat egin nahian.

Artikulu hau *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian* doktore tesitik (2018) eratorria da –sarean dago–, eta nagusiki bi lan hauetako marko teorikoan oinarritu naiz: Eduardo Apodakaren *Identitatea eta anomalia* (Pamiela, 2015) eta Ibai Iztuetaren *Cultura vasca vs Euskal kultura* (*Utriusque Vasconiae*, 2015). Testu barruko goiburu guztiak Lutxo Egiaren *Identitateak* (Booktegi, 2018) antzezlanetik hartu ditut.

Gure izatea egitea baino ez da

Itzulpen ikasketetan identitateak izan duen lekua eta izan dezakeen eragina aztertu aurretik, identitateaz beraz bi hitz esanen ditugu. Giza zientzietan, identitatea pertsona (identitate indibiduala) edo taldea (talde sozial jakin bat) egiten duten ikusmolde, nolakotasun, sinesmen eta praktika diskurtsibo multzoa da. Eduardo Apodakak honela definitzen du: «Identitatea eguneroko praktiketan nahiz erritual edo jazoera berezietan, berariaz edo oharkabean, sortu eta negoziatu, landu eta bizitzen den kode berezi bat» (31). Euskal kulturari buruzko azterketan, Ibai Iztuetak ere definizio bat ematen dio identitateari: norbanakoaren edo taldearen propietate bat da, gu besteengandik bereizten gaituzten ezaugarrien jabe izatearen kontzientzia.

Kontzientzia berezia da, horratik. Izan ere, antzeko izan arren, nahastu behar ez diren bi aurpegi ageri baititu: izena eta izana. Hala, identitatea zedarritzen da izanari –zerbaiti– izena ematen zaionean. Baina baita bestela ere: izena ematea nahikoa izan daiteke, handik izana eta identitatea eratortzeko. Identitatea, hortaz, izanaren gaineko kontzientzia bezala, izenetik edo izendapenetik eratorritakoa izan liteke (Iztueta 2015: 217).

Identitatea ustez berdinak (identikoak) ditugun praktikak izendatzeko modua da, eta praktika horiek berdintzat jotzetik sortzen da; hots, praktika batzuei emandako interpretazioa da. Izendatzea geroago ere agertuko zaigu, identitatea hizkuntzari loturik baitator; horregatik ere aintzat hartzekoa

da horren azterketa itzulpen ikasketetan, biak diren heinean jardun kognitibo eta diskurtsiboa.

Bereizgarri bat behar du identitaterik egonen bada, hots, beharrezkoa da *beste* batekiko alderaketa eta diferentziazioa. Horrela, identitatea eraikitzeke orduan, alderaketa eta ezberdintze mekanismoek badute zer esana. Norbanakoa ez da alderaketa hori egiten duen bakarra: gure buruari buruzko definizioa besteek guri buruz duten irudiaren arabera da, eta kontuan hartu behar da 'beste' ugari ere badirela. Esan daiteke, bada, joan-etorriko bidaia bat dela, aldebikoa, harremanean egiten den eraikuntza sozial, aldakor, ideologiko eta historikoa, eta, hortaz, ez dela gatazkatik libre. Horrela, gizarteak, kulturak eta identitatearen interpretazioan eta diskurtsioan parte hartzen duten taldeek zuzenean baldintzatzen dute identitatea ulertzeko dugun modua.

Identitate indibiduala eta identitate soziala aipatu ditugu; bien arteko bereizketa dikotomikoa arras erroturik dago gaur egun ere Mendebaldeko kulturaren, nahiz eta maiz nabarmendu den ez direla errealitate bereizgarriak. Identitate sozialaren kontra jotzen delarik, kasurako, identitate indibidualaren kontra egiten da, gehienetan horrela hartu ez arren. Psikologia sozialak ere dikotomia hori apurtu eta, besteak beste, izate indibiduala ingurumen sozialarekin nola lotzen den aztertu du. Margot Pujal i Llombart-ek (2004: 101) dioenez, identitate sozialak eta identitate indibidualak «elkar eraikitzen dute, niarekin loturiko edozein alderdi hitzez jartzen dugunean darabilgun hizkuntzak berezkoa duen alde sozialaren, kulturalaren eta ideologikoaren bitartez» (nire itzulpena, gainontzeko aipuak bezalaxe). Bestela esanda, norbanakoak praktika diskurtsiboaren bitartez egiten duen

Giza zientzietan, identitatea pertsona (identitate indibiduala) edo taldea (talde sozial jakin bat) egiten duten ikusmolde, nolakotasun, sinesmen eta praktika diskurtsibo multzoa da

eraikuntza soziala da identitatea, eta ez litzateke bikoiztasun proposamen dikotomikoetara murriztu beharko, itzulpen ikasketetan egin izan denez.

Teoria psikosozialaren jarraitzaileek autoestimua eta diskriminazioa ere hizpide dute identitateaz hitz egitean; batetik, norbanakoek autoestimua positiboa lortzen dute beren identitate-taldeengandik, eta, bestetik, talde barruko pertsonak lehenesteko joera dago 'kanpotar' diren horien kaltetan (kanpotar norbera parte den talde jakin horrekiko). Estrukturalistek erakutsi bezala, erlazioan datza diferentzia, eta zentzua eratortzen da elementuak elkarrekin erlazioan jartzetik, hots, oposizio batetik. Diferentziazio prozesua ere erlazio horretan ikus dezakegu, esperientzia sozial eta indibidualen hautatzeari bide ematen baitio. Iratxe Esparzak eta Manu Lopez Gasenik (2015: 16) diotenez, espazio horietako bakoitza logika, jokamolde, kultura eta arau jakinen arabera antolatutik dago; beraz, espazio batetik bestera aldatzean, ezinezkoa da jardunbide berberak transferitzea; aitzitik, espazio berriari dagozkion arau, kode eta praktiken sistema osoa gureganatu beharko dugu. Nolabait, antzera gertatzen da itzulpenean: xede kulturaren elementuak bereganatzen ditu testuak, edo, bestela esateko, xede kultura bereganatzen da testuaz.

Guztiaren hasieran bakanak ginen

Autoitzulpena da norberak sorturiko diskurtso bat beste hizkuntza, dialekto edo hizkuntza aldaera batera itzultzearen prozesua eta emaitza. Beraz, agente bera da testua (ahozkoa edo idatzizkoa) sortzen duena eta testu hori itzultzen duena; testu idatziaren kasuan, idazlea eta itzultzailea. Itzultzailea, elebiduna izateaz gainera, bi kulturaren jabe ere izanzen da, are nabarmenago espazio geografiko berean bi hizkuntza edo gehiago mintzatzen direnean; egoera horretan sorturiko autoitzulpenek elebitasun endogeno edo barne-elebitasun bat dute oinarrian. Euskararekin gertatzen diren autoitzulpen gehienek sorburua horixe da. Hizkuntzen asimetriak eta

kultura eleaniztun, periferiko eta mugakide baten konplexutasunek eragina izanen dute nahitaez bai (auto)itzulpenean bai identitateen eraikuntzan.

Agentea bera denez, autoitzulpenari buruzko azterketen baitan aurkitu ditugu identitateari itzulpen ikasketetan egin zaizkion erreferentzia gehienak, aipatu hizkuntza eta kultura bitasunari loturik. Esate batera, Paschalis Nikolaouk (2005) dio transposizio linguistikoarekin hasten den autoidentitate ariketa bat dagoela norbere obra itzultzearen jardunean. Identitate bikoitz bat, konplexua, zeinaren bidez sortzaileak bere partaidetza eta erreferentzia markoei loturiko diferentziak ezagutzen baititu (Lagarde 2013). Hain zuzen, Eva Genteseek honela dio: «Autoitzulpenaren bi identitateak orekatzeko modutzat hartzen da autoitzulpena, hizkuntza bati ematen zaion lehentasuna behin-behinekoa soilik delako» (2013: 268). Norbere identitatea bilatzeko eta definitzeko bidez ere aurkeztu da autoitzulpena (Flores Silva 2017). Bistan denez, identitate bikoitz batez mintzo dira; are gehiago, bada tarteko identitate bat (*in between*) hizpide duenik ere (Cocco 2009). Bikoitza, tartekoa, autoerreferentziala, baina sekula horren adieran sakondu gabe.

Itzulpen ikasketek identitatea erabili duten moduari helduz, Aurelia Klimkiewicz (2013) autoitzulpenak izatearen baitan sortzen duen dialogo eleaniztunaz mintzo da, tentsio sare konplexu baten eragile baita. Interpretazio horren arabera, itzulpena ez da soilik sorburu testuaren eta xede testuaren arteko harremana; aitzitik, bi testuen hartzaile sareak ere itzulpenaren parte dira. Klimkiewiczek autoitzulpena narratibitate apurtutzat eta dinamikotzat du; identitatea adierazteko bitartekoa baino gehiago, kultur arteko dialogoa da: «autoitzulpenak erakusten du identitatea zehazteko eta artikulatzeko zailtasuna, bi hizkuntzek talka egin eta elkarren mendeko izateari uko egiten baitiote, eta, ondorioz, horrek kontzientzia zatikatu bat dakar» (2013: 191-192). Nik ulertzen dudan moduan, diglosia eta elebitasuna maila pertsonalean eta sozialean gertatzen dira, eta hizkuntzak botere harremanen bidez

Idazlearen asmoa zeinahi dela ere, autoitzulpenean hizkuntzetako bat posizio subordinatuan gera daiteke, are nabarmenago gure kasuan, non hizkuntzen arteko harremana hasieratik baita asimetrikoa

artikulatzen dira bai jendartean bai norbanakoarengan; idazlearen asmoa zeinahi dela ere, autoitzulpenean hizkuntzetako bat posizio subordinatuan gera daiteke, are nabarmenago gure kasuan, non hizkuntzen arteko harremana hasieratik baita asimetrikoa arteko harremana hasieratik baita asimetrikoa. Idazle elebidunak erreferentzia sare bat eta iruditeria oso bana lotuko dizkio hizkuntza bakoitzari, erreferentzia pertsonalak (jarrerera, sentimenduak...) nahiz kolektiboak. Iztuetak (2015) dioenez, hizkuntza bat hautatzeak bestelako hautu batzuk ekar ditzake berekin, emozioek eragina baitute arrazoitzean. Ondorioz, autoitzulpenaz ari garelarik, esan dezakegu hizkuntza batetik bestera mudatzean horietako bakoitzari lotzen dizkiogun jarrerak eta atxikimenduek eragina izan dezaketela itzulpen prozesuan hartutako erabakiekin eta darabiltzagun estrategiekin.

Hizkuntza identitaterako sarbidea dela eta, Elin-Maria Evangelistak galdetzen du bigarren hizkuntzan idaztean identitate berri bat sortzen ote den; zehazki, aztergai ditu «hizkuntza, identitatea eta ahotsaren ondorioak idazle batek bere obra 'itzultzen' duelarik bigarren hizkuntza batean idatziz, bikoiztasun etengabearen zentzu horren aurrean» (2013: 178). 'Bigarren hizkuntza batean idaztea' darabil autoitzulpenaz mintzatzeko, hasieran zehazten duenez. Horrela, idazle elebidun/eleaniztunen baitan bi identitate ote dauden aztertzen du, eta autoitzulpen prozesuan batz gabetzen ote garen; 'galera' ba ote dagoen, alegia. Izan ere, gehienetan autoitzulpena izatearen galeratzat hartzen baita, eta lehen hizkuntzari egindako traiziotzat. Bigarren hizkuntza hautatzea halaberrez edo aukeraz egiten den bereizten du

Evangelistak, bigarren hizkuntzarekin izandako esperientziak idazketa prozesua bera baldintzatzen duelakoan. Hain zuzen, izatearen eta hizkuntzaren elkarreraginari buruz, Mary Besemeres ikertzailea aipatzen du: «Besemeresek uste du elebidunak identitateen bertsio gatazkatsuen baitan bizi direla eta bi identitate/hizkuntza horien artean aukeratzea beharrezkoa dirudiela» (Evangelista 2013: 179). Beraz, berriz ere, ikuspegi horren arabera badirudi izatea bat eta bakarra dela eta horrek elkarren kontrako bi bertsio dituela elebidunen kasuan. Alta, dikotomia horrek ez du bat egiten ontzat jo dugun identitatearen pluraltasun eta etengabeko eraikuntza narratibo eta dinamikoarekin. Azkenik, Evangelistak ondorioztatzen du identitatearen galera edo jatorrizkoari traizioa egitetik urrun, ‘irabazi’ modura uler daitekeela autoitzulpen prozesu hori, eta irabazi horiek zerrendatzen ditu: besteak beste, lehen hizkuntzarekiko loturetatik aske aritzeko aukera eta ikuspegi bikoitzaren jabe izatea.

Ondorioz, esan daiteke izatearen beste aspektu batzuk arakatzeko eta etengabe berrinterpretatzeko aukera ematen duela autoitzulpenak. Konparazio batera, Sara Kippur-ek (2015) Federmanen obra autobiografikoa eta horren autoitzulpen ugariak alderatzen ditu, eta ondorioztatzen du Federmanek kolokan jartzen duela ‘autorearen’ irudi estatikoa, itzulpenaren bidez bere buruaren errepresentazio askotari-koak egiten dituen. Bizitza edo historia beraren hainbat aldaera ditu, bada, baita edizio elebidunetan ere. Kippurren (2015: 60) hitzetan, «haren bizitzaren bertsioen arteko aldeak iradokitzen du narratiba dominante edo autoritario baten gabezia onartzeko borondatea». Ikertzaileak nabarmentzen duenez, autoitzulpenaren bidezko testuaren mugikortasun dinamikoak autorearen *mouvance* jarraitua ahalbidetzen du. Beherago ikusiko dugunez, autoitzulpenak mugimendu hori ahalbidetzeak ez du esan nahi aldiro betetzen denik. Evangelistaren hipotesiari jarraikiz, beste ‘irabazi’ bat ikus dezakegu Katixa Dolhare-Zaldunbidek (2013) proposaturiko norberaren eta bestearen arteko dialogoan. Itxaro Bordaren

autoitzulpen prozesua oinarri harturik, Dolhare-Zaldunbidek dio ez dela identitaterik dialogo hori gabe, eta Ricoeur-ek proposaturiko distantziaren hermeneutika hizpidera dakar: norbere obra itzultzeko, autoreak idatziz emandako testuaz desjabetu behar du, bestetasunaz ohartzeko eta gero presente berri batean horretaz jabetzeko, hizkuntza berri baten 'abegia' (*hospitalité*) eskainiz. Ondorioz, Bordak bere lanak itzultzea erabakitzen du idazketa landu ez ezik obra osoko gaien sakondu nahi duelako, «identitate guztien singular-tasun sakon hori (norbera, hizkuntza, kultura, herri baten identitatea), zeina paradoxikoki ez baita existitzen bestetasunarekin axaleko topaketaren talkan baizik». Nolanahi den, beti gertatzen da talka edo gatazka norbera/gu eta bestearen arteko harremanean, eta gatazka hori ikusgarri(ago) eginen da (auto)itzulpenean –Bordaren kasuan, esaterako–.

Orain arte ikusitakoan oinarrituta, beraz, bistan da tresnak behar ditugula itzulpenean identitatea nola sortzen den identifikatzeko. Psikosoziologiaren arloan garatutako bi teoria proposatuko ditugu orain, analisi enpirikorako marko teoriko bat eskaini asmoz.

Bi arraia zaharren gurutzaketa

Kategorizazio eta errepresentazio sozialen teoriak psikosoziologiaren eremuan garatu badira ere, zein bere bidetik sortua da, eta batez ere jokabidea azaltzen dute; gurutzaketarik eginen ez badugu ere, biak elkartuko ditugu hemen, itzulpen ikasketei ekarpen esanguratsua egin diezaieketelakoan.

Identitate soziala gure buruari buruz egiten ditugun deskribapenak, diskurtsoak dira, zeinekin identifikatuta sentitzen baikara. Niaren narratiban darabiltzagun kontzeptu eta hitzek konnotazio eta balorazio sozialak loturik dituzte intrintsekoki, oro har komunitate edo gizarte bateko ideologia nagusiaren ondorio direnak eta neutrotik gutxi dutenak, izan positiboak izan negatiboak. Balorazio horiek identitate batzuk hobestera garamatzate; esate batera, Mendebaldean,

gaur egun, ‘bertako’ izateak inplikazio positiboak ditu jende askorentzat, eta ‘etorkin’ kategoriak, berriz, negatiboak.

Kategorizazio Soziala da jendeak bere burua eta besteak nola ikusten dituen gizartean. Teoria horrek norbanakoak jende-multzoak (bere burua barne) taldetzat jotzeko egoerak deskribatzen ditu, baita jendea *talde* terminoetan hautematearen ondorioak ere. Teoria horren sortzaileek –lehenik Henri Tajfel eta gero John C. Turner– jendea nola hautematen dugun eta pertzepzioek gure izate sozialean zer eragin duten aztertu dute. Kategorizazioak inguru soziala sailkatzeko eta ordenatzeko tresna kognitiboak dira, eta prozesu horrek ondorio du norbanakoaren ekintza sozial askotarikoa; ez du mundua sistematizatzeko soilik balio, norberak inguru horretan bere lekua identifikatzeko (egiteko) ere bai. Hurremanean egiten den prozesu kognitiboa dela esan daiteke, ondorio sozialak dituen. Tajfel eta Turnerrek hiru prozesu psikosozial bereizten dituzte, besteak eta gure burua nola hautematen ditugun adierazten dutenak eta oro har ordena honetan gertatzen direnak: kategorizazioa, identifikazio soziala eta konparazioa. Pertsonak taldekide direla oinarri hartuta, talde jakin bateko pertenezia sentimenduak eragina du besteen hautemate eta errepresentazio horietan. Beraz, ingurua kategoriatan sailkatzeak talde horretako kideei buruzko informazioa emanen digu; era berean, gure burua talde bateko kideztat hartzean, kontzienteki hala egitean, talde horretako arau ustezkoen arabera jardutera garamatza.

Tajfel eta Turnerrek proposaturikoaren arabera, kategorizazioaren atzetik dator identifikazioa: bere burua partetzat duen taldearen identitatea bereganatzen du norbanakoak, eta identifikazio-prozesu horretan norbere buruarekiko estimua talde-partaidetzari lotzen zaio. Azkenik, konparazioa egiten da norbera parte den taldearen eta beste taldeen artean; aipatu autoestimua gordeko bada, konparazio horretatik ‘garaile’ atera behar du norbere taldeak: «kanpo talde baten presentziaz jabetze hutsak taldeen arteko lehia edo erantzun diskriminatzaileak ekar litzake barne taldearen partetik» (Tajfel eta

Turner 1979: 38). Norbera emakumea, euskalduna, agnostikoa eta klase ertain-baxukoa dela esateak, adibidez, zenbait talde sozialetako pertenezia eta gizartean norberak duen posizioa adierazten ditu, baita horiekiko atxikimendu sentimendu bat ere, beste kategoria batzuk erabiliko baitzituen besteren batek egoera berean (esaterako, heterosexuala, zuria eta tabernaria). Kategoria bakoitzak rol, errepresentazio eta ezaugarri sozial jakin batzuk izanen ditu, kategoria bereko kideek konpartituko dituztenak, eta norberaren ideologiaren arabera izanen direnak. Hain zuzen, kategorizazio sozialaren teoriarik, 'ideologia' erabiltzen da taldekotzat jotzen den jokabideari buruz gizarteak ematen dituen azalpenei erreferentzia egiteko (Pujal 2004: 116). Kategoria sozialak *berez* existitzen direla pentsatzea, bada, okerra da, atzean duten karga handia baita. Horren adierazle bat da kategoria sozial guztiak ez direla modu berean ikusgarri: talde gutxituei, azpiratuei edo botererik ez dutenei erreferentzia egiten dieten kategoriak erabiliagoak eta ikusgarriagoak izan ohi dira besteak baino; kasurako, homosexual, beltz eta euskaldun kategoriak heterosexual, zuri eta espainol kategorien aldean. Sinplifikaziorako tresna baliagarria da, baina ez horregatik onbera.

Labur, bada, gizarte edo herri bakoitzak bere egitura sozialaren, historiaren eta balioen arabera kategoriak izanen ditu eskura, eta horiek baldintzatuko dituzte identitate sozialak. Hain zuzen, baldintzatzaile horiek bigarren mailan uztea egozten dio Apodakak teoriari: «kategoriak ez direla behin betiko eta berez sortu diren 'marko kognitiboak', kategoriak etengabe sortu, negoziatu eta eraiki behar diren 'marko simbolikoak' dira. Marko horiek, bistan da, praktiketan egikaritu behar dira» (2015: 57). Horregatik dakartza Apodakak hizpidera Sheldon Stryker-en eta Peter J. Burke-ren lanak, identitate teoria integratzaileago bat eskaini dutelakoan. Rolak (posizio sozialak) negoziatu egin behar direla eta negoziazio horiek egitura sozialetan egiten direla nabarmentzen dute; negoziazio horiek, taldekideekin ez ezik, beste taldeetako kideekin ere egiten dira. Identitateak gugandik espero diren

barneraturiko rolak dira, eta horiek bete behar direnez gero, zentzu multzoak sortzeko praktikak ere badira.

Hiztun-komunitateek kategoriak osatzen dituzte, zeinak diskurtsoaren, atxikimendu emozionalaren eta prozesu soziokognitibo baten bidez osatzen baitira. Testuinguru diglosiko, asimetriko edo postkolonial batean, hiztun-komunitateetako pertenezak ez dira maila berean eta gatazkarik gabe gertatzen. Hots, esan daiteke norbanako batek bi hiztun-komunitateko kide delako kontzientzia izan dezakeela, bi hizkuntzetako hiztuna baita, eta, hala

ere, kategoria horietako baten parte aktibo izanen da (sentienduari, erabilerari edo bie dagokienez). Plano orokorrago batean, hizketa ekintza orok norbera eta solaskidea harreman sozial batean jartzen ditu, eta horrek kategorizazioa dakar, izan talde berekotzat, izan beste taldekotzat. Afrikako ko-

lonia frantses izandakoetan oinarrituta, Paul Wald-ek ikusi du erabiltzen den inguru sozialaren arabera frantses hizkuntza norbera eta bestea kategorizatzeke ezaugarri izan daitekeela. Azterketarik egin gabe, esanen genuke hala gertatzen dela beste hizkuntzekin ere. Gainera, testuinguru elebidun edo eleaniztunetan, hizkuntza batetik bestera aldatzean hizlaria beti ari da bere irudi bat sortzen. Hizkuntza erabileren bidez, bada, posizionatu egiten gara, errepresentazio modu bat gertatzen da: solaskideen eta norberaren irudiak sortzen.

Autoitzulpenari dagokionez, galde dezakegu idazlearen rol hartzea aldatu egiten den testua itzultzeko prozesuan; batetik, beste jardun bati ekiten diolako, eta, bestetik, beste hiztun komunitate bati mintzatzen zaiolako, hots, hasierakoaren aldean bestelakoa izan daitekeen kategoria edo talde bateko irakurleriari. Autoitzultzaileak bere burua bi kategorietako partaidetzat izan dezake, nahiz eta parez pareko bi

Testuinguru diglosiko, asimetriko eta postkolonial batean, hiztun-komunitateetako pertenezak ez dira maila berean eta gatazkarik gabe gertatzen

kategorien partaidetza lehiakortasun eta gatazka iturri izan daitekeen. Hipotesi modura, esanen nuke itzulpen prozesuan kategoria moldatze edo aldatze bat gertatzen dela, gatazkarako aukerak leunduz; kasurako, etxekotze tekniken bidez Bestearen (sorburu kategoria) arrotasuna gutxitu eta izate potentzialera (xede kategoria) hurbiltzea. Egitura mailan, itzulpenaren egiletasunaren berri ematen ez denean eta obra bigarren jatorrizko modura aurkezten denean, posizionatze bat ikus dezakegu, autoreak bere burua kokatzen baitu xede komunitatearen kategorian, xede kulturako idazletzat. Autofikziozko lanen kasuan, posizionatze hori agerikoagoa izan daiteke, norberaren irudia eta identitate eraikuntza baitago jokoan. Autofikzioa autoitzultzean, idazleak berak sorturiko irudia du idazle-itzultzaileak parez pare.

Identitateak zentzu multzoak sortzeko praktikak direla esateak zuzenean garamatza hona ekarri nahi dugun bigarren teoriara: *Errepresentazio Sozialen Teoria*. Serge Moscovicik aurkeztu zuen errepresentazio soziala 1961ean, psikoanaliaren baitan. Ordutik, hamaika izan dira jarraitzaileak eta kontrakoak. Emile Durkheim-en 'errepresentazio kolektiboak' kontzeptua hartu zuen Moscovicik abiapuntutzat, baina, heterogeneoegia eta aldi berean estatikoegia zela argudiatuta, 'errepresentazio sozialak' terminoa hobetsi zuen. Sortzailearen definizioaren arabera, errepresentazio soziala balio, ideia eta praktiken sistema bat da, talde edo komunitate bereko kideek konpartitzen dutena (Moscovici 1988); sistema horrek funtzio bikoitza du: lehenik, norbanakoei beren mundu sozial eta materialean orientatzen lagunduko dien ordena bat ezartzea; bigarrenik, komunitate bereko kideen artean komunikazioa ahalbidetzea, munduaren eta beren historia indibidual zein kolektiboaren hamaika alderdiak izendatu eta klasifikatzeko kode baten bidez, baita elkarrekin erlazionatzeko kode baten bidez ere. Beraz, norbanakoa (berdin taldea) ez da mundu objektibo batekin zuzenean erlazionatzen, ezpada horren errepresentazioekin, komunitate bat etengabe interpretatzen eta berresanahitzen ari den horiekin. Teoria pragmatikoek aspaldi

erakutsi zuten hitzen balio performatiboa; hitzek ideiak eta konnotazioak ere badakartzatenez, errepresentazio sozialak eraikitzeko, horiek elikatzeko eta berrinterpretatzeko aukera dago hitzen eta adieren bitartez, eta, ondorioz, itzulpenaren bitartez. Talde bateko kideek elkar komunikatzeko (bai hitzez bai jokamoldez) ulermen sistema komun bat behar dute, talde horrentzako esanahi espezifikoa duen ideia eta kontzeptu multzoa. Teoriak zekarren berritasunetako bat da esanahia negoziazio sozial baten ondoko eraikuntza dela, hots, ez gauza absolutu, finko eta aldagaitz bat, eta esanahiaren interpretazioak ingurumen sozialaren beste alderdi batzuen ulermen edo ezagutza eska dezakeela.

Alor honetan lan egin duten autore gehienek bat egiten dute errepresentazio sozialak ezagutza-elementu biziak eta dinamikoak direla esatean, «harremanean soilik existitzen direnak, besteekiko dialogoan eta negoziazioan sorturiko bitarteko espazioan» (Howarth 2006: 68). Errepresentazio ezberdinak lehiatzen dira errealitatea aldarrikatzeko, eta beste errealitate batzuk defendatu, mugatu eta baztertzen dituzte. Hain zuzen, hala ezagutza-elementu dinamikoen sorreran nola errepresentazio praktiketan, gatazka soziala, kritika eta erresistentzia leudeke. Erreala zer den, bada, diskurtso sozial eraikiaren arabera izanen da. Errepresentazio sozialek errealitatea egin egiten dutela dio Moscovicik (1988: 245): «errepresentazio konpartituek, horien hizkuntzak, errealitate esaten diogun horren arrakaletan hain sakon barneratzen dira, non esan baitezakegu eurek osatzen dutela errealitatea». Horregatik, askotariko botere-harremanek esanahia lehiatzen eta negoziatzen dute, hots, errealitatea, eta horrek gatazka dakar. Bereziki nabarmena da hori botere guneetan; kasurako, azkenaldian edukiz betetzeko lehian dauden kontzeptuetako bi dira demokrazia eta nazionalismoa. Horra beste elkar-gune bat: kategorizazioari buruz mintzatzean ere aipatu da rola negoziatu behar direla, eta itzulpena maiz negoziazio prozesutat definitu da. Azkenik, botere-diskurtsoak irau-narazteko ere erabiltzen dira errepresentazio sozialak. Esan

daiteke, bada, errepresentazioek eragina izan dezaketela ez soilik guk mundua egituratzeko eta horri zentzua emateko moduan, baizik eta munduak gu 'egiteko' moduan.

Teoriari ikuspegi kritiko batetik begiratuta, Caroline Howarthek (2006: 78-79) erakusten du errepresentazioak darabilzkigula identitate komunak aldarrikatzeko eta praktika estigmatizatzaileei aurre egiteko. Beharrezkotzat jotzen du identitatea ulertzea errepresentazioak helburu ezberdinekin (negoziaziorako, eraldaketarako, legitimaziorako eta abar) zergatik eta nola erabiltzen diren azaldu ahal izateko. Errepresentazio sozialak historia eta errerealitatea eraikitzen erabiltzen diren elementu aldakorak izanik, posible da horiek berresanahitzea, baita, ondorioz, errerealitatea (horren pertzepzio kolektiboa) aldatzea ere.

Eguneratze zenbait behar badu ere, Moscoviciren teoria aintzat hartzeko da. Itzulpenaren ikerketan teoria esanguratsua izan daiteke, aztertzen dituelako, besteak beste, nola sortzen diren munduaren ikuspegi konpartituak (zentzu komuna) eta nola dakartzaten horiek ekintza. Errepresentazio soziala balio, ideia, metafora, sinesmen eta praktika *stock* bat da, talde edo komunitate bereko kideek konpartitzen dutena. Itzulpengintzan eta identitateari loturik, bada, ez da soberan galdetzea hizkuntza komunitate batek darabilen

Errepresentazio soziala balio, ideia, metafora, sinesmen eta praktika *stock* bat da, talde edo komunitate bereko kideek konpartitzen dutena

len hitz stockarekin eta beste hizkuntza komunitate batek darabilen hitz stockarekin irudikapen sozial bera (zentzu komun bera) eraikitzen ote den. Adibide ximple bat: Euskal Herriak eta Pays Basquek irudikapen sozial bera sortzen ote dute euskal hiztunaren eta frantses hiztunaren ulermenean? Autoitzulpenari

gagozkiolarik, galde dezakegu itzultzailea xede hizkuntza komunitatearen errepresentazio sozialez jabetzen ote den

edo, kontrara, autoitzultzailearen errepresentazio soziala ez den aldatzen, hori moldatzeko beharrik ez ote den (beharra irudikatua izanik ere).

Orain, etengabeko interpretazio eta negoziazio prozesu kognitibo-interaktibo baten ondorio diren testuen azterketari aplikatuko dizkiogu azaldu berri ditugun bi teoriak. Literatura testuetan oinarrituko gara, hain zuzen literaturak berak ekoizten baititu komunitate edo herri baten identitate kulturalari ekarpena egiten dioten esanahi horietako asko (Esparza eta Lopez Gaseni 2015: 11).

Hautsi da Anphora eta ez da gu zurrunik

Duela ez asko, norbaitek esan zidan egunkarietan gehien irakurtzen diren atalak iritzi artikuluak direla; laburtasunagatik, batetik, eta izen propioa daramatelako, bestetik. Horren inguruko balorazioan sartu gabe eta datu enpirikoen faltan, baieztapena aintzat hartuz gero, badirudi iritzi pertsonalak pisua hartu bezala indartu dela singularitasuna egiletasunean, eta, horrekin, bai nitasunaren literatura bai autofikzioaren oihartzuna. Itxuraz, autofikzioak bi narratiba motaren uztartzea du oinarrian, bi horien arteko mugak beti zurrunik ez izan arren: fikzioa eta autobiografia. Karen Ferreira-Meyers-ek dioenez (2015: 206), autofikzioa hiru identitateen printzipioan oinarritzen da (autorea da obraren narratzailea eta protagonista), autobiografia bezalaxe, baina obra fikzioztat aurkezten da narrazioan eta aipamen paratestualetan (izenburua, sinopsia, prentsa). Nolabait, autofikzioa ezin da autobiografiatzat aurkeztu, bigarren horren egiantzekotasun printzipioa era kontzientean hausten baitu. Serge Doubrovskyk proposatu zuen autofikzio terminoa 1977an; haren arabera, garai postmodernoren ezegonkortasun ontologikoa gainditzeko ahaleginetan ari den mundu literarioak autobiografia klasikoari emandako erantzuna da.

Autofikzioaren oihartzuna ugaritu dela esan dugu, ez autofikziozko testuak. Izan ere, gutxi dira gurean halakotzat

jo izan diren obrak. Sarean bilaketa azkar bat eginez gero, idazle eta literatura kritikariek hauek aipatzen dituzte: Atxagaren *Nevadako egunak* eta *Soinujolearen semea*, Antzaren *Atzerri*, Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*, Saizarbitoriaren *Martutene*, Zalduaren *Idazten ari dela idazten duen idazlea*, Lertxundiren *Zu*, Salabururen *Errateko nituenak* eta Meaberen *Kristalezko begi bat*. Segur aski ez dugu bat eginen horiek guztiak zaku generiko berean sartzen, ezta guztiak autofikziotzat hartzen ere. Hasteko, guztietan ez da egilea izen-abizenaz istorioan txertatzen beste fikziozko pertsonaia baten gisan. Idazle horien artean, Atxagak, Zalduak eta Meabek baizik ez dute autoitzulpenerako joera erakutsi. Horregatik, eta autofikzio kasu argienetako bat delako, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* eta horren gaztelaniarako autoitzulpena aztertuko ditugu hemen.

Meabe idazlea eta itzultzailea da ofizioz, eta bere obrak itzultzeaz gainera, beste idazle batzuenak ere itzuli ditu euskarara eta gaztelaniara. Zenbatu ditugun 14 autoitzulpenetatik 13 haur eta gazte literatura testuak dira, eta beste bat kolaborazioan eginikoa. Modu indibidualean autoitzulitako helduentzako eleberririk bakarra da *Un ojo de cristal*, eta euskarazkoa baino urtebete geroago kaleratu zuen. Autoitzulpen gardenena da, esplizitua, izenburuaren azpian «Traducción de la autora» jartzen baitu lehen orrialdean, eta kreditu-orriak sorburu testuaren berri ematen. Aurreko azterketa batzuek erakutsi bezala, itzulpenak ez dakar beti gardentasuna, bereziki autorea denean itzulpenaren egilea. Horren zergatiak eta eragina beste nonbait azaldu ditudala-eta (ikus *Senez* 48), ez naiz horretan sartuko; alta, aipagarria da Meabek esplizitu egiten duela peritestueta bere itzultzaile izaera. Atzeko azalean liburua eleberrizat aurkezten bada ere, kritikari zenbaitek eta autoreak berak (*Noticias de Álava*, 2014-10-03) autofikzioa dela aipatu dute.

Istorioaren pertsonaia nagusia, autore-narratzaile esplizitua, haustura emozional batetik osatu nahian Landetako etxe batera aldatzen da bi hilabete eta erdiz, non liburu hau

idazten baitu. Espplitu egiten ditu idazketa tokia (Vieux Boucau) eta garaia (2011-09-09tik 2011-11-22ra). Lehen pertsonan mintzatzen den narratzailearen asmoa da bertan liburua idaztea, «Orrialde bat egunero. Neurri hori ezarri diot neure buruari» (hori eta hemendik aurrerako aipu guztiak eleberritik ateratakoak dira, kontrarik esan ezean). Kategoria sozialak testuan identifikatzeko modu bat izan daiteke idazlearen/itzultzailearen 'enunziazio eremuari' (Tymoczko 2003) begiratzea; hots, nondik hitz egiten den, zer posiziotik. 'Nondik' hori (auto)itzultzailearen atxikimendu kultural eta ideologikoez baldintzatuko dute, baita eremu geografikoak eta denborazkoak ere. Enunziazio eremua identifikatzeko, izenordeen erabilera eta itzultzailearen ahotsa aztertu ohi dira testuan; horiei ere begiratuko diegu jarraian.

Narratzaileak aipatzen du testua idatzi aurretik oharrak hartu zituela: «apunte-mataza bat, karpeta batean ekarri dudana hona». Nolabait, euskarazko testua oharren berridazketa osoagoa eta egituratuagoa da. Metaliteratura nonahi aurki dezakegu, baita idazketa prozesuari eginiko erreferentziak ere: «Ez dakit nora eramango nauen 2011ko irailaren 9an hasitako esperimendu honek. Ez dakit, ezta ere, zer epetara arte luzatuko den eta zer beste kontagai bilduko dituen». Idazten ari den testuari ere erreferentziak egiten dizkio: «Esan dezagun *self-imitation* bat dela». Eta, ia amaieran, bere buruari buruz eraikitako irudiaz mintzatzen da: «Ezen eta pertsonaia ere bihurtu naiz orriotan, ezinbestean: ni neu izanik, ez naiz neu erabat (nahita edo nahi gabe). Horra hor autoimitazioaren mugak eta onurak. Nire beste *ni* bat sortuz joan da hemen». Identitatearen auziari helduz, galde dezakegu

Autofikzio kasu argienetako bat delako, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* eta horren gaztelaniarako autoitzulpena aztertuko ditugu hemen. Autoitzulpen gardenada, esplizitua

gaztelaniazko autoitzulpena, berridazketaren berridazketa izateaz gainera, «beste *ni*» bat sortzeko modua ote den edo euskarazko «beste *ni*» hori bera ote den.

Liburua txataletan antolaturik dago: estilo kliniko eta poetikoa txandakatzen dira. Atal klinikoetan Meabe bere kristalezko begiari buruz mintzo da, dimentsio bikoitza duena: lehenik, balio erreala du, «neure identitate-marka delako»; bigarrenik, balio metaforikoa, bizitzako beste galera batzuen sinbolo. Gorputzetik abiatzen du, beraz, idazketa, eta subjektu gorpuztu bezala agertzen zaigu egilea testuan. Meri Torras-ek (2009) darabilen afektibitatearen ikuspegitik, emozioen kontaktak izaera kolektiboa hartzen du, identitate pertsonal eta kolektiboen, oposizio faltsuaz gaindi, bat egiten baitute liburuan. Hasieratik bertatik bada 'zu' bat, irakurleari zuzentzen zaiona eta idazle-irakurle bereizketa bistaratzen duena: «Neuretzat idazten ari naiz, beraz, baina zeuretzat ere bai akaso, akaso zeu ere bazarelako maitasunak jo eta egundaino akabatu ez duen norbait». Bere buruaz ari bada ere, Bestea presente dago. Bigarren pertsona han-hemenka agertzen da beraz hasi eta buka –«Hitzez hitz sinetsiko al duzu kontatu dizudan guztia?»–, eta, baliabide horien bidez, idazle-narratzaileak behin eta berriz jartzen ditu zalantzan errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak.

Atal batzuek kasuan kasuko atalari dagozkion oharrak dituzte amaieran, etzanez zehazten dituztela berrikusi edo garatu beharreko pasarteak. Liburuaren bukaeran esaten duen bezala, autoreak J. M. Coetzeeren *Summertime*-tik hartu zuen ideia. Intertestu horiek guztiek lan bukatugabe baten irudipena ematen dute, joera postmodernisten bidetik. Orain arte esandakoari tiraka, pentsa dezakegu itzulpen prozesuan idazleak istorioa berridatziko edo moldatuko duela euskarazko testuan jarritako oharren arabera. Behin baino gehiagotan esan izan da autoitzultzailea itzultzaile pribilegiatua dela, eta bere posizioaz baliatzen dela itzulpenean lizentzia batzuk hartzeko, ez liratekeenak berdin onartuko beste itzultzaile batek egitekotan. Hala ere, kasu azterketa honetan, autoreak

testua berregiten du gaztelaniaz, eta eutsi egiten dio ez soilik espazio eta denbora erreferentziei, baizik eta, ikusiko dugunez, baita euskarazkoan agertzen zaizkigun kategoria eta errepresentazio sozialei ere. Autorearen eta itzultzailearen rol tradizionalen arteko bereizketa nabarmena egiten du, zeinak (oraindik ere) lotzen baitira, hurrenez hurren, idazketarekin eta sormenarekin, batetik, eta hitzez-hitzezkoarekin eta kopiarekin, bestetik.

Maila makro batean, esan behar dugu Meaberen autoitzulpenak hurbiletik segitzen diola sorburu testuari, bai egiturari bai esaldi eta hitzen kopuruari dagokienez. Baieztapen horrek atzean du azterketa zabalago bat. Hamar autorearen hogeitalau prosazko testuk osatzen dute doktore tesiaren baitan eginiko corpus paralelo eleaniztun digitala; zehazki, helduentzako hamar euskarazko lan eta horien gaztelania/frantseserako hamalau autoitzulpen. Corpus horren azterketan oinarriturik landu dut Meaberen autofikzioa, identitateari arretaz begiratzeko. Testuen alderaketa horrek esaten digu autoitzulpen guztiek dituztela euskarazkoek baino hitz gehiago, eta Meaberen bikotean aldea txikia da. Euskarazkoan baino hamaika esaldi gutxiago daude gaztelaniazkoan; horietakoren bat desagertu bada ere, beste batzuk aurreko edo ondorengo esaldiari lotu zaizkio. Pentsa daiteke kopuruan aldea egotea hizkuntzen egitura eta ezaugarrien ondorio dela, ez itzulpen estrategiena; esate batera, euskara hizkuntza aglutinatzailea izateak ekar lezake hitz kopuru txikiagoa inguruko erdarekin alderatuz gero (horrek ez lioke esaldi kopuruari eragin). Nolanahi den, hipotesi modura, esanen nuke ez dela baliabide formalen eta hizkuntzaren mugen ondorio hutsa, eta, aitzitik, euskaratik frantsesera/gaztelaniara itzultzean bada-goela zabaltze linguistikorako joera estilistikoa. Hipotesia baieztatu edo ezeztatzeko, alderaketa bidezko azterketak izan behar du beste aldi baterako eginkizun.

Orobat pensatu liteke autofikzioan autorea fikzioan baino esplizituago inplikatu dela istorioan, narratzailea eta protagonista baita aldi berean, eta horrek ekar litzakeela

Badirudi Meabek 'ohi baino' hurbilagotik segitzen diola sorburu testuko egiturari, corpusean bildutako beste autoitzultzaileen jardunarekin alderatuz gero, behintzat

moldaketak, esate batera, egituran. *Kristalezko begi bat* da, ordea, gure corpuseko autofikziozko lan bakarra, eta horren autoitzulpenak erakusten du moldaketa txikiena makro

mailan. Ondorioz, badirudi Meabek 'ohi baino' hurbilagotik segitzen diola sorburu testuko egiturari, corpusean bildutako beste autoitzultzaileen jardunarekin alderatuz gero, behintzat.

Mikro mailan eta identitate teoriei helduz, Meabek xede testuan gorde egiten ditu sorburu testuko kategoria eta errepresentazio sozialak. Esan

dugunez, gorpuztasunaren eta egiletasunaren konstrukzioa da eleberria. Norberaren irudia etengabe interpretatzen eta eraikitzen da (bada 'Autoerretratu' izeneko txatal bat ere, non narratzaileak bere itxura fisikoa eta nortasuna deskribatzen baititu), baita zalantzan jartzen ere («Zer zen 'ni bezalako emakume bat'?»). Autobehaketarako ariketa bat dela esan daiteke, eta idazketak istorioaren protagonista –Meabe bera– ahalduntzen du, zentzuaren bilaketa etengabearen bidez. Autoitzulpenaren ekintza, bada, zentzu bilaketa horren sakontze modura uler daiteke, nahiz eta testu azterketak ez duen horren adierazlerik erakutsi, salbu eta autobehaketa hori beste hizkuntza batean egiteko nahia (izan hautazkoa izan bultzatutakoa).

Bere nortasunean, gorputzean eta harremanetan miatzearen bitartez, narratzaileak bere burua kategoria sozial hauetan kokatzen du, bai sorburu testuan bai autoitzulpenean: idazlea, emakumea, euskalduna, begibakarra, literaturazalea, eleaniztuna, langilea, menopausia-adinekoa, ama, alaba, ahizpa, banandua. Izenburutik bertatik, begibakarraren kategoria presente dago hasi eta buka (*begi* hitza ia ehun aldiz agertzen da), eta narratzaileak organo gabezia hori

gogorarazten du parte den beste kategoriak aurkezten dituen bakoitzean. Autoitzulpenaren bidez, kategoria horiek birproduzitzen dira; esan liteke idazle euskaldunaren kategoria nabarmendu egiten dela gaztelaniazkoan, sorburu testuan idazketa hizkuntzaren bidez adierazten den hori gaztelaniazkoan esplizitu egiten baitu. Horrela, 'idazle' kategoria behin eta berriz eta modu esplizituan eraikitzen da; aldiz, itzulpenari erreferentzia bakarra dago («Esan diot itzultzailea naizela») eta, xede testuan, bakar bat ere ez testu itzuliari edo itzulpen prozesuari, nahiz eta halakorik espero zitekeen sorburu testuko metaliteratura ikusita.

Meaberen lanean erreferentzia kultural anitz dago, bai euskal kulturari bai mundu osoan ezagun diren artelan, artista eta toponimiari. Euskal imajinario kolektiboari gagozkio-larik, erreferentzia gehienak gorde egin dira itzulpenean, pare bat salbuespenekin. Batetik, historiako begibakarren zerrendan, Tartalo desagertu egin da gaztelaniazkoan; bestetik, Anariren kantu baten esaldi ezaguna –«eskerrak ahulak garen (hamar puntu, Anari)»– autoreari edo abestiari inolako erreferentziarik egin gabe ematen du: «menos mal que somos débiles (diez puntos, Anari)». Euskal irakurleek esaldia kantuaren letrarekin lotuko dute erraz, edo, behintzat, jakinen dute Anari musikaria dela eta ondorioztatzen ahalko dute abesti batetik hartua dela; gaztelania irakurle gehienek (izan gaitezen positibo) nekez eginen dute halako loturarik. Tartalo desagertzeak neutralizazioa dakar itzulpenean, eta, Anariren aipuak, berriz, arrotasuna. Bigarren horren bide-tik, bada narratzaileak bere buruari «euskal geisha» esaten dionekoa; gaztelaniazko itzulpenean hitzez hitz ematen du, 'vasca' edo halakoren bat jarri beharrean. «Euskal» horretaz gainera, badira beste euskarazko hamaika hitz xede testuan, itzulpenik gabe ematen direnak, narratzaile-idazlearen ama hizkuntzaren gogorazle. Bukaeran, glosario batean biltzen ditu: «*aita*: padre. *ama*: madre. *amabitxi*: madrina. *aitita*: abuelo. *amuma*: abuela. *gaztetxe*: local juvenil. *txiqui*: pequeño-a, chiquito-a. *txoko*: rincón. Por extensión, sociedad

gastronómica. *zulo*: agujero, orificio, cavidad». Badira beste bi euskarazko hitz –*ikastola* eta *bidegorri*– gaztelaniazkoan, glosarioan jaso ez badira ere, beharbada Euskal Herrian bizi den gaztelania irakurleak ezagunak izanen dituelako (nahiz eta berdin ulertuko dituen glosarioan ageri diren gehienak). Izan ere, Meaberen autoitzulpena Pamielak argitaratu zuen, eta, beraz, pentsatzekoa da irakurleria potentzialak Meabek euskal munduari eginiko erreferentzien berri izanen duela, espazio geografikoa, behintzat, konpartitzen baitute. ‘Buruko autoitzulpena’ delakoari eskainitako artikulu batean, Helena Tanqueirok dio glosarioa dela idazle afrikarren lan postkolonialetan gehien erabiltzen den baliabidea, batetik, beren errealitate linguistikoa adierazteko, eta, bestetik, iradokitzeke pertsonaiak mintzo diren hizkuntzak ez duela bat egiten liburu idatzita dagoen hizkuntzarekin. Aztergai dugun itzulpenean baliabide eta helburu bera ikus ditzakegu (Tanqueirok proposaturiko oinarriekin guztiz bat egin ez arren).

Gaztelaniazkoan, autoreak eman egiten du euskarazko testuan eraikitako erreferentzia sarea eta imajinario kolektiboa, erreferentzia guztiak –tokikoak nahiz nazioartekoak– maila berean jarriz. Egokitzen bakarra egiten du: hitz baten adieraz eta terminologiaz mintzatzean, xede testuak gaztelaniazko hiztegi bateko definizioa gehitzen dio testuari, euskarazkoa ordeztu gabe, halere. Bide beretik, sorburu testuan beste hizkuntzei eginiko erreferentziak edo beste hizkuntzetako hitz/esaldi/aipuak –bereziki ingelesez eta frantsesez– bere horretan agertzen dira xede testuan, ezein itzulpen edo egokitzenekin; esate batera, «Vanitas vanitatum omnia vanitas», «Attention, madame, c’est fragile’, eta «lip-gloss». Badira euskarazko testuan zenbait gaztelaniazko hitz ere, «guapa» eta «fulanita» kasurako, xede testuan markarik gabe agertzen direnak. Euskaldun gehienek ulertuko dituzte hitz horiek sorburu testuan, lehena, behintzat, ahozkoan oso erabilia baita (euskararekin batera frantses hiztun direnek bigarrena ulertuko ote duten ez dakit). Heterolinguismo mailak sakonago azalduko ez baditugu ere, esan behar da

xede testuan hizkuntza/aldaera gehiago agertzen zaizkigula sorburu testuan baino, gorago aipaturiko euskarazko hitzak tarteko; itzulpen hautu kontziente bat, dudarik gabe. Hizkuntzaz aldatzeak ez dakar inolako etxekotze edo egokitze saia-kerarik, ezta lehenik euskaraz aurkezturiko mundu ikuskera osatzeko asmorik ere; aitzitik, mundu ikuskera hori –errepresentazio sozialak– gordetzen eta are ikusgarriago egiten dira autoitzulpenean. Aintzat harturik irakurleek testu baten zentzua osatzen eta horri esanahia ematen diotela autorearen nahi eta asmoez harago, esanen nuke xede hartzailearen distantzia fisiko, sozial eta sinbolikoak baldintza dezakeela hartzaileen posizioa autorearen mundu ikuskeraren aldean. Esaterako, gaztelaniazko testuan euskarazko hitzak sartzeak dituen inplikazioak ez dira berak izanen Euskal Herriko irakurle batentzat eta testuinguru soziolinguistikoaren berri ez duen edo horrekin loturarik ez duen kanpoko beste batentzat. Artikulu hau, ordea, autoreak bere buruaz egiten duen irakurketara mugatzen da, eta beste baterako utziko ditugu irakurleen eraikuntza interpretatiboari buruzko gogoetak.

Miren Agur Meaberen lanen kasu azterketa honek erakusten du sorburu testuan aurkeztutako kategoria eta errepresentazio sozialak xede testuan ordezkapen/egokitzen gabe ematen ahal direla. Egiletasuna eta gorpuztasuna birsortzen du gaztelaniaz, itzultzaile kategoriatik, oraingoan. Autoitzulpenak ez dakar, ordea, zuzenean eta nahitaez, beste imajinario baten eraikuntza, ezta itxuraz horretarako aproposa izan litekeen generoan ere –autofikzioan–. *Kristalezko begi bat* italiaraz, katalanez eta ingelesez ere atera da. Jakingarria izanen da aztertzea xede testu horiek autorearen itzulpen joerekin

Miren Agur Meaberen lanen kasu azterketa honek erakusten du sorburu testuan aurkeztutako kategoria eta errepresentazio sozialak xede testuan ordezkapen/egokitzen gabe ematen ahal direla

bat egiten duten, gaztelaniazko itzulpenean oinarritu diren eta kasuan kasuko xede irakurleek autorearen identitatearen eraikuntzan nolabait parte hartzen duten, testuaren eta itzul-tzaileen bitartez.

Baliteke, ordea, ezohiko kasu baten aurrean egotea; go-rago aipatu bezala, corpuseko gainontzeko testuek sorburu testuarekiko distantzia handiagoa erakusten dute egitura mailan, nahiz eta, doktore tesiko ondorioei jarraikiz, ezin dugun esan, praktikan, itzultzaileek egiten ez duten zerbait egiten dutenik autoitzultzaileek. Diskurtso mailan, ordea (eta horrek kategorizazioa dakar), bada aldea; kasurako, Atxagaren autoitzulpen eta kolaborazio lanak aztertzean, Elizabete Manterolak (2013) erakutsi du idazleak bi literatura sistemaren partaidetza aitortzen diola bere buruari, eta bere itzulpenak gaztelaniazko irakurleari egokitzen zaizkiola. Lehenago ere agertu da testuinguru linguistiko asimetrikoetan argitaletxeek helburu duten irakurle/kontsumitzaileak eragina izan dezakeela autoitzulpen teknika eta hautuetan; hortaz, aldea egon liteke Espainian/Frantzian argitaratu edo Euskal Herrian argitaratu, hautu horiek autorearen erabakien edo argitalpen irizpideen ondorio diren gorabehera. Usteak uste, corpusean oinarriturik, ikusi dugu, esaterako, Ixiar Rozasek *Negutegia*-ren autoitzulpen bera kaleratu zuela Mexiko DFn eta Iruñean (aldaketa tipografikoak salbu), eta Eider Rodriguezek aldaketa batzuk egin zizkiola *Eta handik gutxira gaur* ipuin-liburuaren gaztelaniazkoari, Donostian kaleratu zuenean, Madrilen ateratako edizio elebidunarekin alderatuta. Gogoan izan behar da Miren Agur Meabe itzultzaile profesionala dela, eta hori ere baldintzarri izan daitekeela itzulpen prozesuan hautuak egiterakoan. Gainera, autore batzuek (adib. Atxaga eta Borda) euskaraz idazten dute itzulpenaren aukera edo ziurtasuna buruan dutela, eta horrek nahitaez baldintzatuko ditu hala sorkuntza nola identitate proiektzioak (errepresentazio sozialak) lehen idazketa prozesuan (euskarazkoan), are gehiago bi literatura sistemetako kide izan nahi izanez gero (kategorizazio soziala);


horrek, ezinbestean, lehen testuaren neutralizazioa ekarri ohi du. Nabarmenagoa da hori aldi bereko itzulpenean, atzera eta aurrera egin daitekeelako eta euskarazkoa itzulpenaren neurrietara jantzi.

Ezbairik gabe, labur geratzen da azterlan hau identitatearen eta autoitzulpenaren arteko harremana ulertzeko. Proposamen dikotomikoez harago, sarrera honekin nahi izan dut itzulpenaren azterketaren bidez identitatearen auziari argi ematea (edo alderantziz), eta azterketa enpirikoan aplikatzeko marko teoriko bat eskaintzea. Zer posiziotik eta zer gorputzetik mintzatzen gatzaizkion nori eta kontaketa horretan zer sortzen dugun galde-erantzuteko aberasgarria da norbere burua, kolektiboaren parte delarik, irakurtzea. 🍷

Bibliografia hautatua

[Gainontzekoak sarreran aipaturiko doktore tesian jasota daude.]

- Dolhare-Zaldunbide, Katixa (2013). 'L'autotraduction dans l'ouvre polyphonique d'Itxaro Borda', in C. Lagarde eta H. Tanqueiro (argk.) *Lautotraduction aux frontières de la langue et de la culture*, Limoges: Lambert-Lucas, 93-99.
- Esparza, Iratxe eta Lopez Gaseni, Jose Manuel (2015). 'El texto como lugar común de la transformación identitaria', in I. Esparza eta J. M. Lopez Gaseni (argk.) *La identidad en la literatura vasca contemporánea*, Suitza: Peter Lang, 7-38.
- Evangelista, Elin-Maria (2013). 'Writing in translation: A new self in a second language', in A. Cordingley (arg.) *Self-translation: Brokering originality in hybrid culture*, Londres eta New York: Bloomsbury, 177-187.
- Ferreira-Meyers, Karen (2015). 'Autobiography and Autofiction. No need to fight for a place in the limelight, there is space enough for both of these concepts', in K. W. Shands et al. (argk.) *Writing the Self: Essays on Autobiography and Autofiction*, Huddinge: Södertörns högskola, 203-218.
- Gentes, Eva (2013). 'Potentials and Pitfalls of Publishing Self-Translations as Bilingual Editions', *Orbis Litterarum* 68/3, 266-281.
- Howarth, Caroline (2006). 'A social representation is not a quiet thing: exploring the critical potential of social representations theory', *British Journal of Social Psychology* 45/1, 65-86.
- Kippur, Sara (2015). *Writing it twice: self-translation and the making of a world literature in French*, Evanston: Northwestern University Press.
- Klimkiewicz, Aurelia (2013). 'Self-translation as broken narrativity. Towards an understanding of the self's multilingual dialogue', in A. Cordingley (arg.) *Self-translation: Brokering originality in hybrid culture*, Londres eta New York: Bloomsbury, 189-201.
- Manterola, Elizabete (2013). 'Escribir y (auto)traducir en un sistema literario diglósico: la obra de Bernardo Atxaga', in C. Lagarde eta H. Tanqueiro (argk.) *Lautotraduction aux frontières de la langue et de la culture*, Limoges: Lambert-Lucas, 61-67.
- Pujal i Llombart, Margot (2004). 'La identidad (el self)', in T. Ibáñez Gracia (koord.) *Introducción a la psicología social*, Bartzelona: Editorial UOC, 93-138.
- Torras, Meri (2016). *Cuando el cuerpo de la autora traza la poética emocional del corpus*. Un ojo de cristal, de Miren Agur Meabe, Instituto Cervantes, Varsovia [ahozko komunikazioa].



zugaz/
art

KITTO.
BUKATU DA URTEA.
ZUEK SEGI EZTABAIDAN.
NI "HEGALDI MODUAN"
SARTZEN NAIZ.

BIHOTZ HANDIEGIA DAUKAK...



Jakin *•eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

